



TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Osoko Bilkurak, 2022ko otsailaren 2an egindako bileran, ertzean adierazitako kideak bertaratu direla, zure **kontsulta** aztertu du (erregistro-zenbakia: 205/2021), hain zuzen ere, **Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen Estatutuaren Legearen aurreproiektuaren gainekoa** (Erref.: **DNCG_LEY_1952/19_52**).

Eztabaidatu eta gero, irizpen hau eman du, aho batez. Astigarraga Goenaga batzordekide andreak adierazi du Batzordearen iritzia.

BATZORDEBURUA:

Sabino Torre Díez jauna.

BATZORDEBURUORDEA:

Xabier Unanue Ortega jauna.

BATZORDEKIDEAK:

M^a Teresa Astigarraga Goenaga andrea.
Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna.
Fátima Saiz Ruiz de Loizaga andrea.
Iñaki Calonge Crespo jauna.
M.^a Jesús Urkiola Mendibil andrea.
M.^a Lourdes Pérez Ovejero andrea.
Mirari Erdaide Gabiola andrea.
Jaione Juaristi Sánchez andrea.

IDAZKARIA:

Jesús M^a Alonso Quilchano jauna.

17/2022 IRIZPENA

AURREKARIAK.....	3
AURREPROIEKTUAREN DESKRIBAPENA.....	5
BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA.....	17
EGITEKO PROZEDURA.....	17
EKIMENAREN KONSTITUZIO- ETA ESTATUTU-ESPARRUA.....	29
ESTATUKO ETA EUROPAR BATASUNEN ARAU-ESPARRUA.....	32
I 1/2007 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 16koa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako Lege orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onesten duena (KEDLOTB).....	33
II 7/2021 Errege Lege Dekretua, apirilaren 27koa.....	38
III 24/2021 Errege Lege Dekretua, azaroaren 2koa.....	41
IV Kontsumoaren arloko gatazkak ebazteko sistemak arautzen dituzten legeak.....	43





V	Administrazio-arau orokorrak.....	44
	TOKIKO ESKUMENAK.....	44
	LURRALDE HISTORIKOAK	49
	LEGE-AURREPROIEKTUAREN ANALISIA	49
I	Ohar orokorrak.....	49
II	Aurreproiektua.....	50
A)	Zehatzeko ahala.....	51
B)	Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak (78.etik 82.era arteko artikulua).....	55
C)	Aurreproiektuaren artikulua.....	66
	3. artikulua:	66
	9.etik 11.era arteko artikulua (Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordea):	67
	12. artikulua:	68
	17. eta 18. artikulua:.....	68
	19. artikulua	69
	20. artikulua:	69
	25. artikulua:	70
	28. artikulua:	70
	30. artikulua:	71
	34. artikulua:	71
	37. artikulua:	71
	40. artikulua:	72
	41. artikulua:	72
	57. artikulua:	72
	VII. kapitulua (kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak):	72
	61. artikulua:	73
	62. artikulua:	74
	63. artikulua:	75
	72. artikulua:	76
	93. artikulua:	76
	94. artikulua:	79
	96. artikulua:	79
	99. artikulua:	79



101. artikulua:	79
102. artikulua:	79
III Araugintza-teknika	80
ONDORIOA.....	86

AURREKARIAK

1. 2021eko azaroaren 26ko Aginduaren bidez (sarrera-data egun berean), Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak kontsultara eraman du Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen Estatutuaren Legearen aurreproiektua Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren aurrean.
2. Bidaltze-agindu horrekin eta kontsultarako aurkezteko aurreproiektuaren testuarekin batera, hurrengo dokumentu garrantzitsuak ageri dira igorritako espedientean.
3. Honako dokumentu hauek osatzen dute espediente hau:
 - a) Ebazpena, 2019ko maiatzaren 29koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko zuzendariarena, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren Legearen aurreproiektua egin baino lehen jendaurreko kontsulta egitea erabakitzekoa.
 - b) Agindua, 2019ko uztailaren 23koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, lege-aurreproiektua egiteko prozedura abiarazten duena.
 - c) Agindua, 2019ko irailaren 17koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, lege-aurreproiektuaren testua aldeztetik onartzen duena.
 - d) Lege-aurreproiektuaren generoaren araberrako eragin-txostena, 2019ko irailaren 13koa.
 - e) Lege-aurreproiektuari Asociación de Consumidores y Usuarios en Acción de Euskadi – FACUA Euskadi elkarteak 2019ko urriaren 9an egindako oharra.
 - f) Alegazioak, Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzak 2019ko irailaren 9an aurkeztutakoak.
 - g) Txostena, 2019ko irailaren 16koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren Aholkularitza Juridikoak lege-aurreproiektuari buruz egindakoa.



- h) Alegazioak, Merkataritza Komunikazioaren Autorregulaziorako Elkartek 2019ko urriaren 28an aurkeztutakoak.
- i) Alegazioak, Euskadiko Kontsumitzaileen Batasunak (EHKB) aurkeztutakoak.
- j) Alegazioak, Banaketa Enpresa Handien Elkarte Nazionalak 2019ko urriaren 31n aurkeztutakoak.
- k) Txostena, Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioarena, 2019ko urriaren 31koa.
- l) Idazkia, EUDELena, 2019ko azaroaren 12koa, iritzia emateko epea luzatzeko eskaera egiten duena.
- m) Erabakia, EUDELen Batzorde Eragilearena, 2019ko azaroaren 14koa, lege-aurreproiektuari buruzko alegazioei buruzkoa.
- n) Txostena, 2019ko azaroaren 18koa, lege-aurreproiektuaren enpresako eraginari buruzkoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren Aholkularitza Juridikoak egina.
- o) Txostena, 2019ko azaroaren 12koa, Lehiaren Euskal Agintaritzarena, lege-aurreproiektua aztertzen duena.
- p) Txostena, 2019ko azaroaren 20koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearena.
- q) Ziurtagiria, 2019ko abenduaren 4koa, Kontsumoko Aholku Batzordearen idazkariarena, lege-aurreproiektua aztertzean egindako alegazioak biltzen dituena.
- r) Txostena, 2020ko otsailaren 4koa, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarena.
- s) Legearen aurreproiektuaren 3.a), b) eta h), 25., 35.2 eta 113. artikuluen idazketa berria.
- t) Txostena, 2020ko urtarrilaren 21koa, Tokiko Gobernuen Batzordearena.
- u) Aurreproiektuaren memoria ekonomikoa.
- v) Txostena, 2021eko irailaren 27koa, Aurrekontu Zuzendaritzarena, lege-aurreproiektuari buruzkoa.



- w) 9/21 irizpena, 2021eko urriaren 1ekoa, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearena, lege-aurreproiektuari buruzkoa.
 - x) Idazkia, 2021eko urriaren 13koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarena.
 - y) 44/2021 txostena, azaroaren 16koa, Funtzio Publikoko Zuzendaritzarena.
 - z) Erantzuna, 2021eko azaroaren 19koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 9/21 irizpenari, lege-aurreproiektuari buruzkoari, emandakoa.
 - aa) Txostena, 2021eko azaroaren 22koa, ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzkoa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak (KEB) lege-aurreproiektuaren gainean ematen duena.
 - bb) Memoria, 2021eko azaroaren 23koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko Legearen Aurreproiektua egiteko prozedurarena. Memoria horri zenbait agiri gehitu zaizkie, prozeduran eta egindako txostenetan parte hartu dutenek egindako alegazioei eta oharrei emandako erantzunak barne hartzen dituztenak.
- 4. Azaroaren 29an, igorritako dokumentazioa osatu zen Tokiko Gobernuen Batzordeak lege-aurreproiektuari dagokionez 2020ko urtarrilaren 21ean egindako txostenarekin.
 - 5. Azaroaren 30ean, hasieran igorritako dokumentazioa osatu zen Banaketa Enpresa Handien Elkarrekin Nazionalaren alegazio-idazkiarekin (datarik gabe) eta orduko Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioaren Zuzendaritza Nagusiaren 2019ko urriaren 31ko txostenarekin.

AURREPROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

- 6. Aurreproiektua honako hauez osatuta dago: zioen azalpena, zazpi titulutan banatutako 159 artikulua, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.
- 7. Azalpen-zatia bost epigrafetan egituratuta dago.
- 8. Lehenengoak arauaren arrazoi faktikoak azaltzen ditu; hasteko, abenduaren 22ko 6/2003 Legeak onetsitako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua indarrean jarri zenetik igarotako denboraz -15 urte- ohartarazten du; aldi



horretan nabarmen aldatu da gizartean kontsumoaren arloko eskubideak babestearen ikuspegia, eta bere isla izan du horrek araugintzan, batez ere Europar Batasunaren ingurunean.

9. Ondoren, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren 12. helburua («Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak») aipatzen du; izan ere, aurreproiektuak xedetzat du «bestelako ohitura eta jarrera batzuk kontuan hartzea eta sustatzea, eta ondorioz kontsumo-harreman arrazionalak eta jasangarriak izatea, kontsumo neurritsua, ongi informatua, hausnartua eta kontzientea egiteko, eta arreta berezia jartzeko ingurumenaren kontserbazioan, bizi-kalitatean, espezifikotasun kulturallean, familia-zorpetzean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean, arrisku onargarrietan eta garapen sozioekonomiko indibidual eta kolektibo arduratsua eragiten duten gainerako faktoreetan».
10. Jarraian, azken urteetako krisi ekonomikoa aipatzen du, agerian utzi baitu «babes berezia eman behar zaiela kontsumitzaile edo erabiltzaile kalteberei, bai eta, kontsumitzaile edo erabiltzaile diren aldetik, gutxiagotasuneko egoeran, besteren mende, babesik gabe edo diskriminatuta dauden kolektiboetara eta taldeei ere».
11. Aurreko inguruabar horiei –adierazten du– azken garaietan kontsumo-ohituretan gertatutako funtsezko aldaketa gehitu behar zaie. Hori horrela, produktu mota eta erabilera oso berriak agertu dira –teknologikoak, web-orrietan eskaini ohi direnak askotariko enpresen bidez–, «(...) nabarmen hedatu dira urrutiko kontratazioak, edo merkataritza-establezimendutik kanpo egindakoak, kontratazioen lasakeria dokumentala, hitzezko kontratuak edo idatziz formalizatu gabeak eta atxikimendu-kontratuak; halaber, produktuak urrunetik merkaturatzeko eta horien publizitatea egiteko modu berriak agertu dira, batez ere zerbitzuak emateko esparruan, eta, horren ondorioz, kontsumo-harreman berean elkartzen diren enpresa zerbitzu-emaile desberdinak daude».
12. Adierazitakoari, arau-esparruaren aldaketa gehitzen zaio: Europar Batasunak kontsumoaren arloan babesteko arau ugari eman ditu, eta estatuko eremuan, berriz, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretua eman zen, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko Lege orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onartzen duena, eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako uztailaren 19ko 26/1984 Lege Orokorra bateratu zuena, zeinak ondoren zenbait aldaketa izan dituen, batez ere zuzentarau batzuk araudira ekarri behar diren ondorioz.
13. Barne-antolakuntza esparruan, ekainaren 29ko 9/2007 Legearen bidez sortu zen Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua, helburu hauekin: «kontsumitzaileak eta erabiltzaileak aldeztearen eta babestearen arloan Jaurkitzearen politikak zehaztea, planifikatzea, bultzatzea eta betearaztea».



14. Bigarren epigrafean, zioen azalpenak Konstituzioaren (EK) 51. artikulua gogorarazten du, artikulua horrek kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak babestea jasotzen baitu politiko sozial eta ekonomikoaren printzipio gidarien artean. Halaber, konstituzio-doktrinan oinarrituta, hauxe gogorarazten du: «“Kontsumo” gaia, ulertuta kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko xedea duten arau juridikoen multzoa dela, diziplina anitzekoa edo transbertsala da, eta jarduera administratiboko hainbat sektoreen bidez antolatzen da; besteak beste, osasun-ordenazioaren, industriaren, merkataritzaren eta garraioen bidez».
15. Horren ondotik, eskumena zedarritzeko zailtasuna nabarmentzen du –jurisprudentzia konstituzionalak agerian utzita–, bai eta xede horretarako finkatutako eskumen-arau batzuk ere –alde batetik, Estatuaren esku uztea kontratuen edukian eragina duten lege-erabakiak; erantzukizun zibileko araubidea; bermeen araubidea, salmenta osteko derrigorrezko zerbitzua ezarrita; babes judizialaren araubidea eta legitimazio-arauak, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek auzitegietan sarbidea izateari dagokionez; eta arbitrajearen eta abusuzko klausulen arauaketa. Bestetik, legegintza-esparru autonomikoaren esku uztea kontsumo-harremanen alderdi juridiko eta administratiboak (bereziki salmenta mota jakin batzuetan), abusuzko klausulen aurkako prebentzio-arauak eta merkatariairen izaera eta ahalmen juridikoari buruzko administrazio-alderdiei heltzen dieten arauak, bai eta kontsumitzaileek eta erabiltzaileek duten informazio-eskubidea ere; eta horri guztiari, aipatutako gaietan, estatu-oinarrien garapena gehitu behar zaio–.
16. Hirugarren epigrafeak etorkizuneko arauaren ekarpen berritzailetzat hartutakoak zerrendatzen ditu: kontsumo arduratsuaren printzipioaren deklarazioa (17. artikulua); janarien xahutze handiegia eragozteko neurriak (18. artikulua); mediku-zerbitzu guztiek «emandako arretaren ondorioz jakin dituzten produktu baten erabilerak edo kontsumoak dakartzan arriskuen berri emateko» betebeharra (21. artikulua); ondasunak eta zerbitzuak etxeetan saltzeko debekua, aldez aurretik eta berariaz onartu ezean (30. artikulua); kontratuen abusuen kontrako babesa, abusuzko klausulen eta enpresen abusuzko praktiken berri emanez (34.2 artikulua); ohiko etxebizitzetarako hornidura jakin batzuetan prestazioa eten aurretik zuzentzeko araubide berezi bat (35. artikulua); bezeroei arreta emateko zerbitzuen arauaketa berezia (36. artikulua); enpresa-jardunbide egokien kodeak bultzatzea (39. artikulua); zehapen-ebazpenak premiamendu-bidez betearazteko kalte-ordain baten zenbatekoa zehaztu ahal izateko aukera (41.3 eta 152. artikulua); kontratatutako jarduera garatzeko baldintzei buruz jakinarazteko betebeharra, ohikoak ez bezalakoak badira (48. artikulua); zerbitzu teknikoek, etxeko laguntzaz, konponketaz edo antzekoek arduratzen den enpresari buruzko informazio argia emateko eskakizuna (49. artikulua); Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak, egoera jakin batzuetan, egindako erreklamazioak, haien arrazoiak, eta ukitutako enpresak eta sektoreak ezagutarazi ahal izatea (51. artikulua); III. tituluko VII. kapituluaren kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarrean arauaketa osoa eta sistematikoa; IV. tituluaren gatazkak ebazteko ordezkari sistemak sustatzearen



aldeko apustu argia eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua EAeko kontsumoaren arloko gatazkak ebazteko ordezeko erakundeak egiaztatzeke agintari eskuduntzat hartzea; arbitrajera atxikitzea arau orokor bilakatzea sektore publikoan eta kontratazio publikoaren eremuan, bai eta hura balioestea kalitate-sarrietan eta laguntzak eta dirulaguntzak ematean; VI. tituluan ondasunak eta zerbitzuak zaindu eta kontrolatzeko administrazio-jarduketak guztiz arautzea eta, haien artean, arriskua dagoenean hartu beharreko behin-behineko neurriak, laginak hartzea, frogako eraketak barne, eta analisiak egitea; ikuskatzaileek beren burua identifikatzeko betebeharra izango ez duten (118.h artikulua) edo ikuskapenak jarduketan xede den pertsona bertan egon gabe egin ahal dituzten (122.2 artikulua) kasuen arauak; arau-hausteen katalogo zabala jasotzea (130.etik 137.era arteko artikulua), eta azken hiru urteetan egindako arau-hausteen zerrenda laburra argitaratzeko aukera (150. artikulua).

17. Laugarren epigrafeak udal-eskumenen gaia jorratzen du. Eta hauxe adierazten du: «(...) arauketa berriak ez du berritasunik ekartzeko asmorik orain arte, indarrean izan den legeriaren babesean, hain emaitza ona eman duen diseinura. Hala, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.11 artikulua ezartzen duenetik abiatzen da, zeinaren arabera udalek eskumen propioak egikaritu ahal izango baitituzte kontsumitzaile eta erabiltzaileak defendatu eta babesteko antolaketa- eta kudeaketa-eremu materialean. Esparru horretan, legeak udalei esleitzen die beren lurralde-eremuko kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak defendatzeko funtzioa. Zehazki, ezartzen du ezen, ikuskatzaile badiote, ondasun eta zerbitzuak zaindu eta kontrolatzeko funtzioak egikaritu ahal izango dituztela, baita zehatzeko ahala ere 129.d) artikuluan ezarritako moduan; betiere, enpresa eta establezimenduen egoitza udalerrian badago eta eremu horretan hausten bada araua. Aipatutako manu horrek mugatu egiten du udalen zehatzeko eskumena, gehienez ere 50.000 euroko isunak jarri ahal izango baitituzte arau-hauste arin eta astunengatik».
18. Horrekin batera, halaber, legeak udalei esleitzen dizkie «kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarrekin sustatzeko funtzioak, informazioa eta prestakuntza emateko jarduketak, baita kexak, erreklamazioak eta salaketak izapidetzekoak ere. Eta ezartzen du kontsumitzaile eta erabiltzaileen informaziorako udal-bulegoen bidez garatuko direla egiteko horiek, baldin eta udalek, nor bere burua antolatzeko ahala egikaritzen, halakorik badiote. Halakoetan, informazio-bulegoek kexa, erreklamazio eta salaketak izapidetu ahal izango dituzte, eta bitartekaritza-funtzioak bete, IV. tituluan arautzen direnak».
19. Azken balorazio gisa, azalpenak honako hau nabarmentzen du: «(...) legeriaren aukerak bide ematen du Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren jarduketa, izaera espezializatuagoa eta kontsumoaren arloko politiken ikuspegi orokorragoa duena, udalerrien ikuspegiarekin osatzeko, udalak hurbilago baitaude kontsumitzaile eta erabiltzaileengandik. Era berean, bide ematen du, baldin eta administrazio-jarduketan konkurrentzia badago, espezialitatearen, subsidiarotasunaren, lankidetzaren, koordinazioaren eta ekintza-



batasunaren printzipioak aplikatzeko, legearen 7. artikulua ezartzen duen moduan, kontsumitzaile eta erabiltzaileak hobeto eta efikazia handiagoaz babesteko».

20. V. epigrafeak xedapenen deskribapena egiten du; honako hau da haren edukia:
21. I. tituluak, «Xedapen orokorrak» –1.etik 3.era arteko artikulua–, haren xedea eta aplikazio-eremua jorratzen ditu, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko printzipio orokorra adierazten du, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) administrazio publikoen jardueraren oinarrian egon beharko den, eta arau-testuan erabilitako kontzepturik nabarmenen definizioak zerrendatzen ditu.
22. II. tituluak, «Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen eskumenak», 4.etik 11.era arteko artikulua hartzen ditu barne, eta bi kapituluak egituratuta dago.
23. I. kapituluak –4.etik 8.era arteko artikulua– bereizi egiten ditu (I) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagozkion eskumenak (4. artikulua), eta bereizi egiten ditu, era berean, Eusko Jaurlaritzari eta kontsumoaren arloan eskumena duen sailari egotzitakoak, eta (II) Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari (5. artikulua) eta toki-erakundeei (6. artikulua) dagozkienak. Administrazio-jarduketan konkurrentzia-kasua (7. artikulua) eta administrazio-lankidetzak (8. artikulua) jasotzen ditu, orobat.
24. II. kapituluak –9.etik 11.era arteko artikulua– Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordeari buruzkoa da, eta haren izaera, funtzioak, osaera eta funtzionamendua ezartzen ditu.
25. III. tituluak, «Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak» –12.etik 82.era arteko artikulua–, zortzi kapitulu ditu.
26. I. kapituluak, «Xedapen orokorrak», 12. artikulua kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak zerrendatu ondoren –hurrengo kapituluetan garatzen ditu horiek–, 13. artikuluan botere publikoen jarduketak lehentasunez zer eremu edo egoera babestu behar dituen xedatzen du.
27. Jarraian, kontsumoaren sektoreari aplikatu beharreko printzipio orokorrak adierazten ditu. Hala, kontsumoaren arloko eskubideen ukaezintasunaren printzipioa (14. artikulua); kontsumitzaileen eta erabiltzaileen aldeko interpretazioarena (15. artikulua); fede onarena eta egoera juridikoen orekarena (16. artikulua); kontsumo arduratsuen printzipioarena (17. artikulua); janariak xahutzea eragoztearena (18. artikulua) eta kontsumitzaileak eta erabiltzaileak dagozkien erantzukizunak onar ditzaten sustatzearena; horietara bideratu beharko lirateke kontsumoaren eremuko jarduketak (19. artikulua).



28. II. kapituluak –20.etik 23.era arteko artikulua– osasun- eta segurtasun-arriskuez babesteko eskubidea arautzen du. 20. artikulua segurtasun-betebehar orokorra adierazten du, eta horri jarraikiz, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskura jarritako ondasunek eta zerbitzuek produktu seguruak izan behar dute, Produktuen Segurtasun Orokorrari buruzko abenduaren 26ko 1801/2003 Errege Dekretura eta betetzekoak diren gainerako arauetara igorrita.
29. Jarraian, arriskuen berri emateko eta arriskua neutralizatzeko betebeharrak ezartzen ditu (21. artikulua), bai eta zerbitzu medikoek pertsonen osasun edo segurtasunerako arrisku larrien berri Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari emateko betebeharra ere, eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteek eta kontsumitzaileek berek kontsumo-produktu baten arriskuari buruzko edozer egitate erakunde horri jakinarazteko duten aukera. Betebeharra ez da zabaltzen berariazko zaintza-sistemak dituzten kasuetara –elikagaien alerta-sarea edo medikamentuak eta produktu sanitarioak zaintzeko sistema–.
30. III. kapituluak interes ekonomikoak eta sozialak babesteko eskubidea jorratzen du, hiru ataletan egituratzen da eta 24.etik 40.era arteko artikulua multzokatzen ditu.
31. Lehen atala 24. artikuluekin hasten da, zeinak xedatzen baitu pertsonen eskubidea dutela ondasunek eta zerbitzuek egindako eskaintza, sustapen eta publizitatearen ondoriozko kalitate eta egokitasunarekin adostasuna izatea eskatzeko, bai eta kontratuaren eta kasuan-kasuan aplikatu beharreko araudiaren ondoriozkoarekin ere.
32. 25. artikulua kontsumo-harremanaren egiaztagiri bat beti eskuratzeko eskubidea ezartzen du, eta agiri horrek gutxienez eduki behar duen informazioa zehazten du. 26. artikulua gordailu-ordezlagiria jasotzen du, eta 27. artikulua, berriz, agindu egiten dio Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari behar diren neurriak har ditzan merkataritza-jardunbideak aurreko manuetan adierazitako eskubideekin bat etor daitezela.
33. 28.etik 31.era arteko artikuluek merkataritza-eskaintzen gutxieneko edukia zehazten dute, legez kanpoko merkataritza-jardunbideak zedarrizten dituzte, bai eta etxeko salmentaren baldintzak eta ahoz egindako eskaintzen baldintzek irauteko betebeharra ere.
34. Bigarren atala –32.etik 35.era arteko artikulua– hasten da ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko orduan ez diskriminatzeko printzipio orokorraren aldarrikapenarekin (32. artikulua), eta 33. artikulua zehaztu egiten du prezioetan



generoaren arabera diskriminatzeko debekua ezarriz. 34. artikulua Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak kontsumitzaileak kontratuen abusuen kontra babesteko zer egin behar duen aipatzen du, eta 35. artikulua ohiko etxebizitzako oinarrizko eta interes orokorreko zerbitzuetarako berariazko aurreikuspena jasotzen du.

35. Hirugarren atalak –36.etik 38.era arteko artikulua– enpresetan bezeroei arreta emateko zerbitzuak arautzen ditu (36. artikulua), eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskura honako hauek jartzeko betebeharra ezartzen du: posta-helbide bat eta, era berean, helbide elektronikoa bat edo doako telefono-zenbaki bat.
36. 37. artikulua xedatzen du enpresek prestasunez ebatzi behar dituztela kontsumitzaileek aurkeztutako keak eta erreklamazioak, eta lege ezartzen du betebeharrak horren gutxienezko edukia.
37. 39. artikulua etxebizitzetako interes orokorreko oinarrizko zerbitzuetarako premia arreta emateko telefonoari buruz dihardu.
38. Laugarren atalak –39. eta 40. artikulua– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak jardunbide egokien kodeak sustatzeko betebeharra jorratzen du (39. artikulua), bai eta indarrean den prozesu-legeriak onartutako moduan ekintzak abiarazteko aukera ere –zeina udalek ere baduten– (40. artikulua).
39. IV. kapituluak, «Kaltea konpontzeko eskubidea», 41.etik 43.era arteko artikulua jasotzen ditu, eta merkatuan haien eskura jarritako ondasunak edo zerbitzuak eskuratu edo erabiltzearen ondorioz kalterik nozitu duten kontsumitzaileek kalte-galerengatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dutela jasotzen du. 42. artikulua xedatzen du, berriz, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak eta udalek laguntza jarri ahal izango dutela kalteren bat pairatu dutenen eskura kalte hori teknikoki balioesteko. Eta 43. artikulua institutua administrazio publikoen ondare-erantzukizunetik kanpo uzten du, zerbitzu publiko bat ematearekin lotuta pairatutako kalteen ordaina emateko orduan.
40. V. kapituluak, «Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen informazio eskubidea», hiru ataletan egituratzen da, eta 44.etik 54.era arteko artikulua multzokatzen ditu.
41. Lehen atalak ondasunei eta zerbitzuei buruzko informazio eskubidearen edukia zehazten du. 44.etik 49.era arteko artikuluek xedatzen dute enpresek gutxienez zer eduki jaso behar duten eskaintzen dituzten ondasunen eta zerbitzuen etiketetan eta aurkezpenean –haiei aplikatu beharreko berariazko araudiaren kalterik gabe–. Era berean, honako hau ere zehazten du: sustapen-



eskaintzen publizitatearen gutxieneko edukia, prezioei buruzko informazioa eta bestelako informazio garrantzitsuak –jendeari arreta emateko ordutegia eta jardunbide egokien kodeekin edo gatazkak ebazteko ordezkari sistemekin bat eginda dauden–, jardueren edo zerbitzuen garapen-baldintzei buruzko informazioa, eta zerbitzuen lineako eskaintzetako enpresaburuen nortasunari buruzkoa.

42. Bigarren atalak –50.etik 52.era arteko artikulua– informaziorako administrazio-jarduketak jorratzen ditu. Era horretako jarduketa motak zerrendatuta daude 50. artikuluan; kontsumitzaileen interesetarako ondorio garrantzitsuak daudenean erreklamazio jakin batzuk zabaltzeko aukera ageri da 51. artikuluan, eta informazioa emateko kanpaina bereziak, araei buruzko informaziorako sarbidea eta informazioaren teknologia berrien erabilera, berriz, 52. artikuluan.
43. Hirugarren atalak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen informaziorako bulegoak jorratzen ditu; hala, bada, horiek nola sortu eta koordinatu aurreikusten du (53. artikulua), bai eta zer funtzio duten (54. artikulua).
44. VI. kapituluak, «Kontsumoko hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko eskubidea» –55.etik 59.era arteko artikulua–, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren eta toki-erakundearen jarduketa eta erantzukizun batzuk xedatzen ditu, kontsumoaren arloko hezkuntza eta prestakuntza sustatzeko. Xede horretarako, honako hauek zehazten ditu: prestakuntzaren helburua eta titulartasun publikoko komunikabideen esku-hartzea (55. artikulua), maila guztietako administrazioen arteko lankidetzaren beharra (56. artikulua), hezkuntzaren eta prestakuntzaren jarduerak lortzera bideratu beharreko helburuak (57. artikulua), Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak antolatzen dituen hezkuntza- eta prestakuntza-programen helburuak (58. artikulua) eta bestelako prestakuntza-ekintza batzuk (59. artikulua).
45. VII. kapituluak, «Ordezkapenerako, parte hartzeko eta kontsultarako eskubidea», lau atal ditu, 60.etik 77.era arteko artikulua barne hartuta, eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak guztiz arautzen ditu.
46. Lehen atalak, xedapen orokorretan, elkartegintza aitortzea eta sustatzea ezartzen du (60. artikulua), «kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarte»aren kontzeptua haiek jarduteko printzipioak mugatuz definitzen du (61. artikulua), bai eta EAEko eremuan ordezkariak duten elkarten betekizunak ere (62. artikulua), erregistro espezifikoa izena emateari lotuta beti, zeinak legitimazioa ematen baitie esparru horretan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes orokorrak edo lausoak ordezkatzeko (63. artikulua).



47. Bigarren atalak honako hauek zehazten ditu: jarduteko printzipioak (64. artikulua), independentzia-baldintzak (65. artikulua), merkataritza-sozietateetan parte hartu ahal izateko baldintzak (66. artikulua), elkarteek merkatu-operadoreekin ezarri ahal duten lankidetz-esparruaren zehaztapena (67. artikulua), lankidetz-hitzarmenak edo -akordioak (68. artikulua), kontuak gordailutzeko betebeharra (69. artikulua) eta informazio horren publikotasuna (70. artikulua).
48. Hirugarren atalak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarten funtzioak (71. artikulua), eskubideak (72. artikulua) eta enpresa-erakundeekiko lankidetz (73. artikulua) arautzen ditu.
49. Laugarren atalak EAEko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarten erregistroa eta betekizunak betetzearen gaineko kontrola antolatzen ditu (74. eta 75. artikulua), eta inskripzioko baja (76. artikulua) eta beste erregistro batzuekiko lankidetz (77. artikulua) aurreikusten ditu.
50. VIII. kapituluak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak jorratzen ditu, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko 6/2003 Legea aldatzeko otsailaren 9ko 2/2012 Legea inspiratu zuten printzipioetan oinarrituta. Bereizketa hauek egiten ditu: erakunde publikoak (79. artikulua), interes orokorreko oinarrizko zerbitzuak eta merkataritza-establezimendu handiak (80. artikulua), ondasunen eta zerbitzuen aurkezpen eta etiketatzea (80. artikulua) eta sustapen-jarduketa publikoa (82. artikulua).
51. IV. tituluak, «Kontsumoko gatazkak konpontzearen esparruko administrazio-jarduketak», lau kapitulu ditu eta 83.etik 94.era arteko artikulua jasotzen ditu.
52. I. kapituluak, «Xedapen orokorrak» –83. eta 85. artikulua–, honako hau jorratzen du: eskumena duten administrazioek gatazkak konpontzeko ordezkotako sistemak sustatu eta garatzea (83. artikulua), kontsumitzaileak eta erabiltzaileak juridikoki babesteko administrazio-jarduketak arautzen dituzten sistemen bidezko zuzentasuna, zeina bitartekaritza- eta arbitrajearen bitartez bideratuko den (84. artikulua), eta bitarteko elektronikoak eta telematikoak erabiltzea kexak, erreklamazioak eta bitartekaritza-prozedurak bideratzeko (85. artikulua).
53. II. kapituluak kexei, erreklamazioei eta salaketei buruzkoa da. 86. artikulua horiei buruzkoa da, eta 87. artikulua, berriz, erreklamazio-orriei buruzkoa, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritzako edo zerbitzuak, publikoak edo pribatuak, ematen dituzten establezimenduen pertsona fisiko edo juridiko titular guztiek eduki behar dituzten.



54. III. kapituluak bitartekaritzari buruzkoa da –88.etik 91.era arteko artikulua–, eta honako hauek ezartzen ditu: jarduteko printzipioak (88. artikulua), bitartekaritza-prozedura (89. artikulua), akordioen izaera (90. artikulua) eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak gatazken konponbiderako erakundeak akreditatzea (91. artikulua).
55. IV. kapituluak arbitrajea jasotzen du (92.etik 94.era arteko artikulua). Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari agintzen dio Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordearen bidez kontsumoko arbitraje-sistema antolatzea Euskal Autonomia Erkidegoan, eta toki-entitateekin koordinatzea sistema horren funtzionamendua (92. artikulua). Sektore publikoan eta kontratazio publikoan arbitrajeari atxikitzea jasotzen du (93. artikulua). 94. artikulua arbitraje-sistemari atxikitzea balioetsi ahal izatea aurreikusten du kalitaterako sarien arloan eta laguntzen eta dirulaguntzen eremuan.
56. V. tituluak, «Zaintzeko eta kontrolatzeko administrazio-jarduketak», hiru kapitulu ditu eta 95.etik 111.era arteko artikulua jasotzen ditu.
57. I. kapituluak neurri orokorrak zehazten ditu, jarduteko printzipio orokorrak ezartzen ditu (95. artikulua), eta ondasunak eta zerbitzuak zaindu eta kontrolatzeko ahalmenak ematen dizkio Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari (96. artikulua), bai eta ohartarazpenak eta errekerimenduak egiteko aukera ere (97. artikulua). Merkatuko kanpainen urteko plana jasotzen da, halaber, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babes homogeneoa bermatzeko (98. artikulua).
58. II. kapituluak arriskuen aurreko behin-behineko neurrien arautze orokorra egiten du. 99. artikulua eremua eta kasuak taxutzen ditu. 100. artikulua neurri horiek hartzean proportzionaltasun-printzipioa aplikatzea zehazten du. 101. artikulua hartu ahal izango diren neurri motak zerrendatzen ditu, eta 102. artikulua, berriz, haiek hartu ondoren jarraitu beharreko prozedura. 103. artikulua arriskuen alerta eta informazioa emateko zerbitzuari buruzkoa da.
59. III. kapituluak laginak hartzeari eta analisiak egiteari buruzko arautze orokorra jorratzen du. Laginak hartzeko kasuak 104. artikuluan adierazita daude, eta 105. artikuluan haien kostua egotzeko arauak zehazten dira. Egindako analisisien ondorioak 106. artikuluan daude mugatuta. Laginak hartzeko eta analisiak egiteko baldintzak –ekintza bakarreko analisiaren kasu bereziarekin– 107., 108. eta 109. artikuluetan jasotzen dira, hurrenez hurren. Lagin bakarreko analisiari buruzkoa da 110. artikulua. Eta 111. artikulua analisisiak egiteko kostua zeini egotzi zehazten du.



60. VI. tituluak, «Kontsumoko ikuskaritza», 112.etik 124.era arteko artikulua hartzen ditu barnean, eta ikuskaritza horren alderdi guztiak jorratzen ditu: eremua (112. artikulua); jarduteko printzipioak (113. artikulua); ikuskatzaileak identifikatzeko arauak (114. artikulua); ikuskatzaileen betebeharrak (115. artikulua); haien agintari-izaera (116. artikulua); kontsumoko ikuskaritzaren funtzioak (117. artikulua); ikuskaritzaren ahalmenak (118. artikulua); ikuskatua den pertsonaren betebeharrak (119. artikulua); administrazio publikoek ikuskaritzari laguntzea (120. artikulua); ikuskaritzak jarduteko modalitateak eta nola dokumentatu behar duten (121. artikulua); ikuskapen-aktak eta haien gutxieneko edukia (122. artikulua); egitateak eta inguruabarrak egiazatzeko eginbideak (123. artikulua), eta ikuskaritzak egindako dokumentuak eskura jartzea (124. artikulua).
61. VII. tituluak, «Zehatzeko ahala», sei kapitulu ditu, eta 125.etik 159.era arteko artikulua jasotzen ditu.
62. I. kapituluak xedapen orokorreari buruzkoa da: zehatze-ahala zer administraziok duen (125. artikulua); eremu objektiboa (126. artikulua); lurralde-eremua (127. artikulua); beste administrazio batzuek egindako dokumentuek zehatzeko prozeduretan baliozkotasuna izatea (128. artikulua), eta zehapenak ezartzeko organo eskudunak (129. artikulua).
63. II. kapituluak arau-hausteen tipifikazioari heltzen dio. 130. artikuluan, pertsonen osasuna eta segurtasuna zaintzearen arloan egindako arau-haustek. 131. artikuluan, aldaketen, aizunketen, iruzurren eta engainuen ondoriozko arau-haustek. 132. artikuluan, ondasunak eta zerbitzuak informatzearen, merkaturatzearen eta saldu eta hornitzearen arloko arau-haustek. 133. artikuluan, kontratu aurreko informazioaren arloko arau-haustek. 134. artikuluan, kontsumitzaile eta erabiltzaileekin egiten diren kontratuen arloko arau-haustek. 135. artikuluan, bermeen eta salmenta ondorengo zerbitzuaren alorretako arau-haustek. 136. artikuluan, zaintzaren, kontrolaren eta ikuskaritzaren alorreko arau-haustek. 137. artikuluan, aurreko manuetan adierazitako sektoreetan sartzen ez diren gainerako arau-haustek.
64. III. kapituluak arau-haustek arin, astun eta oso astun kalifikatzen ditu (138. artikulua). 139. artikulua legean tipifikatutako ekintzak edo ez-egiteak arin, astun edo oso astuntzat jotzeko irizpideak ezartzen ditu.
65. IV. kapituluak zehapenei buruzkoa da, hiru atal ditu, eta 140.etik 153.era arteko artikulua jasotzen ditu.



66. Lehen atalean, 140. artikulua zehapen mota nagusiak eta osagarriak ezartzen ditu; 141. artikulua isunak zehazten ditu; 142. artikulua, establezimendua, instalazioa edo zerbitzua ixteko zehapena; 143. artikulua, salgaiak konfiskatzeko zehapena, eta 144. artikulua, zehapenaren publizitatea.
67. Bigarren atalean zehapenak nola mailakatu zehazten da: 145. artikulua zehapenak mailakatzeko irizpideak zerrendatzen ditu; 146. artikulua, inguruabar astungarriak; 147. artikulua, inguruabar aringarriak, eta 148. artikulua, inguruabar mistoak. 149. artikuluan diruzko zehapenak murrizteko araubidea jasotzen da.
68. Hirugarren atalean honako hauek daude jasota: egindako arau-haustek argitaratzeko araubidea (150. artikulua); jendaurreko zuzenketak (151. artikulua); kalte eta galeren kalte-ordaina (152. artikulua), eta dirulaguntzak emateari buruzko zehapenen ondorioak (153. artikulua).
69. V. kapitula arau-hausteengatik erantzukizunei buruzkoa da. 154. artikulua subjektu erantzuleak jasotzen ditu. 155. artikulua ordezkariengatik erantzukizuna jorratzen du, eta 156. artikulua, berriz, kontraprestazioaren erantzukizuna jasotzen duenarena.
70. VI. kapitula hauek zehazten ditu: arau-hausten preskripzio-araubidea (157. artikulua), prozeduraren iraupena (158. artikulua) eta zehapenen preskripzioa (159. artikulua).
71. Lehenengo xedapen iragankorrak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak araudi berrira egokitzeko araubidea ezartzen du.
72. Bigarren xedapen iragankorrak indarrean uzten du erreklamazio-orrien araubidea, harik eta legea erregelamenduz garatzen den arte.
73. Hirugarren xedapen iragankorrak makina automatikoak, bi urteko epean, egokituko direla adierazten du, kontsumoaren egiaztagiria eman ahal izan dezaten.
74. Xedapen indargabetzaileak indargabetu egiten du hala Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko Legea (abenduaren 22ko 6/2003 Legea) nola Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko uztailaren 1eko 123/2008 Dekretua.
75. Azken xedapenak, berriz, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu eta biharamunean jarriko dela indarrean xedatzen du.



BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA

76. Irizpen hau ematea nahitaezkoa da eta halaxe ematen da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Legearen (azaroaren 24ko 9/2004 Legea) 3.1 artikulua betez, non a) letran, Batzordearen aholkulari funtzioaren esparruan, barneratzen diren «lege-aurreproiektuak, edozein izanik ere haietako gai eta helburuak». Era berean, ez gaude xedapen berak derrigortasun horri buruz adierazitako salbuespenetako baten aurrean.

EGITEKO PROZEDURA

77. Batzorde honen doktrina errepikatua da prozedurazko betekizun oro baldintza material baten ondorio dela. Hori dela eta, hura aztertzen delarik, benetan betetzen dela konprobatu behar da, formalki betetzetik harago. Egintzak edo arauak prestatzeko modua epaitzeko irizpidea beti hori bada, lege-aurreproiektuez ari garelarik, irizpide hori nabarmendu egiten da; izan ere, legeak egiteko ahalaren eta erregelamenduak egiteko ahalaren arteko desberdintasun muturrekoak azterketa hori nabarmenki baldintzatzen du—«legegileak ez du Konstituzioa gauzatzen, egiten duena da hark ematen duen esparruaren barnean askatasunez eskubidea sortzea, eta, erregelamenduak egiteko ahala gauzatzekoan "Konstituzioarekin eta legeekin bat etorritik jarduten da (Espainiako Konstituzioaren 97. artikulua)" (besteak beste, 209/1987, 55/2018 KAE)»—.
78. Legebiltzarrean hedatzen da bere zabalean legegintza-prozedura, eta Konstituzioak (EK), Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuak (EAE) edo, batzuetan, lege organikoek baldintzak ezartzen dituzten berariazko kasuetan izan ezik, lege-proiektuek bete behar duten baldintza bakarra da beharrezko aurrekariekin batera bidaltzea Legebiltzarrera, hark bere iritzia eman ahal izan dezan; gutxienez ere, memoria orokorra, finantzaketari buruzko eranskina eta kontrol ekonomikoko txostena, aurrekontuari karga edo zama dakarkioten proiektuetan, gure irizpena eta legeriaren arabera nahitaezko diren beste txostenak (Jaurlaritzaren Legearen 57. artikulua, eta Ganberako Araudiaren 133.2 artikulua).
79. Egin beharreak lege bat bada, gobernuak hura gauzatzeko egindako bidea aztertu behar da, ez haren balioari eragin diezaioketen akatsak saihesteko, baizik eta beste modu baliagarri batez ziurtatzeko Parlamentura eramaten den arauketa arrazoizkoa dela –hausnartutako erabaki baten emaitza– eta zentzuzkoa –gure ordenamenduaren jarraibide axiologikoekin bat datorrena–.



80. Horregatik hedatu da lege-aurreproiektuetara ere Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak (XOEPL) xedapen orokorretarako ezarritako metodologia bera. Horrela azaltzen da zioen azalpenean: «(...) [hartara], legegintzako ahala duenaren eginkizuna erraztu egingo da, hobeto funtsatutako proiektuak aurkeztuko baitzaizkio eztabaidatu eta erabakitzeko, helburuak erdiesteko egokiago eta finago den teknika juridikoz, artikulutan banatuak».
81. Halaber, hori du azken helburutzat Batzordearen azterketak, gobernuaren barnean aurreproiektuak eratzeko prozesua behatzen baitu, ekimenari buruzko epai juridikoa osatzeko ezinbestekoak diren datuak barneratzen dituen egiaztatzeko —helburuen egokitasunari dagokiona eta proposatutako eduki arauemailea barneratzen dituen—.
82. Betiere aipaturiko ikuspegi material horren barruan, Batzordeak honako hauek aztertzen ditu: organo sustatzailean prestatzeko fasea —kontuan hartu dituen premisa faktikoak eta juridikoak, lehen testua egin aurreko hausnarketa—; hartzaileek eta eragindako sektoreek parte hartzeko prozeduraren hasiera-fasea —zer iritzi eman duten, zer proposamen egin dituzten, eta onartzeko edo baztertzeko arrazoiak—; egin beharreko arauaren eragina jardunean nabari dezaketen administrazioen parte-hartzea (eta balorazioa); eta, arauak diotenaren ondorioz, eta dauzkaten ezaugarri kualifikatuak oinarri hartuta, egin asmo den testu arauemaileaz irizpena emateko eginkizuna egokitu zaien organoen esku-hartzea.
83. Prozeduraren azterketan, halaber, ikusten da prestatzean kontuan hartu ote diren egin asmo den arauketaren egingarritasuna kasuan-kasuan baldintzatzen duten faktoreak (ea aztertu diren haren aplikazio-aukerak, haren benetako ahalmena xede diren ondorioak lortzeko), eta, alderdi horretan, arreta berezia jartzen zaio eragin ekonomikoa ebaluatzeko moduari: arauak administrazioei eskatuko dien ahalegin publikoa bezala, ahalegin pribatua ere neurtzen da —arauaren izaeraren ondorioz beharrezkoa izatera—. XOEPLren 10.3 *in fine* artikuluan erabilitako hitzetan, zera ebaluatuko da: «bere aplikazioak beste administrazio batzuentzat, partikularrentzat eta, oro har, ekonomiarentzat zer kostu dakarren».
84. Aipatutako parametroekin, jarraian, emaitza modura Euskadiko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren Legearen aurreproiektuaren testua, aztergai dena, eman duen prozedura aztertzen da.
85. Egindako lehen izapidea **aurretiko kontsulta** da. Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko zuzendariaren **Ebazpenak, 2019ko maiatzaren 29koak**,



aurreproiektua egin baino lehen kontsulta egitea erabaki zuen, hark uki zitzakeen pertsonen eta erakundeen iritzia berri jasotzeko.

86. Ebazpen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen iragarki-taulan eta Legegunean argitaratu zen, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) 7.c artikuluan xedatutakoa betetzeko.
87. Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren **2019ko uztailaren 23ko Aginduak** lege-aurreproiektua egiten hastea erabaki zuen.
88. Aginduak haren xedea betetzen du (XOEPLaren 5.1 artikulua), identifikatzen ditu, izan ere, egiteko prozesua zuzendu behar duten jarraibide nagusiak eta ekimena bultzatzen duten arrazoiak –Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen aurreko Estatutua onetsi zenetik igarotako denbora (2003. urtea), eta horrekin batera, kontsumo-praktiketan izandako aldaketa handiak eta arau berriak onartu izana–.
89. Lortu nahi dituzten helburuak mugatzen dira: kontsumoaren arloko administrazio publikoen arteko harremanak antolatzea; kontsumo-jardunbide berriak arautzea eta arau-kontzeptu berriak gehitzea —pertsona kaltebera, jardunbide egokien kodeak, kontsumo arduratsua, desgaituentzako informazio irisgarria edo indarkeria ekonomikoa–; kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak araua egituratzen duen ardatz bihurtzea; kontsumitzaileen eta erabiltzaileen administrazio-babeserako prozedurak eguneratzea; arau-hausteen katalogoa garatzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeak (urriaren 1eko 40/2015 Legea), segurtasun juridikoari dagokionez, egindako gomendioei jarraikiz; Europar Batasunaren araudiaren edukiak gehitzea honako alderdi hauetan: produktuen segurtasun orokorra, produktu akastunengatiko erantzukizuna, zerbitzu-hornitzaileen segurtasuna eta erantzukizuna, merkataritza elektronikoa edo abusuzko klausulak.
90. **Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2019ko irailaren 17ko Aginduak** aurretiaz onetsi zuen lege-aurreproiektua (XOEPLaren 7.1 artikulua). Izapide honen helburuarekin bat etorritik, testu horretan ekimena Gobernuari helarazteko eskumena duen organoaren hasierako jarrera jasotzen da [ekainaren 30eko 7/1981 Legea, Gobernuarena, 18.a) artikulua].
91. Testu hori Eusko Legebiltzarrerara igorri da aipatutako Jaurlaritzari buruzko Legearen (ekainaren 30eko 7/1981 Legea) 56. artikuluan ezarritakoa betez.
92. Sail sustatzailearen baitan garatutako hasierako faseari dagokio, halaber, **generoaren araberako eraginaren aurretiko txostena**, Emakumeen eta Gizonen



Berdintasunerako Legearen (otsailaren 18ko 4/2005 Legea) 19. artikulua xedatuta. Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko erabakian hura egiteko zehaztutako jarraibideen arabera egin du organo sustatzaileak.

93. Txosten horrek, haren legezko eskakizunak duen helburuaren arabera, aurreproiektuak emakumeen eta gizonen egoeran kontsumoaren arloan zer eragin izango lukeen ebaluatzen du. Errealitate horretara hurbiltzen da gizarte-klasearen araberrako kontsumoko desberdintasunei buruzko azterlanetan eta kontsumitzaileen portaeraren azalpenean generoaren kontzeptua sartzen duten azterlan apurretan oinarrituta. Zehazten du aurreproiektuak zer neurri hartzen dituen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko: esate baterako, kontsumitzaile kalteberaren kontzeptua (3. artikulua) edo babes berezia duten eskubideak (12. artikulua); administrazioen informazio- eta prestakuntza-jarduerak (4. artikulua) eta emakumeek erabakiak hartzen parte har dezaten sustatzea, haiek gehituta aurreproiektuak jasotzen dituen organoetan. Txostena amaitzeko, kontsumoaren eremuan ikusitako desberdintasunak ezabatzeko neurriak proiektatuko diren lau ardatzak zehazten dira.
94. Sail sustatzailearen Aholkularitza Juridikoak XOEPLaren 7.3 artikulua **txosten juridikoa** egin zuen **2019ko irailaren 16an**. Txosten horrek aurreproiektua egiteko segitu beharko diren oinarritzko jarraibideak gogorarazten ditu, ekimenaren eskumen-oinarria aztertzen du, bai eta EAEn barruko banaketa-lerroak ere, aplikatu beharreko esparru juridikoaren argitan proposatutako edukia aztertzen du, hartara egokitzen dela erabakitzen du, eta testua hobetzeko zenbait gogoeta eta iradokizun egiten ditu.
95. **2019ko azaroaren 18an** Enpresaren gaineko eraginari buruzko txostena egin zen, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko Legearen (ekainaren 28ko 16/2012 Legea) 6. artikuluan ezartzen duen moduan. Txosten horrek aurreproiektuaren edukia labur-labur aztertzen du, enpresen eraketan, abiaraztean eta funtzionamenduan eragiten duten arau-edukiak identifikatzen ditu eta ezarritako betebeharrak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen babesean justifikatuta daudela ondorioztatzen du, eta ezin direla hartu, horrenbestez, enpresa-jarduerarako bidegabeko oztopotzat; etorkizuneko arauak ez dakar, orobat, zama handiagorik kostu burokratikoetara dagokienez.
96. Memoria ekonomikoa da organo sustatzailearen barruan egindako azken dokumentua. Ekimenaren ikuspegi ekonomikoa aztertzean egiten da haren balioespena.



97. Parte hartzeko prozedura irekitzen duten izapideei dagokienez, **jendaurreko informazio**arekin hasten dira, zeina Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko zuzendariaren **2019ko irailaren 24ko ebazpena** EHAAan argitaratuz gauzatzen baita.
98. Merkataritza Komunikazioaren Autorregulaziorako Elkartek alegazio batzuk egin zituen, eta horien bidez publizitate-autorregulazioko sistemei buruzko aurreikuspena jasotzea komeni zela adierazi zuen; kontsumitzaileen mesedetan da hori, publizitatea arduratsua izaten laguntzen baitu.
99. **2019ko irailaren 27an** aurreproiektuaren testua erakunde hauei bidali zitzaizen:
- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteei: EKA (Euskal Kontsumitzaileen Elkartea); EKE (Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa); UCE (Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna); FACUA Euskadi (Asociación de Consumidores y Usuarios en Acción de Euskadi), KLAUSULAK (Euskadiko finantza eta merkatuko zerbitzuen erabiltzaileen eskubideen defentsarako elkartea).
 - Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari, Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialari eta Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberari.
 - Euskadiko Kooperatiben Konfederazioari (KONFEKOOOP) eta enpresa-elkarte hauei: CONFEBASK (Euskal Enpresarien Konfederakuntza) eta ADEGI (Gipuzkoako Enpresen Elkartea).
 - ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuei.
 - Merkatarien elkarte hauei: AENKOMER (Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresariak), GASTEIZ ON (Gasteizko Hiri Merkataritza Sustatzeko Elkartea), BILBAO DENDAK (Bilboko merkataritza- eta turismo-jarduera sustatzeko elkarte plataforma publiko-pribatua), CECOBÍ (Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa), EUSKALDENDAK (Euskadiko Merkatarari, ostalari eta zerbitzu-enpresen elkarten Konfederazioa), Gipuzkoako Merkatarien Federazioa, SS SHOPS DONOSTIA elkartea, Merkatarari Elkarten Taldea.
100. Honako erakunde hauek alegazioak aurkeztu dituzte: FACUA EUSKADI, Merkataritza Komunikazioaren Autorregulaziorako Elkartea (AUTOCONTROL), Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna-CAUCE/EHKB eta ANGED Banaketa Enpresa Handien Elkarte Nazionala.



101. Egiteko espedientean balio oso handiko dokumentu bat dago; dokumentu horrek entzunaldia aztertzea –behar den ikuspegi materialarekin– laguntzen du, egindako alegazio eta ekarpen guztiei banan-banan erantzun baitie organo sustatzaileak, eta, proposamenak onartzeko –eta testua, ondorioz, egokitze-edo kontuan ez hartzeko zer arrazoi izan dituen azaldu die kasu guztietan.
102. Entzunaldiko izapidean sartu behar da, halaber, Kontsumoko Kontsulta Batzordearen esku-hartzea (XOEPLaren 8. artikulua), zeinak gai batzuk argitzeko iradokizunak egiten dituen. Organo sustatzaileak honako alderdi hauei buruzkoak onartu ditu: kontsumo-harremanaren egiaztagiria, aurrekontua, aurrez ordaintzea eta gordailu-frogagiria, bai eta hurbileko (0 km) eta sasoiko kontsumoari buruzko berriazko aipamena jasotzea, eta manu batzuetan ukitutako subjektuak hobeto mugatzea.
103. Parte hartzeko aldian esku hartzen duten administrazio publikoei dagokienez (XOEPLaren 9. artikulua), prozeduran parte hartzeko deia jaso dute hiru foru-aldundiek, hiru hiriburuetakako udalek eta EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteak (ordezkaritza handiena duen udalerrien elkarteak).
104. Elkarte horrek baino ez du aurreproiektuari buruzko iritzia eman, eta beren Batzorde Eragilearen 2019ko azaroaren 14ko erabakiaren berri eman du.
105. Alegazioak honako alderdi hauei buruzkoak dira: aplikazio-eremua, are gehiago zehaztu beharra dagoela iritzita; kontzeptu batzuen definizioa (kontsumitzaile kalteberak eta babes bereziko kolektiboak); administrazio publikoen eskumen-eremuak mugatzea; eta finantzaketa (alderdi hori jorratzen duen kapitulu baten falta sumatzen da).
106. Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioaren Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiak gogoeta batzuk plazaratu ditu bere iritziz oinarrituko araudiarekin guztiz bat ez datozen manuei dagokienez (1/2007 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Legearen testu bategina eta beste lege osagarri batzuk onesten dituen).
107. Aurreproiektuaren testua Jaurlaritzako sail guztien eskura jarri da, halaber.
108. Osasun Sailak bere iritzia eman du, eta nabarmendu du bi hauek bateragarri egin beharra dagoela: proiektatutako arauketa eta, indarreko araudi sektorialaren arabera, medikamentuei, produktu sanitarioei, kosmetikoei eta norberaren zainketakoei buruzko alerten esparruan organo sanitarioei dagozkien eskumenak. Horrek eduki batzuk egokitzea ekarri du, funtzioen mugaketa zehazteko. Era berean, mugatutako arau-hauste batzuen konkurrentzia gerta litekeela adierazi



dute, baina gai hori aurreikusita egonik (40/2015 Legearen 31. artikulua), araua aplikatzean konpondu ahal izango dela uste da.

109. Nahitaezko txostenei dagokienez, **Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2019ko azaroaren 20an** egin zuen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005 Legea) 21. artikuluan xedatutako txostena. Txosten horrek proiektutako testuari buruzko zenbait gogoeta jasotzen ditu, bai eta aurreikuspen berriak gehitzeko proposamen batzuk.
110. Organo sustatzaileak egindako ekarpenen balioa nabarmendu du; dena den, azaldu du hala testua lantzeko nola aldatzeko proposamenak onartu ala ez erabakitzeke erabili den oinarritzko premisa ekimenaren lehentasunezko helburua aintzat hartzea izan dela; kontsumoaren gaia arautzea, alegia.
111. Egindako proposamenek testua honako alderdi hauetan egokitzea ekarri dute: genero-ikuspegiaren aipamen bat gehitu da arrazoizko kontsumo-harremanak lortzera bideratutako jarduera publikoetan, bai eta ikuspegi horren berariazko aipamen bat ere azalpen-zatian. Gainerako iradokizunei dagokienez, edo testuan dagoeneko badaudela pentsatzen da, edo, beste lege-arau batzuetan (funtsean, EGBL) daudelako ez direla beharrezkoak, ez baita egokitzen jotzen lege-testu horretan dauden betebeharrak berriz adieraztea.
112. **2020ko urtarrilaren 21ean Tokiko Gobernuen Batzordeak** aurreproiektuari buruzko txostena egin zuen Euskadiko Tokiko Erakundearen Legeari (apirilaren 7ko 2/2016 Legea) jarraikiz.
113. Txosten luze horrek lau epigrafe ditu. Lehenengoak errepikatu egiten ditu Batzordeak beste lege-aurreproiektu batzuen azterketan izandako eginkizun eta funtzioari buruz egindako gogoetak edo horietarako igorpena egiten du (Euskadiko Ingurumen Administrazioarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Ondarea Kontserbatzearena, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriarena edo Gazteriaren Euskal Legearena). Bigarrenak eskumen-azterketari heltzen dio: proiektatutako arauketak tokiko erakundearen eskumenetan zer neurritan eragiten duen. Hirugarrenak memoria ekonomikoa, txosten juridikoa eta EUDELen alegazioak aztertzen ditu. Laugarrenak etorkizuneko arauak toki-autonomian zer nolako eragina izango duen aztertzen du.
114. Tokiko Gobernuen Batzordeak Euskadiko Tokiko Erakundearen Legearen 90.1 artikuluan oinarritzen du bere esku-hartzea, baina igorritako espedientean ez



dago zehaztuta artikulua horrek batzordearen proposamen guztiak edo batzuk onartu ezean ezarritako prozedurari jarraitu dioten.

115. Badago, ordea, organo sustatzailearen txostena –2020ko uztailearen 8koa, jarrerak hurbiltzeko izapideren bat pentsarazten du, beraz–, zeinaren bidez, arrazoiak eta xehetasunak emanda, Tokiko Gobernuaren Batzordearen txostenean adierazitako gaiari erantzuten dien, baztertu eta onartutako proposamenak eta egindako aldaketak zehazten dituen, eta landutako testu berria gehitzen duen (hirugarren zirriborroa).
116. **2019ko azaroaren 12an, Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) kontseiluak** aurreproiektuari buruzko bere txostena egin zuen, eta bertan, hasieratik, hauxe gogorarazten du: «kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interes ekonomikoen babes eta defentsa ere bada Lehiaren Euskal Agintaritzaren helburuetarik bat, merkatuen funtzionamendu ona gainbegiratzeaz arduratzen baita, enpresen artean egiazko lehia egotea ziurtatuz, eskaintza, prezio eta kalitate hobek eta berrikuntza bultzatzearen».
117. Jarraian, txostenak aurreproiektuaren alderdi hauek nabarmentzen ditu: (I) kolektibo kalteberei –adingabeei, adinekoei, desgaituei– zuzendutako eskubideak; (II) kontsumo-molde ezberdinak eta urrunean eta merkataritza-establezimenduetatik kanpo egindako kontratuak; (III) arauketaren hiru dimentsioko ikuspegia –kontsumitzaileak, enpresak eta administrazioaren esku-hartzea–; eta (IV) gehiegizko arautzeak izan ditzakeen ondorio kaltegarriak, balitekeelako enpresen arteko tentsioa lasaitzea ekartzea kontsumitzaileen kaltetan.
118. Bitartekari jardun ahal duten pertsonen akreditazioa are arreta handiagoz aztertzen du, eta betekizunak ezartzeko dauden mugak gogorarazten ditu, bi lege hauek aipatuta: Kontsumo-arloko Auzien Ebazpen Alternatiboari buruzko Legea (azaroaren 2ko 7/2007 Legea), eta Auzi Zibil eta Merkataritza-ko Bitartekaritza buruzko Legea (uztailearen 6ko 5/2012 Legea). Lehiatzilegatasunaren kontrako jarduerak daudenean horren berri LEAri ematea komenigarria dela arrazoitzen du. Eta, azkenik, lankidetzaren, erakundearen helburuak ahalik eta hoberen betetzea zaintzeko xede beraz, aurreproiektuaren zehapen-araubidearekin lotuta, hauxe gogorarazten du: «lehiaren desleialerako jokabideak jazartzea eta zehatzea, zeinaren araubide orokorra Lehiaren Desleialerari buruzko Legean (urtarrilaren 1eko 3/1991 Legea) garatzen den, eta jokabide horiek lehiaren desitxuratu badute eta interes publikoaren kalterako badira, Lehiaren Defendatzeko Legean (uztailearen 3ko 15/2007 Legea)».



119. **2021eko urriaren 1ean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak** lege-aurreproiektuari buruzko 9/21 irizpena eman zuen, eta haren gogoeta orokorretan balioespen positiboa egiten du, zera ulertuta: «(...) Eusko Jauriaritzak kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babestu eta defendatzearen arloko arauketa berri bat egiteko hartutako legegintza-ekinbidea egokia eta beharrezkoa da, hala berau erreferentziako arau-esparru berrira egokitzeko, nola denboraren iraganak kontsumitzeko eta kontsumoa hautemateko moldeetara ekarri dituen aldaketei erantzuteko, eta EAEko operadoreen eta kontsumo-harremanen subjektuei Europako gure ingurunean nagusi denarekin bat datorren araudia eskaintzeko, merkatuko egoera berriei eta kontsumoko sentsibilitate eta joera berriei egokitzen zaizkien formulazio juridikoak barne hartuta».
120. Ondoren, zenbait iruzkin eta iradokizun egiten ditu, zeinek testuaren azalpen-zatia egokitzea ekarri baitute administrazioaren zaintza- eta kontrol-jardueren araubidea azaltzeko, haien edukia administrazio-prozedura erkideari buruzko araudian eta Europar Batasunak emandakoan testuinguruan jartzeko, bai eta zenbait manuri idazketa berria ematea ere, eta horrek testu berri bat idaztea ekarri du. Organo sustatzaileak ez ditu gainerako gogoetak onartu, eta erabaki horren arrazoia adierazi du kasu bakoitzean.
121. Aurreproiektuak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteen nozioaren barruan jasotzen ditu kontsumitzaileek kooperatiben araudiaren arabera eratutako erakundeak; horregatik, egokia izango zatekeen Kooperatiben Goren Kontseiluaren iritzia ezagutu izan balitz, hasteko aginduak adierazten zuen bezala.
122. Kontseilu hori, Euskadiko Kooperatiben Legean (abenduarien 20ko 11/2019 Legea) ezarrita (165. artikulua), «kooperatibismoa sustatzeko eta haren berri zabaltzeko organo goren gisa sortua, euskal administrazio publiko guztientzako kontsulta- eta aholku-entitate publiko gisa eratzen da kooperatibismoaren inguruko gai guztietan» eta, bere funtzioen artean du: «kooperatibei edo haien elkarrekin zuzenean eragiten dieten lege- edo erregelamendu-xedapenetako proiektuei buruz nahitaez txostenak egitea».
123. 2020ko otsailaren 4an **Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak** txostena egin zuen, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren arabera egina (xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duena).
124. Txosten horrek desadostasun batzuk antzematen ditu Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko erabakian xedatutakoari dagokionez. Lege, dekretu edo



aginduaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartzen ditu erabaki horrek.

125. Jarraian, aurreproiektuaren 44.1, 44.2 eta 49. artikuluei idazketa berria ematea zergatik proposatu duen azaltzen du. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko aurreproiektuaren edukiari dagokionez, abenduaren 22ko 6/2003 Legean ezarritako araubidean egindako aldaketen gaineko balorazio txarra egin zuen. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko uztailaren 1eko 123/2008 Dekretuak –uztailaren 20ko 204/2010 Dekretuak aldatuak– zehaztu zuen araubide hori.
126. Ez dago jasota **Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren** txostena, zeinak hau egin behar baitu: «Erakunde instituzionalen barne-egituraketaren, antolaketaren eta sorreraren arloko sailaren jarduerak, eta entitate horiek ezartzen dituzten xedapen orokorrak aztertzea eta ebaluatzea; halaber, administrazioko sail eta erakundeei aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea antolaketaren eta prozeduren arloan».
127. **Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Funtzio Publikoko Zuzendaritzak** txostena egin du, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak (uztailaren 6ko 6/1989 Legea) 6.1.a) artikuluan ezarrita bezala, zeinak aurreproiektuaren edukietan «funtzio publikoa» gaian zuzenean edo zeharka eragiten dutenak aztertu behar dituen.
128. Aurrekariak eta eduki hori aztertu ondoren, aurreproiektuak aurreikusitako organoei eta giza baliabideei enplegu publikoari buruzko araudiaren zer alderdi aplikatu behar zaizkien gogorarazten ditu txostenak, ohar garrantzitsurik egin gabe.
129. Eragin ekonomikoa balioesteko, adierazi dugun bezala, organo sustatzaileak **memoria ekonomikoa** egin du, zeinean honako hau adierazten duen: «arau-aldaketa berriek ez dute ekarriko, printzipioz, Kontsumobideren baliabideak egokitu behar izatea, eta ez da aurreikusten diru-sarrerak handitzea, ezta aurreproiektua abian jartzeak gastua handitzea ekarriko duenik ere». Etorkizuneko arauaren alderdietatik zein diren garatzeko modukoak azaldu ondoren (informazio-bulegoen sorrera sustatzea, Euskadiko Kontsulta Batzordea, kontsumoaren arloko hezkuntza eta prestakuntzarako eskubidea, Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteen erregistroa, bitartekaritza- eta arbitraje-sistemen sustapena, merkatua kontrolatzeko kanpainen urteko plana eta VII. titulua, zehatzeko ahalari buruzkoa), ondorioztatzen du ez dela aurreikusten lege berria indarrean jartzeak «erakundearen aurrekontuetan dagoeneko jasota ez dauden aurrekontuko gasturik edo diru-



sarrerarik sortzea». Lege berria abian jartzea Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren aurrekontu-programan sartu ahal izango da. Adierazten du, orobat, ez dutela eraginik jasoko «gaur egun indarrean dauden aurrekontu-programek, eta dauden aurrekontu-kredituetan aldaketarik ere ez dela egin behar». Era berean, ez da ikusten proiektatutako araudi berriak eraginik izango duenik Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko gaietan.

130. Arau berria onesteak beste administrazio publiko batzuei ekarriko dien kostuari dagokionez, memoriak gogorarazten du Euskadiko Tokiko Erakundeen Legearen (apirilaren 7ko 2/2016 Legea) 17. artikulua udalerrien eskumen modura jasotzen duela «erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea eta kudeatzea». Adierazten du, orobat, honako hau: «Estatutu berri honek ez du xedetzat prestazio-jarduketa zehatzik agintzea, eta ez du aurrekontu-eraginik, beraz, tokiko organoetan; kontsumitzaileari babes osoa emateko beharrezkoa da, ordea, bi administrazioen arteko lankidetzaren egotea». Aurrerago, zehatzeko ahala erabiltzeari dagokionez, hauxe adierazten du: «eskumenak oro har egozten zaizkie toki-administrazioei, baina ez du alde zuzeneko zegoen araubidea aldatzen, eta ez da beharrezkoa haren ondorioz aurrekontuak aldatzea dakarten baliabide-horniketarako egitea». Azkenik, honako hau ondorioztatzen du: «arauak ez du zuzeneko aurrekontu-eraginik udalentzat eta beste administrazio publiko batzuentzat».
131. **2021eko irailaren 27ko Aurrekontu Zuzendaritzaren txostenak** memoria hori aztertzen du eta zera ondorioztatzen du: «(...) legea aplikatzearen ondorioz izan litezkeen kostu ekonomikoak urtero erantzun beharko zaie Kontsumobideen aurrekontuetan esleituta dituen zuzkidura ekonomikoekin, eta horiek urtero egokituko zaizkie Jaurkitzeko onesten dituen gidalerro ekonomikoekin»; hala, bada, organo sustatzaileak egindako memoria ekonomikoaren aurreikuspenek ez dakartzate, «inola ere, aurrekontu-konpromisoak, alderdi horiek urteko Aurrekontu Orokorretan baino ez baitira biltzen».
132. **2021eko azaroaren 23an, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak (KEB)** txostena egin du dagokion ekonomia- eta araudi-kontrola egiteko, zeina urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginean aurreikusita baitago eta hark derrigortzen baitu.
133. Txostenak honako alderdi hauei buruzko gogoetak egiten ditu: antolamendu-alderdiak, dirulaguntza-araubidea, kontratazio-araubidea –eta Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordearen txostena beharrezkotzat jotzen du berau aztertzeko– eta zerga-bilketako prozedura, Finantza Politikako Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoaren txostena eskuratuta hura ebaluatzeko –osorik jaso du txosten hori, bere txostenaren atal bat gehiago bezala–.



134. Jarraian, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak EAEko Administrazioaren aurrekontu-eraginaren azterketan jarri du arreta. Gastu-aurrekontuen eragina baloratzean, eragin hori izan dezaketen etorkizuneko legearen edukiak eta memoria ekonomikoak horien gainean egindako ebaluazioa zehatz-mehatz aztertu ondoren, hauxe ondorioztatzen du: «(...) arau berrian aurreikusitako neurriak finantzatzeko bideak zehaztu, balioetsi eta adierazi behar ditu, hura indarrean jartzen denerako horiek jada egiten ari diren edo horiek estaltzeko dauden baliabideak aski direla ondorioztatzen den alde batera utzita; izan ere, gastua identifikatu eta zenbatetsi ondoren baino ez baita egongo alderatzeko elementu egokirik proposatutako legean aurreikusitako neurrien ondorioz gastu gehigarririk ez dagoela irizteko, eta, ildo horretatik, memoriaren edukiak mugagabetasun- eta zehaztugabetasun-maila handia du proposatutako legearen egiazko irismen ekonomikoak ondorioztatu ahal izateko». Diru-sarreraren aurrekontuei dagokienez, Aurrekontu Zuzendaritzak aipatu dugun txostenean esandakora igortzen du, eta beste administrazioetan, partikularrengan eta ekonomian oro har duen eragin ekonomikoari dagokionez, legean aurreikusitako neurriak gauzatzeak hala tokiko erakundeentzat nola beste administrazio batzuentzat eta herritarrentzat izango litzuzkeen ondorio ekonomikoen eta finantzarioen neurketa osatu beharra dagoela adierazten du, orobat.
135. Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenaren ustez memoria ekonomikoa osatu behar da adierazten dituen alderdiei dagokienez. Igorritako espedientean ez dago ekimenaren ikuspegi ekonomikoaren azterketa Kontrol Ekonomikoko Bulegoak adierazitako moduan osatzen duen agiririk; hori dela eta, aurreproiektua Gobernu Kontseiluari onetsi dezan aurkeztu aurretik, komeni da berau –zalantzarik gabe sail sustatzailean egongo dena– espedientera gehitzea eta azalpenaren oinarritzko lerroak azken memorian jasotzea.
136. Azken gogoeta modura, egiteko prozeduraren gaineko balioespina, oro har, ona dela adierazi behar dugu, XOEPLaren jarraibideei egokitu baitzaie.
137. Hala ere, espedienteak ematen duen justifikazioari dagokionez, komeni izango litzateke proposatutako arauketa hautatzeko kontuan hartutako errealitateari buruzkoa zabaltzea. Egia da arauketa horren zati handi baten oinarria 2003. urtetik aurrera izandako arau-aldaketei egokitzea dela, baina badira beste eduki batzuk –bereziki, hizkuntza-araubidea– eta ona izango litzateke eduki horiei laguntzea abiapuntuko egoera ebaluatuz –nola funtzionatu duen orain arte indarrean zegoen arauketak, zer neurritan lortu diren hura onestea eragin zuten helburuak, izandako ondorioak (onak eta txarrak), etab.–, orain zer helburu lortu nahi diren azalduz eta horiek lortzeko gehitutako arau-irtenbideak egokituz.



138. Hori egin ahal izango da XOEPLaren 10.2 artikulua aipatzen duen azken memoria egitean.
139. Era berean, ekimenaren eragin ekonomikoaren balioespena adierazitako ildotik egokitu beharko litzateke, eta hori egin ahal izango da XOEPLaren 10.3 artikulua eskatzen duen memoria ekonomikoa idaztean, aurreproiektuaren eragin ekonomikoari buruzko gogoeta jasotzeko.

EKIMENAREN KONSTITUZIO- ETA ESTATUTU-ESPARRUA

140. Kontsumitzaileak defendatzea politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidari gisa eratzen du Espainiako Konstituzioaren 51. artikulua, eta botere publikoek berau bermatu behar dute.
141. 80/2002 Irizpenean adierazi genuen bezala, ekimena konstituzio-manu horri lotzen zaio, botere publikoei agintzen baitie kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsa bermatzea, eta babestea, prozedura efikazen bitartez, segurtasuna, osasuna eta haien interes ekonomiko zilegiak (1. apartatua), bai eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen informazioa eta hezkuntza bultzatzea, eta haien erakundeak sustatzea, eta horiei entzutea dagozkien arazoetan, legeak xedatzen duen moduan (2. apartatua).
142. EAE da Espainiako Konstituzioaren 51. artikulua aginduak ukitutako botere publikoetako bat, eta aurreproiektuak berau betetzen duela pentsatu behar da.
143. Eskumenei dagokienez, EAeko Autonomia Estatutuak 10.28 artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dion eskumen eksklusiboaren erabilera zilegia da aurreproiektua: «kontsumitzaile eta erabiltzaileak babestea, aurreko paragrafoko mugapen berarekin»; hau da, «barne-merkataritza, baina prezio-politika orokorrari, Estatuko lurraldean ondasunen joan-etorri askeari eta lehiaren babeserako legeriari kalterik egin gabe».
144. Konstituzio-doktrinan behin baino gehiagotan esan bezala, nahiz eta Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua «kontsumo»aren gaiaren aipamenik jasotzen ez duen, hori diziplina anitzeko eremutzat jotzeak dakar ezen, eskumenak mugatzeko orduan, Konstituzio Auzitegiak oso goiz adierazi zuen bezala, honako hau kontuan hartu behar dela: «kontsumitzailearen defentsa “(...) adigai zabal-zabala da eta ezaugarri lausokoa, eta batzuetan, helburutzat kontsumitzailearen defentsa izan dezakeela uler daitekeen arau bat kalifikatzeko eragiketa zaila izanagatik ere, eragiketa horrek ez luke problema ebartziko, eskumenak definitzeko erregeletako bat baino gehiagoren barruan gerta litekeelako araua” (1. oinarri juridikoa), eta horrek esan nahi du, beste hitz batzuetan, gai honek, ezer baino lehen, eduki diziplinaniztuna duela ezaugarri, eta hainbat materia biltzen dituela» –besteak beste, 71/1982, 15/1989 epaiak (KAE)–.



145. «Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsa eta babesaren gaia izango da, azkenik, Konstituzio Auzitegiak adierazi zuen bezala, «Estatua osatzen duten botere publikoek, norik bere eskumen-bilduman oinarrituta, helburu horretara bideratzen dituzten arau-jarduketan baturaren emaitza» (88/1986 KAE, uztailaren 1ekoa).
146. Ideia horri berari heltzen zaio ekainaren 28ko 31/2010 KAE garrantzitsuan – Kataluniako Estatutua aztertu zuen–, zeinaren arabera, kontsumitzailearen defentsaren alor horretan, eskumeneren aldetik, bat egiten dute gaikuntza-titulu desberdinek, eta horrek eskumenak egokitzeko zailtasun handiko eragiketa bat eskatzen du maiz, «funtsezko helburu nagusia, auzitan dagoen xedapena bideratuta dagoen hori» zein den ezartzeko (besteak beste, 54/2018 KAE, maiatzaren 24koa).
147. Kontsumoaren gaiari buruzko azken erabakian (72/2021 KAE, martxoaren 18koa) Konstituzio Auzitegiak bere doktrina honela laburbildu zuen:
- Doktrina finkatua da kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesaren arloko eskumeneren erabilera autonomikoak Estatuaren eskumena diren beste gai batzuei buruzko arauketa izan behar duela kontuan. Konstituzio-doktrina horren arabera (guztien erakusgarri, 26/2012 KAE, martxoaren 1ekoa (KAB 2012, 26), 3. OJ, eta 102/2018 KAE, urriaren 4koa (KAB 2018, 102), 3. OJ), kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsaren arloko eskumen autonomikoak ezinbestean egokitu behar zaizkio Estatuak berezko eskumenak erabiliz ezarritako diziplinari; hau da, autonomia-erkidegoek beren gain hartutako eskumenerik Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluan zerrendatutako Estatuaren eskumeneren erabilera zilegia errespetatu behar dute. Konstituzio Auzitegiaren 31/2010 epaiak, ekainaren 28koak –(KAB 2010, 31), 70. OJ–, hauxe gogorazten du: Kontsumitzailearen defentsaren alor horretan, eskumeneren aldetik, bat egiten dute gaikuntza-titulu desberdinek, eta estatutuak autonomia-erkidegoari eskumen eksklusiboa emateak ezin die eragin Konstituzioak Estatuari gordetako eskumeneri (EKaren 149.1 artikulua), zeinak materialki dagokionean proiektatuko baitira (15/89 KAE, urtarrilaren 26koa (KAB 1989, 15), 1. OJ), estatutuak Estatuaren eskumenak gordetzeko klausularik sartu beharrik gabe ere (59. eta 64. oinarri juridikoak).
148. Egia da nagusitzen den titulua hautatzeko eragiketa, neurri handi batean, arlo zibileko, merkataritza-arloko eta prozesu-arloko eskumen-eremuekin lotuta gertatzen dela, eta hori ez da beti erraza.



149. Esparru horietan, eskumen hau izan ezik: «Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurralde historikoetako foru-zuzenbide zibil eta berezia, dela idatzia ala ohiturazkoa, gorde, aldatu nahiz garatzea, eta indar izango duen lurraldea finkatzea» (EAEAEaren 10.5 artikulua) eta honi buruzkoa alde batera utzita: «Euskal Autonomia Erkidegoak emandako zuzenbidearen berezitasunen eta bere antolaketa bereziaren haritik datozen prozesu-arauak...» (EAEAEaren 10.6 artikulua), konstituzio-jurisprudentziak etenik gabeko ildoari jarraitzen dio Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 eta 149.1.8. artikuluetako gaiak Estatuko legegilearen jardun-esparru eksklusibotzat hartzeari dagokionez.
150. Horrelaxe aitortzen du, adibidez, Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 13ko 132/2019 epaiak: «kontsumo-zuzenbidea diziplina anitzeko gaia da, eta nolabaiteko autonomia du, ez baita guztiz sartzen edo egokitzen Zuzenbide zibilean, ez merkataritzakoan ere, eta Zuzenbide pribatuan ere ez da guztiz egokitzen; gogora dezagun, izan ere, kontsumitzailea babesteko agindua botere publiko guztiei zuzenduta dagoela. Ildo horretatik, kontsumo-zuzenbideak *per se* osatzen du arauen, printzipioen, erakundeen eta tresna juridikoen sistema oso bat, eta haren helburua zera da: kontsumitzaileari merkatuan jarrera orekatu bat bermatzea enpresaburuaren aurrean ondasunen eta zerbitzuen azken hartzailea den zuzenbide- eta negozio-harreman guztietan. Hala ere, kontsumo-zuzenbideak gaur egun bere autonomia lortu izanak ez du esan nahi kontsumitzailearen estatutua osatzen duten arauak izaera zibilik ez dutenik».
151. Aurreproiektuari nagusiki eusten dion EAEko eskumenaren profilak halakoak izanik, ez zaio baliagarri irizpen honi ekimenak ukitu ahal dituen eskumen-titulu guzti-guztiak, abstraktuan, jorratzea. Hobe da –azalpen argiagoa ematen baitu–, ekimenaren azterketak hala eskatzen duen tokian, eskumen-eremuak aztertzea.
152. Horregatik, orain aski da kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutua ezarri nahi dugun honetan esku har dezaketen eskumen-esleipenak aurretiaz eta azaletik identifikatzea.
153. Berez, eskumen sorta autonomikoaren barruan, ekimenak, kontsumoari buruzko espezifikoz gain –hau da, aurretik aipatu dugun EAEAEaren 10.28 artikulua–, arlo hauetako eskumena erabiltzea dakar: hizkuntzaren arloko eskumena (EKaren 3. artikulua, EAEAEaren 6. artikuluekin lotuta); EAEko erakundeen autoantolaketa arloko eskumena (EAEAEaren 10.2 artikulua); elkarteen arloko eskumena (EAEAEaren 10.13 artikulua); sustapen, garapen eta plangintza ekonomikoaren arloko eskumena (EAEAEaren 10.25 artikulua); osasunaren arloko eskumena (EAEAEaren 16. artikulua); kontratuen arloko eskumena ([EAEAEaren 11.1.b artikulua]); eta baliteke oinarritzea, halaber, artikulua hauetako eskumenetan: EAEAEaren 10.5 artikulukoetan (foru-zuzenbide zibil eta berezia)



eta 10. artikulukoetan (Euskal Autonomia Erkidegoak emandako zuzenbidearen berezitasunen eta bere antolaketa bereziaren haritik datozen prozesu-arauak...).

154. Estatuaren tituluei dagokienez, honako hauetarako eskumena ematen diotenak aipatu behar dira: «Konstituzioko eskubideak baliatzean eta betebeharrak betetzean espainiar guztiak berdinak izango direla bermatzeko oinarritzko baldintzak arautzea» (EKaren 149.1.1 artikulua); merkataritza- eta prozesu-legeria (EKaren 149.1.6 artikulua); legeria zibila (EKaren 149.1.8 artikulua); Ekonomia-jarduera oro har planifikatzeko oinarriak eta koordinazioa (EKaren 149.1.13 artikulua), eta «Administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak» eta «(...) administrazio-prozedura erkidea, alde batera utzi gabe autonomia-erkidegoen antolamendu propioak dakartzan berezitasunak...» (EKaren 149.1.18).

ESTATUKO ETA EUROPAR BATASUNeko ARAU-ESPARRUA

155. Aurreproiektua bultzatzen duten arrazoietakoa bat EAEko indarreko araudia abenduaren 22ko 6/2003 Legea onetsi zenetik izandako arau-aldaketetara egokitzea da. Aldaketa horietako askok, adierazi dugun bezala, Europar Batasuneko arauetan dute azalpena (zuzentarauak eta erregelamenduak).
156. Konstituzio Auzitegiaren doktrina errepikatuaren arabera, Europar Batasunaren Zuzenbidea ez da berez konstituzionaltasun-azterketaren zuzeneko kanon edo parametroa (beste askoren artean, KAren 49/1988 Epaia, martxoaren 22koa; 28/1991 Epaia, otsailaren 14koa; 254/1993 Epaia, uztailaren 20koa; 12/2008 Epaia, urtarrilaren 29koa, eta 140/2018 Epaia, abenduaren 20koa); izan ere, eskumenak mugatzeko jarraibide gisa balio behar duten arauak barneko zuzenbidean Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean eskumenak banatzeko ordena ezartzen dutenak baino ez dira [guztien erakusgarri, KAren 87/2019 Epaia, ekainaren 20koa (KAB 2019, 87), 6.a OJ].
157. Hala ere, «(...) ez dugu ahaztu behar Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean eskumenak banatzeko sistemaren interpretazioa bera ere ez dela hutsean gertatzen» (KAren 102/1995 Epaia, ekainaren 26koa (KAB 1995, 102), 5. OJ). Horregatik, erakunde bat Europar Batasuneko zuzenbidearen bidez nola eratu den kontuan hartzea baliagarria ez ezik nahitaezkoa ere izan daiteke, baldin eta erakunde horri eskumen-banaketako Estatu barneko eskema behar bezala aplikatuko bazaio (besteak beste, KAren 13/1998 Epaia, ekainaren 28koa).
158. Europar Batasunaren esparruan kontsumitzaileen babesak izandako bilakaera labur-labur aztertuz gero, Erromako Trataturtik (EEET), zeinean eremu hori jasota ez zegoen, Europako Ekonomia Erkidegoa eratzekeko Tratatura gehitutako 129 A



artikulua izan zen kontsumitzaileen arloko Erkidegoko politika bat ahalbidetu zuen lehen esparru juridikoa, hasiera batean zenbait liburu berdetan zehaztuta (finantza-zerbitzuak, kontsumitzaileen justiziarako sarbidea, elikagaien legeria eta kontsumoko ondasunen salmenta eta bermeak) eta, geroago, askotariko ekimenean (kalte-ordainei buruzko demandak, urrutitik negoziatutako kontratuak, publizitate konparatiboa eta mugaz gaindiko transferentziak).

159. Amsterdamgo Tratatuak 153. artikulua (129 A artikulua ohia) erantsi zuen Europako Ekonomia Erkidegoa eratzeko Tratatura. Artikulu horrek behar diren ekintzak hartzea jasotzen du kontsumitzaileen osasuna, segurtasuna eta interes ekonomikoak babesteko, bai eta beren interesak zaintzeko duten informaziorako, hezkuntzarako eta antolamendurako eskubidea sustatzeko, eta horren azken helburua haiei babes-maila handia bermatzea da. Kontsumitzaileen interesak kontuan hartu behar dira, halaber, Erkidegoko gainerako politikak zehaztu eta betearaztean.
160. Tratatuaren manu horrek askotariko sektore edo gaietarako zuzentarau ugari babestu du (publizitatea, merkataritza-establezimenduetatik kanpoko kontratu negoziatuak, kontsumorako kreditua, irati- eta telebista-difusioko jarduerak, turismo-bidaiak, pertsonen erabiltzeko sendagaien publizitatea, kontsumitzaileekiko kontratuetako abusuzko klausulak, higiezinak denbora partekatutako araubidean erabiltzea, urruneko kontratuak, kontsumo-ondasunen salmenta eta bermea, eta merkataritza elektronikoa, horiek guztiak kontsumitzaileen esparruan).
161. Azken urteotan, Europako Erkidegoak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsaren arloan egindako ekintza areagotu egin da izugarri, eta nekez bereizten dira orain Estatuko araudiaren bilakaera eta Europako arau-ekoizpena.
162. Arauen arloan, Europako Erkidegoaren asmoak ekimen ugari gauzatu dira –eta kontsumo-harreman orokorren funtsezko alderdiak aldatu dituzte horiek– bai eta sektore jakin batzuetan landutakoetan ere.
163. Gure arreta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsa eta babesa arautzeak gure barne-zuzenbidean nola eragin duen ikustean jarri behar dugu, halere.

I 1/2007 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA, AZAROAREN 16KOA, KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN DEFENTSAKOEI BURUZKO LEGE OROKORREAREN ETA BESTE LEGE OSAGARRI BATZUEN TESTU BATEGINA ONESTEN DUENA (KEDLOTB)

164. Proiektatutako ekimenean eragiten duen esparru juridikoaren azterketan, KEDLOTBa da parametro nagusia.



165. Arau horren azken xedapenetako lehenak honako hau adierazten du berau ematean erabilitako eskumen-tituluei buruz:

1. Lehen liburua I. tituluko 1. kapituluak, haren aplikazio-eremua definitzekoa, eta 10. artikulua oinarrizkoak dira xedapen honen 2. apartatuko manuekin lotuta, eta Estatuak 3. apartatuko xedapenekin lotuta dituen eskumen eskusiboak erabiliz ematen dira.

2. 8., 9., 17.1 eta 17.3, 18., 23.1 eta 23.3, 25. eta 26. artikulua; lehen liburuko I. tituluko III. eta V. kapituluak eta lehen liburuko IV. titulua oinarrizkoak dira, Espainiako Konstituzioaren 149.1.1, 149.1.13, 149.1.16 eta 149.1.18 artikuluetan Estatuari dagozkion eskumenen babesean ematen baitira.

3. Lehen liburuko 24. artikulua eta V. titulua, bigarren, hirugarren eta laugarren liburua, xedapen iragankorrek eta azken xedapenak merkataritza- eta prozesu-legeriaren eta legeria zibilaren arloan Estatuari dagozkion eskumen eskusiboetan oinarrituta ematen dira, Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 eta 149.1.8 artikuluen arabera.

4. Lehen liburuko II. tituluaren gainerako manua Estatuaren eskumeneko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteei aplikatzeko izango dira.

166. Oinarrizko alderdien identifikazioak, bai eta izaera hori ematen zaien edo zuzenean aplikatzekoak diren askotariko manua babesten dituzten tituluak ere, konstituzio-doktrinak ezarritako arauak betetzen ez badituzte ere, aurreproiektuaren azterketa zuzendu behar duten hasierako bi ondorio ateratzen ditugu transkribatutako xedapenetik.

167. Oinarrizko eduki guztiak KEDLOTBaren lehen liburuan daude, eta horiek izan behar ditu kontuan legegile autonomikoak EAEAEko 10.28 artikulua arabera garatzeko eskumena erabiltzean. Honako alderdi hauei buruzkoak dira:

- Aplikazio-eremua mugatzea.
- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen oinarrizko eskubideen zerrenda (8. artikulua).
- Erabilera erkideko ondasunen eta zerbitzuen definizioa (9. artikulua).



- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzko edukia: segurtasun-betebeharra (11. artikulua); ondasunen arriskuei buruzko informazioa (12. artikulua); osasuna eta segurtasuna babesteko betebeharrak espezifikoa (13. artikulua); ondasunen eta zerbitzuen erregelamenduak (14. artikulua); administrazio-jarduketak (15. artikulua), eta ezohiko neurriak (16. artikulua).
 - Botere publikoek kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hezkuntza eta prestakuntza sustatzeko duten betebeharra, bai eta egiazko informazioa eduki dezaten bermatzea, kontsumitzaile kalteberen kopuru handiena duten sektoreetan arreta berezia jarrita (17.1 eta 17.3 artikulua).
 - Ondasunen eta zerbitzuen etiketei eta aurkezpenari buruzko gutxieneko arauak (18. artikulua).
 - Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes ekonomiko legitimoak babesteko printzipio orokorra, merkataritza-jardunbideetan arreta berezia jarrita (19. artikulua).
 - Ondasunen eta zerbitzuen eskaintzako informazioaren gutxieneko edukia (20. artikulua).
 - Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen esku merkataritza-praktika desleialei dagokienez dauden neurri zuzentzaileak (20. artikulua bis).
 - Egiaztatzeko araubidea eta bezeroaren arretarako zerbitzuak (21. artikulua).
 - «Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkartea»ren definizioa eta haien jardura independentzia-printzipioari lotzea (23.1 eta 23.3 artikulua), izenaren erabilerari buruzko arauak (25. artikulua) eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkartearen izaera aplikagarri zaizkien debekuak ez jakiteagatik galtzeko kasuak (26. artikulua).
 - Zehapen-araubidea (46. artikulutik 52. artikulura bitartean).
168. Estatuak merkataritza- eta prozesu-legeriaren eta legeria zibilaren arloan dituen eskumen eskusiboak erabilia emanda daude, berriz, (Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 eta 149.1.8 artikuluen arabera) kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarreak legitimatzeko arauak (24. artikulua), prozedura judizialak eta judizioz kanpokoak (53. artikulutik 58. artikulura bitartean), Bigarren liburua (59. artikulutik 127 bis artikulura bitartean) –zeinak kontratuak eta bermeak



diziplinatzen dituen-, Hirugarren liburua (133. artikulutik 149. artikulura bitartean) –zeinak ondasun eta zerbitzu akastunengatiko erantzukizun zibileko araubidea ezartzen duen-, eta Laugarren liburua (150. artikulutik 170. artikulura bitartean) –bidaia konbinatuei eta lotutako bidaia-zerbitzuei buruzkoa–.

169. Printzipioz, KEDLOTBaren argitan, aurreproiektuaren balorazioa positiboa da, artikuluen gaineko azterketan adierazitako kontu zehatzak alde batera utzi gabe.
170. Nolanahi ere, inguruabar batek balorazio hori zehaztera garamatza.
171. Hori azaltzeko, lehenik, apirilaren 27ko 7/2021 Errege Lege Dekretuaren azalpen atalera joko dugu (Europar Batasunaren honako arlo hauetako zuzentzarauen transposizioa egitekoa: lehia, kapitalak zurtzearen prebentzioa, kreditu-erakundeak, telekomunikazioak, tributu-neurriak, ingurumeneko kalteen prebentzioa eta konponketa, estatuz haraindiko zerbitzuak ematen dituzten langileen lekualdaketa eta kontsumitzaileen defentsa) (aurrerantzean, 7/2021 Errege Lege Dekretua, apirilaren 27koa), eta KEDLOTBak izan dituen aldaketak ikus ditzakegu bertan:

«KEDLOTBak testu bakar batean bateratu zituen Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako uztailaren 19ko 26/1984 Lege Orokorra eta bertan araututako alderdietan eragiten zuten kontsumitzaile eta erabiltzaileen babeserako emandako Erkidegoko zuzentzarauen transposizio-arauak; hori guztia, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa hobetzeko abenduaren 29ko 44/2006 Legearen azken xedapenetako bosgarrenean jasotako aurreikuspenari jarraikiz.

Testu hori onetsi ondoren, KEDLOTBaren ondoz ondoko aldaketak izan dira, batez ere Europar Batasunaren lege-garapen berriak gure antolamenduan gehitzeko. Hori horrela, 21., 49.1 eta 60.2 artikulua abenduaren 22ko 25/2009 Legearen bidez aldatu ziren (2009, 2556 LBK), zeinaren bidez zenbait lege aldatzen baitira, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzko legera egokitzeko; 8., 18., 19., 20., 47.3, 49.1 eta 123. artikulua, abenduaren 30eko 29/2009 Legearen bidez (2009, 2633 LBK), zeinaren bidez lehia desleialaren eta publizitatearen lege-araubidea aldatzen baita kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa hobetzeko; eta manu jakin batzuk gehitu ziren; IV. titulua ezabatu zen eta V.ari beste zenbaki bat eman zitzaion, martxoaren 27ko 3/2014 Legearen bidez (2014, 466, 677 LBK), zeinaren bidez kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko Lege orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina aldatzen baita (azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege



Dekretuak onetsi zuen hori). Ondoren, honako hauek aldatu ziren: 19.2, 141.a) eta 163. artikulua, Borondatezko Jurisdikzioaren uztailaren 2ko 15/2015 Legearen bidez (2015, 1016, 1354 LBK); 66 bis.3 eta 107.1 artikulua, maiatzaren 26ko 9/2017 Errege Lege Dekretuaren bidez (2017, 684, 754 LBK), zeinaren bidez Europar Batasunaren zuzentarauen transposizioa egiten baita finantza- eta merkataritza-eremuan eta eremu sanitarioan, eta langileen lekualdaketari buruzkoa; 21.3 eta 21.4 artikulua, azaroaren 2ko 7/2017 Legearen bidez (2017, 1277 LBK), zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 21eko 2013/11/EB Zuzentaraua (LCEur 2013, 834), kontsumo-arloko auzien ebazpen alternatiboari buruzkoa, txertatzen duena; 93.g artikulua eta laugarren liburua, eranskina I gisa zerrendatu zen, eta II. eta III. eranskinak gehitu ziren, abenduaren 21eko 23/2018 Errege Lege Dekretuaren bidez (2018, 1739 LBK), zeinaren bidez marken, trenbideko garraioaren eta bidaiak konbinatuen eta lotutako bidaiak-zerbitzuen arloko zuzentarauen transposizioa egiten den. Berriki aldatu dira, orobat, honako hauek: 83. artikulua, Higiezin Kredituko Kontratuak arautzen dituen martxoaren 15eko 5/2019 Legearen bidez; 21.2 eta 49.1 artikulua, abenduaren 22ko 37/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez (2020, 2097 LBK), zeinak Etxebizitzaren esparruan eta garraioen arloan kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko premiazko neurriak jasotzen dituen; eta 3. artikulua, 8. artikulua, 17. artikulutik 20.era artekoak, 43.a eta 60.a eta azken xedapenetako lehenengoa, Kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoeretan kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko urtarrilaren 19ko 1/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez (2021, 100 LBK)».

172. KEDLOTBaren aipatutako erreforma horiek kontuan hartu dira igorritako aurreproiektua egiteko orduan.
173. Ondorioa oso bestelakoa da honako hauen bitartez egindako KEDLOTBaren azken bi erreformei dagokienez: (I) 7/2021 Errege Lege Dekretua, apirilaren 27koa –honetatik atera dugu transkribatutako xedapen-atala– eta (II) 24/2021 Errege Lege Dekretua, azaroaren 2koa, honako gai hauetan Europar Batasunaren zuzentarauen transposizioa egitekoa: bonu bermatuak; inbertsio kolektiboko erakundeen mugaz gaindiko banaketa; datu irekiak eta sektore publikoaren informazioa berrerabiltzea; egile-eskubideak eta lineako transmisio jakin batzuei eta irratiko eta telebistako saioen emanaldiei aplikatzekoak diren antzeko eskubideak erabiltzea; kontsumitzaileen inportazio eta hornidura jakin



batzuetarako eta errepideko garraio-ibilgailu garbi eta energetikoki eraginkorrak sustatzeko aldi baterako salbuespenak (aurrerantzean, 24/2021 Errege Lege Dekretua, azaroaren 2koa).

174. Espedientearen azken memorian bi errege lege-dekretuak aipatzen dira, baina berariaz adierazten da aurreproiektuaren hirugarren zirriborroa idatzi aurretik Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena aztertu zela, bai eta Estatuko lege-aldaketak ere, «batez ere 37/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 22koa, Etxebizitzaren esparruan eta garraioen arloan kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko premiazko neurriei buruzkoa, eta 1/2021 Errege Lege Dekretua, urtarrilaren 19koa, Kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoeretan kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko». Memoriak, jarraian, adierazten du azken zirriborroa –Batzorde honi bidalitakoa– honako hauen batura dela: aurreko zirriborroak eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostenaren proposamenen azterketa.
175. Egia da (I) 7/2021 Errege Lege Dekretua, apirilaren 27koa, 2022ko urtarrilaren 1ean indarrean jarri dela, eta (II) 24/2021 Errege Lege Dekretua, azaroaren 2koa, 2022ko maiatzaren 28an jarriko dela indarrean (107.5 artikulua aldaketa, 119 ter artikulua 5. apartatuarekin lotua, izan ezik, 2022ko urtarrilaren 1ean jarri baita indarrean–.
176. Hala ere, Batzordearen kontsulta-eginkizunaren zentzua eta helburua osoki ulertzeak, Legebiltzarrean lege-proiektuak izapidetzeko ohiko epeek eta, batez ere, etorkizuneko arauaren helburu nagusietako bat betetzeak –hau da, oinarrizko legerian eta Europako araudian izandako aldaketei egokitutako autonomia-araudi oso bat edukitzea– eragozten dute gure azterketan KEDLOTBaren aldaketa horiek kontuan ez hartzea. Hori egin ezean, etorkizuneko legea hilda sortuko zen, haren edukiaren zati handi bat Europako eta Estatuko araudiari egokitu gabe.
177. Horrenbestez, ekimenaz egiten dugun balioespena 2022ko maiatzaren 28an indarrean jarriko den KEDLOTBaren argitan egiten da.
178. Komeni da bi arau aldarazleen lerro nagusiak azaltzea.

II 7/2021 ERREGE LEGE DEKRETUA, APIRILAREN 27KOA

179. Arau horren hamaseigarren artikulua KEDLOTBa aldatzen du honako hauen transposizioa egiteko: 2019/770 Zuzentaraua (EB) edo Zerbitzu digitalen zuzentaraua –2019/770 Zuzentaraua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2019ko maiatzaren 20koa, eduki eta zerbitzu digitalen hornidura-kontratuen alderdi jakin batzuei buruzkoa– eta 2019/771 Zuzentaraua



(EB) edo Ondasunen salerosketari buruzkoa –2019/771 Zuzentaraua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2019ko maiatzaren 20koa, ondasunen salerosketa-kontratuen alderdi jakin batzuei buruzkoa, zeinaren bidez 2017/2394 Erregelamendua (EE) eta 2009/22/EE aldatzen baitira eta 1999/44/EE Zuzentaraua indargabetzen baita–.

180. Bi zuzentarau horiek lotuta daude, era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999/44/EE Zuzentaruarekin, 1999koko maiatzaren 25ekoarekin, kontsumo-ondasunen salmentari eta bermeei buruzko zenbait alderdiri buruzkoarekin.
181. KEDLOTBaren erreforma ondasunen salerosketako eta eduki edo zerbitzu digitalen hornidurako kontratuetan oinarritzen da, bereziki kontratuei eta haien bermeei dagokienean, bai eta saldu osteko zerbitzuetan ere, bereziki enpresaburuaren erantzukizunari eta kontsumitzailearen eta erabiltzailearen eskubideei dagokienean; hori horrela, eremu horretan kapitulu berriak gehitzen ditu honako hauek arautzeko: kontsumitzaileak eta erabiltzaileak eskubideak erabiltzea; eduki edo zerbitzu digitalen aldaketa, eta merkataritza-bermeak eta saldu osteko zerbitzuak.
182. KEDLOTBaren 114. artikulua berriarekin, doktrinak ondasunen salerosketako kontratuak eta eduki edo zerbitzu digitalen hornidurako kontratuak bereizten ditu, eta horiek, berriz, hiru kategoria hauetan sailkatzen dira: eduki edo zerbitzu digitalen hornidurako oinarritzko kontratua, eduki edo zerbitzu digitalen hornidurako kontratu osagarria, eta eduki edo zerbitzu digitalak trukatzeko kontratua, hau da, enpresaburu batek horiek hornitzen ditu edo hornitzea hitzematen du kontsumitzaileak edo erabiltzaileak ematen dituen edo ematea hitzematen duen datu pertsonalen truke.
183. Esparru horretan, erreformak (I) eduki edo zerbitzu digitalak hornitzeko kontratuen araubide berria ezartzen du –«eduki edo zerbitzu digitalak aldatzea» eta «kontratua eduki edo zerbitzu digitalak aldatu direlako indargabetzea»–; (II) ondasunen eta eduki edo zerbitzu digitalen adostasunaren printzipio zuzentzailea ingurune berrira egokitzen du –betekizun subjektiboak (deskribapena, funtzionalitatea, gaitasun subjektiboa, osotasun subjektiboa, etab.) eta objektiboak (gaitasun objektiboa, erreferentziagarritasuna, osotasun objektiboa, etab.) finkatzen ditu–; (III) enpresaburuaren erantzukizunari eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideei buruzko berariazko arauak ezartzen ditu ondasunekiko eta eduki edo zerbitzu digitalekiko adostasunik ezean; (IV) adostasuna lortzeko neurri zuzentzaile berriak eratzten ditu, bai eta ondasuna konpondu edo ordeztzeko, prezioa murrizteko eta kontratua indargabetzeko arau bereziak ere; eta (V)



prozesuko eta funtsezko arau berriak gehitzen ditu kontsumitzaileek eta erabiltzaileek beren eskubideak erabil ditzaten eduki edo zerbitzu digitalak edo elementu digitalak dituzten ondasunak hornitzeko kontratuei dagokienez.

184. Aldaketak eragina du KEDLOTBaren 59. artikuluan, 4. apartatua gehitzen baitio Bigarren liburuaren aplikazio-eremua zehazteko; hala bada, kontratuak barnean hartuko ditu, orobat, baldin eta, horien bitartez «enpresaburuak kontsumitzaile edo erabiltzaileari eduki edo zerbitzu digitalak hornitzen badizkio edo horiek hornitzeko konpromisoa hartzen badu eta hark, berriz, datu pertsonalak ematen baditu edo horiek emateko konpromisoa hartzen badu, betiere kontsumitzaileak edo erabiltzaileak emandako datu pertsonalak ez baditu enpresaburuak tratatzen salerosketa- edo zerbitzu-kontratu baten xede diren eduki edo zerbitzu digitalak hornitzeko edo enpresaburuak lotuta dagoen legezko betekizunak betetzea ahalbidetzeko, eta enpresaburuak ez baditu datu horiek beste xede baterako tratatzen».
185. Beste modu batean idatzi da 59 bis artikulua, eta horrela legezko definizio berriak gehitzen dira honako hauei buruz: «elementu digitalak dituzten ondasunak», «kontsumitzailearen eta erabiltzailearen zehaztapenei jarraikiz egindako ondasunak», «bateragarritasuna», «eduki digitala», «ingurune digitala», «funtzionagarritasuna», «integrazioa», «elkarreragingarritasuna» edo «zerbitzu digitala», eta zehaztu egiten dira, alderdi digitala jasotzeko, «zerbitzu-kontratuaren» definizioak.
186. «Ondasunak» nozioa zehazten da honako hauen ondorioetarako: Bigarren liburua (kontratuak eta bermeak), I. titulua (kontratuak kontsumitzaile eta erabiltzaileekin), I. kapitulua (xedapen orokorrak), 66 bis eta 66 ter artikulua, eta III. titulua (urrunean egindako kontratuak eta merkataritza-establezimendutik kanpo egindako kontratuak) eta IV. titulua (bermeak eta saldu osteko zerbitzuak).
187. 62. artikuluari 5. apartatua gehitzen zaio enpresarekin hartutako iraunkortasun-konpromisoa betetzen ez duten kasuetarako: aplikatzen den zigorra «hartutako iraunkortasun-konpromisotik bete gabeko egun kopuruaren proportzionala» izan beharko da.
188. Beste modu batean idatzi da euskarri digitalean ematen ez diren ondasun-emateei eta eduki edo zerbitzu digitalen hornidurari buruzko 66 bis artikulua. Ezabatu egiten da 74. artikulua 4. apartatua eta Bigarren liburuaren IV. titulua (bermeak eta saldu osteko zerbitzuak) aldatzen da zerbitzu digitalen araubidean jasotzeko.
189. Azkenik, beste modu batean idatzi da 153.1.a) 8. artikulua, bidaia mugikortasun urriko pertsonentzako modukoa den jakinarazteko betebeharra gehitzeko.



190. Gure ondorioetarako, aldaketak eragin txikia du KEDLOTBaren oinarritzko manuen eremuan, kontu gutxi batzuek –geroago artikuluen azterketan zehaztuko ditugunek– baino ez bailukete behartuko proiektutako erregulazioa berriz aztertzeraz. Erreformatik gehienbat zuzenean aplikatzekoak diren KEDLOTBaren zatietan eragiten du.
191. Horrenbestez, aurrekontua egitean aldaketa kontuan hartu ez izanak ez du eragozten Batzordeak ekimenaren balioespena egitea, haren eragina txikia baita.

III 24/2021 ERREGE LEGE DEKRETUA, AZAROAREN 2KOA

192. Arau honen Seigarren liburuak 2019/2161 Zuzentaraua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2019ko azaroaren 27koa, zeinaren bidez Kontseiluaren 93/13 EEE Zuzentaraua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/6/EE, 2005/29/EE eta 2011/83/EB Zuzentzarauak aldatzen baitira.
193. Zuzentzara horrek Batasuneko kontsumitzaileak babesteko arauen aplikazioa hobetzen du eta arauok modernizatzen ditu.
194. Gainera, Europar Batasunaren eremuan, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunaren 38. artikuluan kontsumitzaileak babesteko aurreikusitako esparruaren barruan eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 169. artikuluan, administrazioarteko lankidetzaren beharra eta kontsumitzaileen erakundearen funtsezko eginkizuna nabarmendu direla hartu behar da kontuan.
195. 2020ko urtarrilaren 17tik, aplikatzekoa da 2017/2394 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2017ko abenduaren 12koa, kontsumitzaileak babesteko arloko legeria aplikatzeko ardura duten agintaritzak nazionalen arteko lankidetzari buruzkoa eta zeinaren bidez indargabetzen baita 2006/2004 Erregelamendua (EE), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/2161 Zuzentzaraarekin (EB), 2019ko azaroaren 27koarekin, zuzenean lotutakoa, zehapen-araubideari dagokionez.
196. 24/2021 Errege Lege Dekretuak, azaroaren 3koak, horren ildotik, zehapen-araubidearen gaineko behar diren aldaketak egiten ditu KELTBean 2017/2394 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2017ko abenduaren 12koa, Espainian behar bezala aplikatu dadin.
197. KEDLOTBaren aldaketak honako manu hauei eragin die: 19. artikuluari, zeinari 7. apartatua, merkataritza-praktika jakin batzuei buruzkoa, gehitu baitzaio; 20.



artikuluari, ondasunen eta zerbitzuen merkataritza-eskaintzan beharrezkoa den informazioari buruzkoa; 20 bis artikulua gehitu da, praktika desleialen ondoriozko neurri zuzentzaileei buruzkoa; Lehen liburuaren IV. titulua, «Zehatzeko ahala», berriz idatzi da goitik behera (46.etik 52.era arteko artikulua); 3. apartatua gehitu da 59 bis artikuluan «online-merkatua» definitzeko; bost apartatua gehitu da eta 2 apartatuko e), i) eta j) letrak aldatu dira 60. artikuluan, non kontratuaren aurretiko informazioa ezartzen den; n) letra gehitu da 93. artikuluan urrunean egindako kontratuen eta merkataritza-establezimendutik kanpo egindakoen araubidea aplikatzeko salbuespenei dagokienez; berriz idatzi da 97. artikulua, zeinak urrunean egindako kontratuen eta merkataritza-establezimendutik kanpo egindakoen kontratu aurreko informazioa zehazten baitu; 97 bis artikulua gehitu da, online-merkatuetan egindako kontratuetarako informazio-betekizun espezifikoko gehigarri buruzkoa; 98. artikuluan 22, 4 eta 8 apartatuak aldatu dira, urruneko kontratuen betekizun formalei dagokienez, bai eta 99.3 artikulua ere, establezimendutik kanpo egindako kontratuen betekizun formalei buruzkoa. Aldatu egin dira: 102.1 artikulua, atzera egiteko eskubideari buruzkoa; 103. artikuluan a) eta m) letrak, eskubide horren salbuespenei buruzkoak; 104. artikulua, atzera egiteko epeari buruzkoa, eta 105. artikulua, informazio-omisiari buruzkoa. 4.etik 8.era arteko apartatuak gehitu dira 107. artikuluan, atzera eginez gero enpresaburuak dituen betebeharrak buruzkoan; 2 apartatua aldatu eta 3 apartatua gehitu da 108. artikuluan, atzera eginez gero kontsumitzaileak dituen betebeharrak eta erantzukizunari buruzkoan; aldatu egin dira I. eranskinaren A letrako atzera egiteko eskubidea, lehen eta bigarren xedapenak, eta azken xedapenetako lehenengo xedapenaren 2 apartatua.

198. Azken xedapenetako zazpigarrenarekin bat etorri (eskumen-titulua), «Errege Lege Dekretuaren seigarren liburua Espainiako Konstituzioaren 149.1.1, 149.1.6, 149.1.8, 149.1.13, 149.1.16 eta 149.1.18 artikuluen babesean ematen da, zeinak Estatuari esleitzen baitizkio, hurrenez hurren, beren eskubideak baliatzean espainiar guztiak berdina izango direla bermatzen duten oinarriko baldintzei buruzko arauketaren gaineko eskumen eskusiboa; merkataritza-legeriari buruz; legeria zibilar buruz; jardura ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarri eta koordinazioari buruz; osasunaren oinarri eta koordinazio orokorrari buruz eta prozedura administratibo erkideari buruz, autonomia-erkidegoen berezko antolaketaren ondoriozko berezitasunak alde batera utzi gabe».
199. Aurreko kasuan ez bezala, aldaketak KEDLOTBaren oinarriko edukietan eragiten du, baina intentsitate desberdinarekin eta ondorio desberdinekin irizpen honi dagokionez.



IV KONTSUMOAREN ARLOKO GATAZKAK EBAZTEKO SISTEMAK ARAUTZEN DITUZTEN LEGEAK

200. Auzi Zibil eta Merkataritzazkoetako Bitartekaritzari buruzko Legeak (uztailaren 6ko 5/2012 Legea) –abenduarien 13ko 980/2013 Errege Dekretuak zenbait alderditan garatuta–, bitartekaritza zibila eta merkataritzakoa finkatu zuen gure ordenamenduan. Hala ere, kontsumo arloko bitartekaritza baztertu zuen (2.d artikulua), iritzita, haren zioen azalpenean adierazi bezala, «(...) helburua ez da dagozkien esparruetan bitartekaritza mugatzea, baizik eta erregulazioa dagozkien sektore-arauei gordetzea».
201. Helburu horri erantzuten dio 2013/11/EB Zuzentarauak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, 2013ko maiatzaren 21ekoak, kontsumo-arloko auzien ebazpen alternatiboari buruzkoak, zeinaren transposizioa egin baitu azaroaren 2ko 7/2017 Legeak, Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen duenak.
202. Azken xedapenetako lehenak honela xedatzen du: «Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 6. eta 8. erregelen arabera Estatuak merkataritza-legediaren, legedi prozesalaren eta zibilaren arloan dituen eskumen eskusiboetan oinarrituta ematen da lege hau».
203. Azaroaren 2ko 7/2017 Legeak, laburbilduz, zera antolatzen du: kontsumitzaileek eta erabiltzaileek Espainian kokatutako enpresaburuekin kontsumo-auziak agintaritza eskudunak egiaztatutako ebazpen alternatiborako entitate batzuen esku-hartzearen bitartez ebazteko aukera edukitzeko duten eskubidea. Europar Batasuneko estatu kideek jakinarazitako entitateen zerrenda bakarrean sartuko dira entitate horiek. Horretarako, egiaztatze prozedura eta egiaztatutako entitateek bere egin behar dituzten betebeharrak arautzen ditu, bai eta enpresaburuek auzien ebazpen alternatiborako bidari buruzko informazioa emateko betebeharrak eta, halaber, administrazio publikoen jarduketak.
204. Hala ere, lege-arauaren beraren arabera, eta zioen azalpenak adierazten duen bezala, «autonomia-erkidegoek, euren legedian bitartekaritzaren edo kontsumoaren arloko eskumenak hartu eta garatu badituzte, kontsumo-auzien ebazpen alternatiborako entitateak egiaztatze agintaritza eskudunak izendatu ahal izango dituzte, erabakia alderdientzat loteslea ez den auzietarako bakarrik. Era berean, legeak autonomia-erkidegoei eskumena ematen die euren legedian ezarri eta garatutako administrazio-prozedurak bideratzen dituzten entitateak egiaztatze».
205. Hori da aurreproiektuak, estatu-arauaren ondoriozko mugak beteta, 83.etik 94.era arteko artikuluetan egiten duena.



206. Kontsumoaren arloko gatazkak ebazteko bideen esparruan, kontuan hartu behar da, halaber, otsailaren 15eko 231/2008 Errege Dekretua, Kontsumoko Arbitraje Sistema arautzekoa, zeinaren azken xedapenetako lehenak (eskumen-titulua) hauxe xedatzen baitu: «Konstituzioaren 149.1.5 eta 149.1.6 artikuluetan xedatutakoaren babesean ematen da, zeinak Estatuari ematen baitizkie, justizia-administrazioaren eta prozesu-legeriaren arloko eskumen eskusiboak, hurrenez hurren».
207. Eremu horri lotuta, egokia da, orobat, Arbitrajeari buruzko Legea (abenduarien 23ko 60/2003 Legea) aipatzea, kontsumo-arbitrajearen ordeztatzeko baita. Arauak eskumen-euskarri bera du merkataritza-legeriaren, prozesu-legeriaren eta legeria zibilaren arloan Estatuak duen eskumenean (bigarren xedapen gehigarria).

V ADMINISTRAZIO-ARAU OROKORRAK

208. Aurreproiektuak jarduera pribatuen gaineko zaintza, kontrol eta esku-hartzerako administrazio-jarduerari buruzko aurreikuspenak jasotzen dituela eta zehapen-arabidea ezartzen duela kontuan hartuta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea (urriaren 1eko 39/2015 Legea) (APEL) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea (urriaren 1eko 40/2015) (SPAJL) badira, orobat, gure azterketaren parametroak, konstituzio-doktrinatik eratorritako moduan (nabarmenki, Konstituzio Auzitegiaren 227/1988, 50/199, 55/2018 eta 132/2018 Epaia).

TOKIKO ESKUMENAK

209. Egiteko prozeduran zehar agerian gelditu da organo sustatzailea eta Tokiko Gobernuen Batzordea ez daudela ados proiektatutako araudiak toki-erakundearen eskumen-eremuan duen eraginaren inguruan.
210. Tokiko Gobernuen Batzorde horrek egindako txostenak, azalpen luzea egin ondoren, honako hau ondorioztatzen du –aurreproiektuaren bigarren zirriborroari dagokionez–:

(...) gaur egun formulatuta dagoen bezala ez ditu egoki bermatzen udal-autonomiaren bermea eta finantza-nahikotasuna Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean (apirilaren 7ko 2/2016 Legea) onartuta dauden bezala, ez baititu guztiz errespetatzen berezko udal-eskumenak (...) ez baitu antolatze ahalmenei buruzko aipamenik jasotzen (...) eta ez du justifikaziorik edo arrazoirik ere aurreikusten, subsidiarioritasun- eta proportzionaltasun-printzipioetan oinarrituta, ea zergatik udalerrri jakin batzuek ez dituzten erabiliko legez toki-erakundeei aitortzen zaizkien kudeatzeko eskumenak, kasu horietan autonomia-



erkidegoaren jarduketa subsidiario bat aurreikustera mugatuta; eta eskumenak banatzeko eredua nolabaiteko konkurrentzia-kutsua duen sistema xedatzaile moduko bat bihurtzen du horrek, toki-erakundeak jarduten ez duenean, Kontsumobidek jarduten baitu.

Horrenbestez, aipatutako aurreproiektuak honako gai hauek bederen jaso beharko ditu:

1) Zioen azalpenean justifikazio bat gehitzea, horren bidez, subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioei jarraikiz, azal dadin ea zergatik hautatu den ordezkotasun-eredu xedatzaile bat udal-eskumenak esleitzeko.

2) Udalerrien berezko eskumenzat aitortzea antolatzeko ahalmena (...) Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.1 artikuluekin bat etorritz.

3) Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 18.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, eranskin ekonomiko bat egitea, zeinean, alde batetik, udalek aipatutako Legea onestearen ondorioz gauzatu beharko dituzten jarduera, prestazio eta zerbitzu berriak zehazten diren, eta zeinean, horri lotuta, aldaketa horrek toki-erakundeetan izango dituen finantza-ondorioak zenbatesten diren. Aurreproiektuan ez da ageri Tokiko Erakundeen Legean jasotako eskakizunak betetzen dituen eranskinik.

4) Txosten honetan egiten diren gainerako proposamenak, oharrak eta iradokizunak aztertzea, eta horiek gehitzea, hala badagokio, lege-aurreproiektuaren azken testura.

211. Txostenean dauden arazoibideak irakurrita, lehenik eta behin, desadostasuna, neurri batean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen interpretazio desberdinak egiteak dakarrela ikusten da.

212. Tokiko Gobernuen Batzordearen iritziz, labur-labur azalduta, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.1.11 artikulua udalerriei esleitzen die, berezko eskumen gisa, «Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea eta kudeatzea», eta aurreproiektuak eskumen hori errespetatu behar du, eta, ondorioz, antolatzeo eskumenak eman beharko lituzke –orain ez bezala– eta, nolahi ere, ezin izango lieke –orain egin bezala– eskumen-esparru horretako eskumenik eman etorkizuneko arauak jasotzen duen moduan erabiltzea erabakitzen duten udalerriei bakarrik.



213. Interpretazio horren arabera, kontsumoaren arlo materialeko eginkizunak –kasu honetan, «antolatu eta kudeatzeko» eginkizunak– udalerriei esleituko litzaizkieke Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen manu horren bitartez. Aurreproiektuak, hortaz, ez du inolako tarterik: eskumen-eremu hori «babestu» behar du eta, mugatu egiten badu, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.2 artikuluan jasotako aurreikuspena abian jarri beharko da.
214. Aurreproiektuak ez du legezko aurreikuspen hori aintzat hartzen, udalerriei ez baitie antolatzeko eginkizunik esleitzen kontsumoaren eremuan; hori dela eta, gutxienez ere, aipatu ditugun subsidiariorotasun- eta proportzionaltasun-printzipioetan arrazoitu behar da muga hori, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen berariazko aldaketa jaso.
215. Aldeak daude, orobat, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen lehenengo xedapen iragankorraren interpretazioari dagokionez. Tokiko Gobernuen Batzordearen iritziz aurreproiektua –kontsumoaren eremuan– Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea indarrean jarri ondoren emandako sektoreko araua da, eta horregatik, tokiko eskumenak mugatu behar ditu, lege horrek ematen dituen eskumenetan oinarrituta: ez dago arautzerik Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17. artikulurik ez balego bezala.
216. Desadostasunaren azken alderdia txostenak «eskumen-konkurrentzia eredu» deitzen duen horren ingurukoa da, izan ere, Tokiko Gobernuen Batzordearen iritziz, hori ez da onargarria Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen sisteman –zehazki, legezko arau horren 14., 15., 17. eta 18. artikuluen ondoriozkoan–.
217. Azaldutako gaien azterketan, Batzorde Juridiko honek gogorarazi behar du, beste batzuetan azaldu duen bezala, ez duela uste Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea indarrean jarri ondoren sektoreko legegileak eutsi ezin dionik aurreko lege-arauek ezarritako tokiko eskumenen mailari. Aitzitik, Batzordearen iritziz, ez 14., 15., 17. eta 18. artikuluetatik, ezta lehenengo xedapen iragankorretik ere, ezin da ondorioztatu Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen ondorengo sektoreko legeak aukera hori debekatua duenik.
218. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.1 artikulua ez du udal-eskumenen esleipen amaiturik egiten, baizik eta esparru material eta funtzional bat ezartzen duela, eta esparru horretan sektoreko lege bakoitzak mugatuko du tokiko jardunaren eremua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak adierazten dituen printzipioak betez –Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) jarraitzen dion eskema bera da–.



219. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.1 artikulua horrek, hitzez hitz, honako hau xedatzen du: «udalerriek (...) erabili ahal izango dituzte eskumen propioak» ETELean xedatutako esparruan «eta aplikatu beharreko legerian».
220. Interpretazio sistematikoa bat dator interpretazio horrekin: ETEL osoak «lege (...) bidez ezartzen diren» (14.1 artikulua) toki-erakundeen eskumenez hitz egiten du; berezko eskumentzat hartzen ditu, 17. artikulua zerrendaren arabera, «legeetan eta foru-arauetan izaera horrekin onartzen diren eskumenak» (14.2 artikulua). 15.1 artikulua, berriz, «lurralde-izaerako toki-erakundeen eskumena» honela definitzen du: «legeetan edo foru-arauetan aurreikusitakoaren arabera, toki-erakunde horiei esparru material jakin batean edo sektore edo erakunde berezi batean dagozkien ahalmen eta eginkizunen multzoa edo sorta». Eta berezko eskumenak esleitzeko baldintzei dagokienez, 18. artikulua berriaz adierazten du horiek «Eusko Legebiltzarraren lege bidez edo foru-arau bidez, nahitaez,» zehaztuko direla.
221. ETELak sektoreko legera jotzen du tokiko jardun-eremua zehazteko, ETELak berezko eskumen gisa esleitzen dizkien eremu material bakoitzaren barruan. Hori egiten du aurreproiektuak «kontsumo» arloan eta, baliozko aukeren artean, abenduaren 22ko 6/2003 Legearen ereduari eusten dio.
222. Espedienteak zehazten duenez, Tokiko Gobernuen Batzordeak txostena egin zezan igorritako testua aldatu zuten (hirugarren zirriborroa) adierazitako kontu eta iradokizunetako batzuk aintzat hartzeko, batez ere udalerrien eskumen-esparrua argitu nahian.
223. Behin betiko testuak azalpen-zatian hartutako ereduari buruzko azalpen bat ematen du (deskribatu egin da aurreproiektuaren edukia azaltzean).
224. Egiaztatutako izapideetatik ondorioztatutakoaren arabera, berriz idatzi da toki-erakundeen eskumena zehazten duen manua (oraingo 6. artikulua) eta, eskumenen gaia argiago jasotzeko, honako eduki hauen idazketa zehaztu da: administrazio-jarduketan konkurrentzia (7. artikulua), administrazioen arteko lankidetzak (8. artikulua), informazio-bulegoak sortzea eta koordinatzea (53. artikulua), gatazkak konpontzeko sistema alternatiboen sustapena eta garapena (83. artikulua), kontsumoko ikuskaritzaren jarduteko printzipioak (95. artikulua) eta haren jarduteko eremua (112. artikulua), zehatzeko administrazio eskuduna (125. artikulua) eta zehatzeko organo eskudunak (129. artikulua).
225. Era berean, desagertu egin dira arazo gehien sortzen ahal zuten edukiak, bai toki-autonomiarekin zuten loturagatik, bai zalantzak sortzen zituztelako, udalerrientzako betebeharrak ez ote ziren.



226. Hala, aurreproiektuaren azken testuan ezabatu egin da Tokiko Gobernuen Batzordeak Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren «esku hartzeko aparteko ahalmena» deitzen zuen horri buruzko aurreikuspena; izan ere, horrek, bere iritziz, udalen berezko eskumenen ohiko erabilera ordeztu ahal zuen, eta kalte egin, horrela, Konstituzioan eta legez bermatutako toki-autonomiari.
227. Oraingo 6. artikulua (udalen eskumenak) ez du jasotzen Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak zaintzeko esku-hartzerik egitea udalerriek egin ahal dituzten zaintza, kontrol edo zehatzeko jardueren gainean.
228. Txostenaren arabera EAEko udalerriei ezarritako betebeharrak berriei buruz, egindako eragozpen bakarrari erantzun dio organo sustatzaileak. Ematen dituen arrazoietatik, aurreproiektuak abenduaren 22ko 6/2003 Legean jasota ez zegoen betebeharrak ez dakarrela ondorioztatu behar da.
229. Udalerriek informazio eta prestakuntzari buruzko eginkizunak garatzea –orain 6.3.b) artikuluan jasota– abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 68.1.d) artikuluan jasota zegoen. Gauza bera esan behar da gatazkak epaitegitik kanpo ebazteko sistemak bultzatu eta garatzeaz, eginkizun hori lege horren 68.1.f) artikuluan jasota baitzegoen.
230. 73. artikuluari dagokionez –toki-erakundeek «(...) gatazken konponbiderako sistema alternatiboak sustatu, kudeatu eta garatzeko eginkizunak beteko dituzte, bereziki bitartekaritza eta kontsumo-arbitrajea», ezabatu egin da behin betiko testuan. Era berean, azken testuan ere ez dago udalek ohiko etxebizitzaren hipoteka-betearazpenetako bitartekaritza-prozeduran esku hartzea.
231. Udalerriei eginkizun berriak esleitzeari buruzko gaia, zeinak, Tokiko Gobernuen Batzordearen txostenean, ETELaren 18. artikulua aipatzen duen finantzaketari buruzko eranskina eskatzea justifikatzen duen, emandako datuak aintzat hartuta, hori ez da beharrezkoa.
232. Ekimenaren balioespen ekonomikoa hobetzeko tarterik badago ere (hori, halere, nahiko genukeena baino askoz arruntagoa da legezko erregulazioak onesteko orduan), Batzordeak ez du datu objektiborik aurkitzen pentsatzeko aurreproiektuak ez duenik hari buruz aldarrikatzen den «eragin neutro»rik: hau da, abenduaren 22ko 6/2003 Legearen eskumenen *status quo*ari eusten dio.
233. Azaldutakoagatik, gure iritziz, aurreproiektuak toki-autonomia errespetatzen du, ETELaren mugen barruan sartzen da (toki-erakundeei sektoreko eskumenak emateko hainbat eredu onartzen ditu eta haien berezko eskumenen mugarekin bateragarriak dira horiek), eta ez du eragiten tokiko eskumenen finantza-



nahikotasunean, aurretik zegoen eskumen-mailari eusten baitio, eta ez baititu zabaltzen udalerriek, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko eta babesteko eremuan, egin zitzaketen jarduerak eta zerbitzuak.

LURRALDE HISTORIKOAK

234. Azaroaren 25eko 27/1983 Legearen arabera (Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen Arteko Harremanei buruzkoa – LHL), eta EAEEaren arabera, lurralde historikoek ez dute kontsumoaren arloko eskumenik, eta eremu horretan aurretik emandako sektoreko legeetako bakar batek ere (10/1981 Legea, Eusko Legebiltzarrarena, Kontsumitzailearen Estatutuari buruzkoa, eta 6/2003 Legea, abenduaren 22koa) ez die eskumenik esleitzen foru-organoei arlo horretan.
235. Aurreproiektuak ildo horretan jarraitzen du, hori izanik EAEn barneko eskumen-banaketaren indarreko eremuan har daitekeen aukeretako bat.
236. Tokiko Gobernuen Batzordearen txostenak nabarmentzen du aurreproiektuak ez duela deus esaten foru-aldundiei, araubide erkideko aldundiak diren aldetik, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 36. artikuluekin bat etorritz, dagokien funtzioari buruz, baina alderdi horretan aurreproiektuak ere jarraitzen dio sektoreko beste lege batzuen ildoari, zeinek, EAEn erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko barneko banaketaz aritzen direnean, ez baitituzte jasotzen foru-aldundiek foru-erakundeen eta araubide erkidegoko erakunde gisa duten fronte bikoitzeko izaera dauzkaten eskumenak.

LEGE-AURREPROIEKTUAREN ANALISIA

I OHAR OROKORRAK

237. Aurreko azterketak egiaztatzen duen bezala, kontsumitzaileen eskubideak babesteko arloko arau-ekoizpena arras konplexua –eskubide horiek zenbait ikuspegitatik jorratzen dira– eta biziki dinamikoa da. Kontsumo-kodeen edo kontsumitzaileen estatutuen barruan dauden arau publiko eta pribatu ugarietz ohartzea aski da konplexutasuna antzemateko. Horri jatorri anitza gehitu behar zaio (Europar Batasuna, Estatua, autonomia-erkidegoak), bai eta etengabeko bilakaera ere, errealitate berriak agertu ahala (kontsumo-ohitura berriak, kontsumo-harreman berriak agertzean sortutako saltzeko modu berriak, publizitaterako era berriak, merkataritza-praktika berriak eta abarrak), azken horiek berriazko arau-erantzunak behar baitituzte.



238. Konplexutasun horri aurre eginda, ahalegin laudagarria ikusten da ekimenean arau-testu argia, koherentea, irakurterraza eta sistematika egokikoa lortzeko; hori horrela, idazketa zabal eta malguak hautatu dituzte, kontsumitzaile eta erabiltzaileen estatutua ezartzean ezinbestean gurutzatzen diren askotariko funtsezko arauekin integratzeko aukera ematearren.
239. Aurreproiektuaren manuetako asko –batez ere kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideei buruzkoek– funtsezko beste arau batzuetan (KEDLOTBa bera egoera horren adibide ona da) jasota dauden arauak eta erregulazioak behar dituzte osagarri. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsaren arloko autonomia-eskumenak barne hartzen du saltzeko eskaintzek eduki behar dituzten informazio-datuak ezartzeko eta arautzeko eskumena, betiere, jakina, legegile eskudunak –Estatukoak, alegia– onetsitako arauetan aitortuta dauden eskubideei buruzkoak badira.
240. Kasu honetan, horrenbestez, ikusten da egindako aukera egokia dela gaiaren konplexutasunari erantzuteko, eta ezin hobea, etorkizuneko araua berehala zaharkituta gelditzea eragozteko, ahal den neurrian. Aukera horrek, printzipioz, laguntzen du, halaber, Estatuko eskumen-eremuen arloan (Espainiako Konstituzioaren 149.1.6, 149.1.8 artikuluenak, bai eta 149.1.13 artikuluenak ere, adibidez) murgiltzeak ekar litzakeen eskumen-arazoak sor daitezen eragozten; izan ere, arretaz zaintzen ditu horiek konstituzio-doktrinak, bai eta *lex repetitae*aren teknika epaitzen duenean ere.
241. Konstituzio Auzitegiak ohartarazten duenez, «estatu-arauak arau autonomikoetan erreproduzitzea konstituzioaren kontrakoa da autonomia-erkidegoak ez badu dagokion eskumena, betiere –eta hori ez da aztergai honetan gertatzen dena– estatu-araua errepikatzea ez bada ezinbestekoa manua ulertzeko (Konstituzio Auzitegiaren 47/2004 Epaia, martxoaren 25ekoa (KAB 2004, 47), 8. OJ, eta 8/2016 Epaia, urtarrilaren 21ekoa (KAB, 2016, 8), 3. OJ). Salbuespen hori gorabehera, legegile autonomikoak galarazia du haren eskumen eskusiboari erantzuten dien estatu-legeria erreproduzitzea. Eta, arrazoi handiagoz, galarazia du parafraseatzea, osatzea, aldatzea, garatzea edo eragitea beste edozein modu zuzenean edo zeharka bere eskumen-multzoan ez dauden gaien erregulazioan» [Konstituzio Auzitegiaren 54/2018 Epaia (KAB 2018, 54), 6.c) OJ].

II AURREPROIEKTUA

242. Artikuluen azterketari heldu baino lehen, zenbait manutan eragiten duten eta arreta handiagoa eskatzen duten edukiak jorratuko ditugu.



A) Zehatzeko ahala

243. Azaldu dugun bezala, azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege Dekretuaren seigarren liburuak, orain garrantzitsua denari dagokionez, KEDLOTBaren lehenengo liburuaren IV. tituluaren («Zehatzeko ahala») erreforma sakon eta osoa egin du.
244. Zehapen-araubidearen aldaketa horrek harreman urrunagoa du 2019/2161 Zuzentarauarekin (EB), zeinak, printzipioz, aurreikuspen orokorrak baitauzka eta horietan estatu kideei eskatzen baitie zehapen «eraginkorrak, proportzionalak eta atzera-eragileak» ezar ditzaten; orobat, tarte handi bat uzten du transposiziorako, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko 2017/2394 (EB) Erregelamenduaren aplikazio eraginkorra ahalbidetzen duen zehapen-araubidea edukitzeko, berau aplikatzekoa baita 2020. urteko urtarrilaren 17tik aurrera.
245. Erreforma azaltzen da, halaber, neurri batean, Konstituzio Auzitegiak –zeharka urriaren 1eko 166/2012 KAEan, eta zuzenean otsailaren 2ko 10/2015 KAEan– KEDLOTBaren zehapen-araubidearen gabeziak agerian utzi zituelako eta, EKaren 25.1 artikulua araberako zehaztasun-printzipioa aintzat ez hartzea egotzita, 50.1 artikulua deuseztasuna adierazi zuelako, Administrazioaren esku uzten baitzuen arau-hausteen kalifikazio juridikoa –doktrina hori berriz aplikatzen du 150/2020 KAEak, abenduaren 22koak–.
246. Hala eta guztiz ere, gure azterketari begira, garrantzitsua zera da: zehatzeko ahalaren (VII. titulu) gaineko aurreproiektuaren erregulazioak KEDLOTBaren lehen liburuaren lehengo VI. titulu izan du erreferentzia, maiatzaren 28an indarrean egoteari utziko diona.
247. Baina, ikusi dugun bezala, KEDLOTBak –eta haren ondoz ondoko erreformek– alde batera utzi duten arren eduki bakoitza babesten duen eskumen-titulu zehatza identifikatzeko eskakizuna, gabezia horrek, kasu honetan, ez du eragozten segurtasunez identifikatzea zehapen-araubidea babesten duen eskumen-eremua eta horrek eskumen autonomikoa erabiltzeko dakartzan ondorioak ateratzea.
248. 24/2021 Errege Lege Dekretuak, azaroaren 2koak, KEDLOTBaren azken xedapenetako bigarrena (eskumen-tituluak) aldatzen du, esleitutako eskumenen zerrendara EKaren 149.1.18 artikulua eransteko, hain zuzen ere.
249. Estatu-legegileak eskumen-titulu hori identifikatu du, beste kasu batzuen artean, zehatzeko ahala oro har arautu duenean: horrela baieztatzen dute Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015



Legea) (APEL) azken xedapenak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen (urriaren 1eko 40/2015) (SPAJL) azken xedapenetako 14.1.ak.

250. Zehapen-araubidea ezartzeko eskumena, Konstituzio Auzitegiaren doktrinarekin bat etorritik, eskumen materialari lotua doa: autonomia-erkidegoek zehatzeko administrazio-arauak har ditzakete dena delako funtsezko gaiaren gaineko eskumena dutenean (guztien erakusgarri, 87/1985 KAE).
251. Horrenbestez, aztergai dugun honetan, araubide horren definizioak EAEAEaren 10.28 artikulua araberako eskumen autonomikoa hartzen du barnean, zeina oinarrien eta lege-garapenaren arteko logikan mugitzen baita.
252. Eskumen hori erabiltzean, legegile autonomikoak zuzenbide zehatzailearen konstituzio-bermeak bete behar ditu (EKaren 25.1 artikulua, funtsean), eta, «lurraldearen beste alde batzuetan aplikatzen den araubide juridikoaren aldean, ezin du dibergentzia arrazoigaberik eta lortu nahi den helburuarekiko neurrigaberik sartu (EKaren 149.1.1 art.)» –87/1985 eta 136/1991 KAEak–. Baina muga horiek alde batera utzi gabe, Estatuko zehatzeko ordenamenduaren oinarritzko printzipioak garatu ditzake, eta motak eta zehapenak modulatu, aukera hori «ezin baita bereizi zehatzetasun- edo egokitasun-eskakizunetatik, zeinak aldatu ahal baitira lurralde-eremu desberdinetan» (besteak beste, aipatutako 87/1985 KAE eta 148/2011 KAE).
253. Arrazoizko dibergentziaren nozioak (guztien erakusgarri, 136/1991 KAE, ekainaren 20koa) ez digu aurrez aurre jartzen (...) Estatuko oinarritzko legearen eta lege autonomikoaren arteko erlazio klasikoa, bestelako erlazio bat baizik, EKaren 14. artikulua berdintasun-judiziotik gertukoa; hori horrela, Estatuko arauaren eta arau autonomikoaren arteko judizio bikoitza egin beharra dago: batetik, baliokidetasunarena, egoera parekarriak diren egiaztatze, eta bestetik, justifikatu behar da, hala badagokio, tratu-desberdintasuna, hau da, haren oinarria, lortu nahi den xedearekin lotuta, arrazoizkoa eta neurritzkoa den».
254. Horregatik, KEDLOTBaren zehapen-araubidearen aldaketa hain handi batek, zeina –izapidetzeak denbora berean izan direlako– ez baita kontuan hartu ekimena idaztean, haren azterketa sakona alde batera uztea gomendatzen du, araubidea nabarmen aldatuko baita arauak berriarekin, eta horrek balio behar du aztertze ea aurreproiektuak gainditzeko duen konstituzionaltasun-blokeak ezarritako muga.
255. Ekimena sustatu duen organoari dagokio zehatzeko ahala arautzeko moduz egoki iriztitako erabakiak hartzea, eta Batzordeak ezin du hura ordeztu lantegi horretan, kontsultarako eginkizunaren mugatik haratago joango ez bada.



256. Aurreproiektuaren manuen hurrenkerari jarraitzen badiogu, adibideak agortzeko asmorik gabe, honako alderdi hauek aztertu behar direla ikusten da.
257. Arau-hausteen tipifikazioari dagokionez (130.etik 137.era arteko artikulua), aurreproiektuak abenduaren 22ko 6/2003 Legearen ildoari jarraitzen dio, eta debekatutako jokabideak zehaztu eta argitzeko ahalegin laudagarri du.
258. Artikulu horietan ezarritako arau-hausteen zerrenda, printzipioz, KEDLOTBaren 57. artikuluan ageri denarekin bateragarria bada ere, xehetasunez aztertu beharra dago, bi arauetak bateragarriak izan behar baitira.
259. KEDLOTBaren 48. artikulua arretaz irakurri behar da, zeinak arau-hausteen kalifikazioa eta mailaketa ezartzen dituen; horietan, izan ere, desberdintasunak daude aurreproiektuaren 138. eta 139. artikuluek egindakoekin, bestelako eskema bati jarraitzen baitiote, eta horren eragina aztertu beharko da doktrina konstituzionalak zehaztutako mugak kontuan harturik.
260. Era berean, ez da aldaketa txikia KEDLOTBaren 48. artikulua 1. apartatutako jokabideen kalifikazioa Osasunaren Lege Orokorren (apirilaren 25eko 14/1986 Legea) 35. artikulura bideratzea, kalifikazio bereziko nolabaiteko araubide bat definitzen duela ematen baitu, horren bidez, babestutako ondasun juridikoaren arabera, eta manua ezartzen duen orokorraren barruan, txertatze berezi bat bereizteko, zeinaren barruan berariazko arauak aplikatu nahi diren.
261. KEDLOTBaren 49. artikulua (zehapenak) eta 50. artikulua (zehapen osagarriak) aurreproiektuaren 140.etik 153.era arteko artikuluekin alderatzen baditugu, zuhurtziaz ebaluatu beharko ditugun desberdintasunak egiaztatzen dira, nabarmen aldentzen baitira oinarritzko erregulaziotik –zehatz-mehatz adierazi nahi gabe, isunen zenbatekoak; legez kontrako etekinaren kontzeptua; arau-hausteen aldetik kontsumitzaileen gaineko ondorioak konpontzeko konpromisoa badago, zehapen-prozedura amaitzeko aukera; konfiskatzeko zehapen osagarrien arauak, zehapen irmoen publizitatea–.
262. Subjektu erantzuleen mugatzeak (aurreproiektuaren 154.etik 156.era arteko artikulua) eskatuko du, halaber, KEDLOTBaren 51. artikulua erregulazioa aintzat hartzeko, bereziki egileari, egilekideari eta solidaritate-araubideari dagokienez.
263. Aurreproiektuaren 152. artikulua buruz zehapen-araubide berria kontuan izan behar da (artikulu horrek, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eskariz, Finantza Politikako Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoaren txostena ekarri du, eta txosten horrek ondorioztatzen du ezen, aurreikuspen berritzailea eta



kontsumitzaileen babesa hobetzerazuzendua bada ere, oinarri juridikorik ez duela).

264. Laburbilduz, txosten horren iritziz ez da aski organo sustatzaileak alegatutako oinarria (SPAJLaren 28.2 artikulua), Administrazioaren autotutoretza-ahalmenak ezin baitira zabaldu *interpretatos* harremanetara (hala dira, besteak beste, kontsumo-harremanak): SPAJLaren 28. artikulua administrazio publikoei sortutako kalte eta galeren kalte-ordainaren kasua baino ez du jasotzen.
265. Hala ere, aurreproiektuaren 152. artikulua erabateko babesa du, ordea, KEDLOTBaren 51. artikuluan, horren 6. apartatuak honako hau adierazten baitu:

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 28.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zehapen-prozeduran arau-haustek aldatutako egoera jatorrizko egoerara birjartzeko eskatu ahal izango zaio arau-hausleari eta, hala badagokio, kontsumitzaileari edo erabiltzaileari eragindako kalte eta galeren ordaina; azken hori zehatzeko ahala erabiltzeko eskumena duen organoak zehaztu eta eskatuko du, eta horren berri eman beharko dio arau-hausleari, zenbatekoaren arabera zehaztuko den epean ordain dezan. Kalte-ordaina ordaintzen ez bada horretarako ezarritako epean –kalte-ordainaren zenbatekoaren arabera izango baita–, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 101. artikuluan aurreikusitako moduan jokatu da.

266. Manuaren hitzez hitzezkoak ez du zalantzarik uzten aukeron gainean: (I) kontsumitzaileari sortutako kalte eta galeren kalte-ordaina ezartzeko, zehapen-prozeduraren esparruan, eta (II) kalte-ordain horren kobrantza exekutiborako, premiamendu-bidera jotzeko.
267. Babesteko lan horrek zalantza handiak sortzen ditu gero; lan hori administrazio zehatzailearen esku uzten da, eta horrek eginkizun aktiboa hartzen du kalte-ordainaren kobrantza aitortu eta kudeatzeko orduan, haren zenbatekoa zehaztuko baitu eta, autotutoretza-ahalmenak erabiliz, exekutiboki eskatuko baitu. Erantzukizunaren jatorrizko izaera aldatzen da, pribatuen artean eskatu beharreko obligazioak ez betetzeagatik dagoen erantzukizuna administratibo bihurtzen baita, nahiz eta kaltetua administrazio publikoa ez den, partikular bat baizik, eta administrazioak, nolabait, haren ordezkari gisa, hura ordeztuta, jarduten duenean sortzen den harreman juridikoa definitzera behartzen du.



268. Aztergai dugun manuak, azken batean, garrantzi handiko berritasun bat dakar, onartzen baitu zehapen-prozeduraren barruan pertsona arau-hausleak hirugarrenen aurrean duen erantzukizun zibila argitu daitekeela –ereduan zigor-arauketaren aztarna antzematen da, epaiak zehapena ezartzen du eta delitutik eratorritako erantzukizun zibila erabaki dezake, halaber–.
269. Organo sustatzailearen irizpenaren mende uzten da ezen, zehapen-araubidea berriz lantzean, balioets dezan, halaber, ea KEDLOTBaren 51.6 artikuluari hitzez hitz jarraitzea komeni den, manuaren berritasuna eta hura aplikatzeak sortutako galderak kontuan hartuta.
270. Azkenik, aurreproiektuko arau-hausteen eta zehapenen preskripzio-araubidea (157. eta 159. artikulua) KEDLOTBaren 52. artikuluan xedatutakoaren arabera aztertu behar da.

B) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak (78.etik 82.era arteko artikulua)

271. Aurreproiektuak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak honela arautzen ditu III. tituluko VIII. kapituluan.
272. 78. artikulua arabera, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek «beren kontsumo-harremanetan euskara eta gaztelania erabiltzeko eskubidea dute, kapitulu honetan adierazten den moduan eta bertan jasotzen diren progresibitate-baldintzetan».
273. Arauketak erakunde publikoen eta sektore pribatukoaren hizkuntza-araubidea bereizten du.
274. Lehenengoek, abenduaren 22ko 6/2003 Legean xedatutakoaren antzeko moduan, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskura zenbait dokumentu eta beste elementu batzuk euskaraz eta gaztelaniaz edo bi hizkuntzetan jartzeaz gain (79.2 artikulua), arreta hautatzen duten hizkuntza ofizialean jasotzeko eskubidea bermatu behar dute (79.3 artikulua). Administrazio publikoek eskubide horien erabilera progresiboki bermatu beharko dute neurri egokiak hartuz (79.3 artikulua).
275. Sektore pribatuko erakundeentzat, aurreproiektuak honako hauek bereizten ditu: (I) interes orokorreko oinarrizko zerbitzuak ematen dituztenak, eta horiei erakunde publikoei aplikatutako araubide bera aplikatzen zaie, hizkuntza-arloko erabilgarritasunari buruzko betebeharrak izan ezik (80.1 artikulua); eta (II) merkataritza-establezimendu handiak –merkataritza-jardueraren legeriaren arabera–, zeinek bete behar baitituzte honako hauei buruz ezarritako



betebeharrak: «jendarteari zuzentzen zaizkion errotuluak, oharrak eta, oro har, hitzezko eta idatzizko komunikazioak» eta «kontsumitzaileei eta erabiltzaileei zuzendutako ondasunen eta zerbitzuen eskaintza, sustapena eta publizitatea, euskarri guztietan» (80.2 artikulua).

276. Ondasunen eta zerbitzuen aurkezpenari eta etiketatzeari aplikatu beharreko araubideari dagokionez, 81. artikulua araberan, «Euskal Autonomia Erkidegoan banatzen diren ondasunen eta zerbitzuen gaineko informazioa euskaraz, gaztelaniaz edo euskaraz eta gaztelaniaz batera adieraziko da, eskaintzaileak erabakitzen duen moduan, eta horrela egingo da, besteak beste, etiketan, ontzietan, inprimakietan eta erabilera-jarraibideak emateko inprimakietan eta argibideetan».
277. Azkenik, administrazio publiko eskudunei kontsumo-harremanen eremuan euskararen erabilera bultzatzeko dagokien sustapen-jarduketaren berariazko aipamen bat dago (82. artikulua).
278. Zehapen-araubidean, 137. artikulua (bestelako arau-haustek) 13. apartatuan «lege honek arautzen dituen hizkuntza-betebeharrak ez betetzea» jasotzen du.
279. Aurreproiektuaren eduki hori konstituzionaltasun-blokearekin kontrastatzeak – kasu honetan, EKaren 3.2 eta EAEAEaren 6.2 eta 3. artikuluen printzipioek eta aurreikuspenek mugatuta– ez du bateragarritasun-arazorik sortzen: aurreproiektuak legegile autonomikoaren aukera posibleetako bat gauzatzen du.
280. Hori gorabehera, hautatutako aukera aski ez justifikatzearen ondorioak atera behar ditugu orain ezinbestean; honako honi buruzko irizpide juridikoa zailtzen dute horiek, izan ere: ea proposatutako hizkuntza-araubidea egokia den haren helburua eta berau lortzeko gehitzen dituen neurrien egokitasuna kontuan hartuta.
281. Aurreratu dugun bezala, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak balorazio negatiboa egin du, zeina, funtsean, proiektatutako testua honako hauetan dagoen hizkuntza-eskubideen arauketarekin eginiko konparazioan oinarritzen baitu: abenduaren 22ko 6/2003 Legean, eta Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko uztailaren 1eko 123/2008 Dekretuak eduki horretaz egiten duen garapenean. Bere iritziz, laburbilduz, araubide horri eutsi beharko litzaioke gutxienez.
282. Azterketa ardazteko, lehenik, komeni da ikustea bi arauketen –aurreproiektuaren eta abenduaren 22ko 6/2003 Legearen– arteko aldeak zein diren. Ez ditugu manuak aipatuko, horrek konparazioa zaildu baino ez baitu egiten, berau ulertzen lagundu gabe. Era berean, erregelamendu-mailako arauak ere ez ditugu konparazioan jaso.



283. Erakunde publikoei dagokienez, indarrean den arauko haien definizioa atxiki du aurreproiektuak.
284. Dokumentu-betebeharrei dagokienez, aurreproiektuak ezabatu egin du indarrean den legeak honako hauek bi hizkuntzetan emateko betebeharra: «produktuak eta zerbitzuak erabili eta horien mantentze-lanak egiteko jarraibideen liburuxkak, berme-agiriak eta etiketetan eta ontzietan adierazi beharrekoak bi hizkuntzetan idatzi beharko dituzte».
285. Hizkuntza-arloko erabilgarritasunari buruzko betebeharrari indarrean den arauan bezala eutsi zaio, eta eskubide onartua erabiltzea progresiboki bermatzeko neurriak hartzea jaso da, halaber.
286. Erakunde pribatuen betebeharren eremuan, haien tipologia hartu behar da kontuan.
287. «Interes orokorreko oinarrizko zerbitzuak» –3. artikuluan zehaztuak– ematen dituzten erakundeentzat aurreproiektuak dokumentu-betebeharrak handitzen ditu, betebeharrak bat –orain ez dutena– gehitzen baitu honako honi dagokionez: «kontsumitzaileei eta erabiltzaileei zuzendutako produktuen, ondasunen eta zerbitzuen eskaintza, sustapena eta publizitatea, euskarri guztietan, bi hizkuntzetan egingo da». Betebeharrak hori ez zaie eskatzen indarrean den arauan han «interes orokorreko sektore»etako erakundeak deitutakoei.
288. Aurreproiektuan, «interes orokorreko oinarrizko zerbitzuak» ematen dituzten erakundeek ez dute jendearentzat irekitako establezimenduetan kontsumitzaileei arreta mintzatzeko diren hizkuntzan emateko modua izan behar; indarrean den arauak bai ezartzen duela betebeharrak hori, erregelamenduak zehaztutako progresibitate-baldintzetan.
289. Aurreproiektuaren hizkuntza-araubidetik kanpo gelditzen dira diruz lagundutako erakunde pribatuak.
290. Indarreko arauan, «laguntzen edo dirulaguntzen onuradun» diren erakundeek edo lankidetzaren hitzarmen batean partaide direnek, dirulaguntza edo hitzarmenaren xedeari lotutako harremanei dagokienez, interes orokorreko sektoreetako erakundeek dituzten dokumentu-betebeharrak berak dituzte.
291. Baldin eta diruz lagundutako erakunde horiek jendearentzat irekitako establezimenduak badituzte eta jasotzen dituzten dirulaguntzek euskara lan-harremanen esparruan eta jendearentzako arretarenean sartzeko helburua badute, kontsumitzaileei eta erabiltzaileei arreta hautatzen duten hizkuntza



ofizialean eman beharko diete, halaber, zehazten diren progresibitate-baldintzetan.

292. Aurreproiektuan merkataritza-establezimendu handiko kalifikazioa duten establezimenduek errotulu, ohar eta komunikazioei buruzko dokumentu-betebeharrak bete behar dituzte, bai eta eskaintza, sustapen eta publizitateari buruzkoak ere, euskarri guztietan –bigarren betebeharrak hori ez da ageri indarreko arauan–.
293. Ezabatu egin dira honako hauei buruzko dokumentu-betebeharrak: «atxikitze-kontratuak, klausula-ereduak dituztenak, kontratu arautuak, baldintza orokorrak eta horien gaineko agiria» eta indarreko arau komunikazioei, fakturei, aurrekontuei eta antzeko agiriei buruz dituztenak.
294. Ezabatu egiten da, orobat, kontsumitzaileei arreta mintzatzen diren hizkuntzan emateko modua izateko betebeharra, Gobernuak zehazten dituen progresibitate-baldintzetan.
295. Aurreproiektuak ez ditu jasotzen erakunde handien jabetza diren jendearentzat irekitako establezimenduak, baina, indarreko arauan, erregelamenduak horiei buruz egindako definizioari jarraituz, merkataritza-establezimendu handiek dituzten betebeharrak dituzte horiek dokumentuei eta arretari dagokienez.
296. Ez daude jasota, ezta ere, «produktuak saltzeko eta zerbitzuak emateko jendearentzat irekitako establezimenduak» oro har, baina horiek, indarreko arauan, dokumentu- eta arreta-betebeharrak dituzte, erregelamenduan zehaztutako moduan eskatu beharrekoak.
297. Ondasunen aurkezpenari eta etiketatzeari dagokienez, aurreproiektuak indarrekoaren antzeko araubideari eutsi dio, eta, horren arabera, hizkuntza-aukera eskaintzailearen nahiarekin lotzeaz gain, elebitasuna edo euskara, kasua zein den, erabiltzea sustatzeko politiken alde egiten da. Nolanahi ere, manu hori proiektuan erakunde guztiei aplikatzeko dela nabarmendu behar da; hori horrela, indarreko arauetan erakunde publikoei bi hizkuntzetan idazteko betebeharra ezartzen zaie, baina ezabatu egin du proiektuak.
298. Azkenik, indarreko araudian hizkuntza-betebeharrak ez betetzeak ez dakar berarekin zehapenik; aurreproiektuan zehatzeko ahalaren erabilera jasota dago, ordea, betebeharrak horiek bete ezean.
299. Obligazio-edukiaren alde kualitatibo argia dago bi arau-irtenbideen artean.



300. Hizkuntza-araubidea justifikatzeko, organo sustatzaileak honako arrazoi hauek zerrendatzen ditu.
301. EAEn jarduten duten enpresa edo establezimenduekin lotuta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak zehatzago jasotzeko beharrari dagokionez, hauxe adierazten da: «Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko 6/2003 Legea aldatzeko otsailaren 9ko 2/2012 Legea inspiratu zuten printzipioetan oinarritzen da araua; hau da, administrazio publikoaren barruan ez dauden partikularrek bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eremuan, hobe dela sustatu eta bultzatzeko neurriak xedatzea».
302. Ikuspegi hori babesteko, Konstituzio Auzitegiaren 7/2018 Epaia aipatzen da, eta erakunde publikoei eta sektore pribatukoei aplikatu beharreko araudia bereizi beharra ateratzen da horretatik, bigarreni ezin baitzaizkie ezarri hizkuntza-arloko erabilgarritasunari buruzko betebeharrak. Eta gogorarazten du aurreproiektuak zehapenak jasotzen dituela ezarritako betebeharrak betetzen ez badira – indarreko arauketak ez du hori jasotzen–; aurreikuspen hori gehitu da erregulazioaren proportzionaltasuna dela eta.
303. Erregulazioaren eta abenduaren 22ko 6/2003 Legearen arteko alderaketari dagokionez, organo sustatzaileak zenbait kasutan aldaketa bat ez baizik eta birkokatze sistematiko bat dela azaltzen du, eta erregulazioa aldatu dutenetan, berriz, argudiatzen du kontuan hartu duela «arauaren “egingarritasuna” elementua, kalitatearen adierazle gisa, zeinak, kontu formaletatik eta teknika juridikotik haratago joanda, haren eduki materialean, haren efikaziaren eta efizientiaren azterketan jartzen baitu arreta. Ildo horretatik, ekimenak efikaza izan nahi du, kontuan hartuta zer errealitateri zuzentzen zaion, haren alderdi guztietan (gizartea, ekonomia, kultura, hizkuntza), eta dauden baliabideak aintzat hartuta, baita oraingo arau-egoera ere, zeinak ezaugarri baitu interpretatzen zailak diren eta benetako aplikazio-maila txikia duten arau gehiegi egotea».
304. Hauxe gehitzen du, orobat: «Gaur egun, bizi dugun krisi sanitarioa eta sozioekonomikoa dela-eta, are beharrezkoagoa da interes konkurrenteak neurtzea, eta zeregin horretan ezin da alde batera utzi txikizkako merkataritzak duela urte batzuetatik pairatu duen egoera kritikoa, zeinak karga gehigarriak baztertzea aholkatzen duen».
305. Produktuen etiketetan eta aurkezpenetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskakizunei buruz (Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak zalantzan jarri ditu), aurreproiektuak aplikatu beharreko araudiari jarraikiz jasotzen dituela adierazi behar dugu.
306. Azkenik, klausula indargabetzailea Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko uztailaren 1eko 123/2008 Dekretura zabaltzea ez dela egokia



argudiatzen du Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak, bada, horri dagokionez, organo sustatzaileak gogorarazten du aurreproiektuak «(...) hizkuntza-eskubideak arautzen dituela 6/2003 Legeak ezarritakoak ez bezalako irizpide jakin batzuetan oinarrituta, bereziki hizkuntza-arloko erabilgarritasunaren printzipioarekin lotuta. Arauketa berriarekin, sektore publikorako gorde da printzipio hori. Horregatik, arau hori garatzen zuen dekretuak ezin du iraun hura desagertu ondoren». Aurreko araudian bideragarritasunik eza ikusten da, gainera, izan ere, «(...) legean eskubide eta betebeharrak asko adierazten dira, eta, ondoren, “progresibitate”aren mende gelditzen dira horiek; baina esapide hori ez da batere zehatza, eta ziurgabetasun-kutsua ematen dio horrek arauaren benetako irismenari, eta horren ondorioz, lau urte eta erdiko atzerapena izan du legearen arauzko garapenak. Horrek arau-aginduaren segurtasun juridikorik eza ekarri du, baita haren arauzko garapenaren ondoren ere, eremu subjektiboa eta objektiboa zehazten zaila baita».

307. Hori dela eta, «(...) arauak ezarritako hizkuntza-betebeharrak eskatzea geroratu da, eta luzapen bat egon da ondoren (123/2008 Dekretuak, 2008ko uztailaren 17an indarrean jarritakoak, urte bat, bi, hiru edo lauko zenbait epe xedatzen ditu behartuta dauden erakundeak eta enpresak haren edukira egokitu daitezkeen, eta epe horiek, oro har, urtebete gehiago luzatu ziren, 204/2010 Dekretuaren bidez), eta ezeztatu egin zen eremu horretan zehatzeko ahala (6/2003 Legearen bigarren xedapen gehigarria, 2/2012 Legeak gehituta). Egoera horren sustraia dago, gure iritziz, gaia –herritar pribatuek hizkuntza hautatzeko duten askatasuna– arautzean aruari eman zitzaion orientazio hertsatzailean; izan ere, gai horretan ez da era inperatibo batez jardun behar, sustatzeko eta bultzatzeko neurrien bitartez baizik (eta horixe esan zuen 2/2012 Legeak eta horixe da azaroaren 24ko 10/1982 Legearen, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoaren, irizpidea)».
308. Ondorio gisa, esan daiteke eremu pribatu osoan «arreta euskaraz emateko» orain ezarritako betebeharrak ezeztatzeke erabakia hartzen dela konstituzio-mailako eragozpen bat dagoela iritzita (7/2018 KAE), zeinak betebeharrak horiek erakunde publikoen esparrura berriz bideratzen dituen. Dokumentuzko betebeharrei dagokienez (eremu pribatu horretan duten irismena murriztu egin da oro har), ez dugu horren azalpenaren berririk.
309. Maila faktikoan, batetik, araudia zuzenduta dagoen errealitatea (gizarte, ekonomia, kultura eta hizkuntzari dagokiona) aipatzen dute, baina txikizkako merkataritzaren egoera kritikoa berri baino ez dute ematen, eta, hori aintzat hartuta, ez dela gomendagarria karga gehigarriak ezartzea. Bestetik, oraingo arau-egoeraren gabeziak adierazten dituzte, argia ez delakoan: «interpretatzen zaila diren araudi gehiegi, benetako aplikazio-maila urria dutenak».
310. Aurreproiektuak operadore ekonomiko pribatuentzat ezartzen dituen betebeharrak dokumentaletatik haratago joateko konstituzio-eragozpena itxuraz dakarren



konstituzio-doktrinari buruz (nabarmenki Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 25eko 7/2018 Epaiazen ondorioz), zenbait zehaztapen egin behar ditugu.

311. Epaia horretan, Konstituzio Auzitegiak Kataluniako Kontsumo Kodearen uztailaren 20ko 22/2010 Legearen 128.1 artikuluan 1. eta 2. apartatuen konstituzionaltasuna aztertzen du, hain zuzen ere (aurretik Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 4ko 88/2017 Epaian ere egin zuen).
312. 128.1 artikulua horren 1. apartatuak, laburbilduz, kontsumitzaileei arreta ahoz eta idatziz katalanez jasotzeko eskubidea onartzen die, bai eta informazio jakin bat katalanez jasotzeko eskubidea ere, beren kontsumo-harremanetan.
313. 128.1 artikulua beraren 2. apartatuak adierazitako kontratu aurreko eta kontratuko informazioari buruzko dokumentazioa jasotzeko eskubidea zehazten du.
314. Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioan planteatu eta aztertutako aurkaratze-ikuspegietatik, honako hau argudiatzen duena interesatzen zaigu gure azterketarako: beste hizkuntza bat erabiltzeko betebeharra botere publikoekiko harremanetan baino ez litzateke eskatzeko modukoa izango, eta ezin da betebehara gisa ezarri sektore pribatuaren harremanetan. Arrazoi berak direla-eta, enpresei produktuen dokumentazio eta informazio jakin bat katalanez emateko betebehara ezartzea konstituzio-kontrakoa izango litzateke.
315. Pribatuen artean ezarritako harremanetan arreta ahoz eta idatziz katalanez emateko betebeharrari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak honako hau arrazoitzen du: «(...) berriz ere gogorarazi behar dugu –Konstituzio Auzitegiaren 31/2010 Epaian (22. OJ) eta 88/2017 Epaian, uztailaren 4koan, (4. OJ) egin bezala–, erakunde pribatuen, enpresen edo publikora irekitako establezimenduen hizkuntza-erabilgarritasunaren betebehara onartzeak “ere ezin dituela horiek edo haien jabeak edo langileak behartu bi hizkuntza ofizialetako bat modu orokorrean, berehalakoan eta zuzenean erabiltzera harreman pribatuetan. Izan ere, hizkuntza batean edo bestean arreta jasotzeko eskubidea botere publikoen eta herritarren arteko harremanetan soilik izan daiteke eskatzeko modukoa. Horregatik, pribatuen arteko harremanen eremu horretan ezin da ulertu estatutuak herritarrei betebehara hori berehala eta zuzenean ezartzen diela”. Oroigarri horretatik ondorio hau ateratu genuen: “pribatuen arteko harremanen eremuan hizkuntza ofizialetako bat modu orokorrean, berehalakoan eta zuzenean erabiltzeko betebehara indibidualik ezartzerik ez dagoenez, are gutxiago ezarri ahal izango da halakotzat hartzerik inoiz egongo ez diren betebehara indibidual batzuen balizko ez-betetze baten aurkako inolako zehapen-araubiderik (88/2017 KAE, uztailaren 4koa, (4. OJ))”».



316. Aipatutako 128-1 artikulua 2. apartatuak ezartzen dituen dokumentu-betebeharrei buruz, Konstituzio Auzitegiak, Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua argitan aurreikuspena aztertzean, gogorarazten du uztailearen 4ko 88/2017 KAEan jada eman zuela iritzia, eta haren bidez salatutako konstituzio-urraketa baztertu zuela:

Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua bi hizkuntza ofizialen tratu-berdintasuna hautsita urratzeari dagokionez, aurkaratzea jada baztertu zen Konstituzio Auzitegiaren 88/2017 Epaian, uztailearen 4koan, 5. OJan; horrenbestez, arrazoi hori berriz ezetsi behar da aipatutako epai horretan esandakora igorrita. Hala, hain zuzen, orduko hartan Auzitegi honek zera interpretatu zuen: «aurkaratutako manuak, zeinak katalanaren erabilera sustatzeko neurri bat aurreikusten baitu, hain zuzen, Konstituzioaren arabera kotzat jo dadin, ezin du inola ere ekarri gaztelaniaren erabilera galaraztea. Galarazte hori, baina, ezin da ondorioztatatu 128-1 artikulua 2. apartatutik, horrek onartzen baitu kontsumitzaileek dokumentu eta informazio jakin batzuk katalanez jasotzeko duten eskubidea, baina hizkuntza-erabilgarritasunaren betebeharrarekiko erabateko errespetuaren kalterik gabe egiten du hori. Hizkuntza-erabilgarritasunaren betebehar horrek dakar, horrenbestez, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek dokumentazio eta informazio hori gaztelaniaz ere jasotzeko eskubidea bermatzea». Hala, Konstituzio Auzitegiaren 88/2017 Epaia 128-1 artikulua bigarren apartatuaren interpretazio bat egin zuen, eta epaitzara eraman zuen; hori dela eta, jokatutako bera izango dugu ebazpen honetan.

317. Aurkaratzean argudiatutako beste arrazoiei dagokienez, lehenik, EKaren 149.1.1, 149.1.13 eta 149.1.16 zenbakietan Estatuari esleitutako eskumen-eremuen balizko urraketa dagokionez, berriz ere hauxe adierazten dugu: «Estatuak bere eskumen-titulua –batez ere EKaren 149.1.1, 149.1.13 eta 149.1.16 zenbakietan jasotakoak– erabiliz arloan emandako araudirik ezean, eta kasu bakoitzean Europar Batasunaren arloko araudiak eskumen-erabileraren balizko mugaketa egiteko aukera alde batera utzi gabe, Kataluniako Autonomia Erkidegoa da, printzipioz, eskuduna araudi bat egiteko, bertan jaso dadin Katalunian merkaturatutako ondasun edo zerbitzuei buruzko dokumentu eta informazio jakin batzuk katalanez ere egoteko betebeharra (88/2017 KAE, uztailearen 4koa, 5. OJ)».
318. Dokumentu eta informazio batzuk katalanez jasotzeko eskubidea onartuta operadore ekonomikoei horiek emateko betebehar korrelatibo bat ezartzean legokeen enpresa-askatasunaren eskubidearen (EKaren 38. artikulua) balizko urraketa ere ez da onartu. Enpresa-askatasunari buruzko konstituzio-doktrinara



jotzen da, zeinaren arabera, Estatuko edo autonomiako legegileak jarduera gauzatzeko baldintzak ezarri ahal baititu, betiere arrazoizkotasun-kanon bati egokitzen bazaizkio; hau da, honako honi erantzuten badiote: «(...) konstituzioaren arabera zilegi den helburu bati, eta aproposak edo egokiak badira hura lortzeko, baina haren intentsitateak jarduera ekonomikoa askatasunez gauzatzeko eragozpen praktikoa ekartzeko adinakoa izatera iritsi gabe» [111/2017 KAE, urriaren 5ekoa, 4.a) OJ] honako hauen aipamenarekin: 53/2014 KAE, apirilaren 10ekoa, 7. OJ; 30/2016 KAE, otsailaren 18koa, 6. OJ, eta 35/2016 KAE, martxoaren 3koa, 4. OJ]».

319. Konstituzio Auzitegiak, dagokion judizio negatiboaren esparruan, manuaren arrazoizkotasun-kanona aztertzean, lehenik, arauketaren helburua aztertzen du. Bere ondorioa argia da: helburua konstituzionalki zilegia da, neurriek hizkuntza koofiziala defendatzea eta sustatzea dute xede (Espainiako Konstituzioaren 3.3 artikulua).
320. Bigarrenik, ezarritako betebeharrak lortu nahi duen helburuari egokitzen zaizkion aztertzen du.
321. Konstituzio Auzitegiaren 69/1988, 80/1988, 147/1996 eta 31/2010 Epaien doktrina gogorarazten du, eta ondorioztatzen du dokumentu-betebeharrak neurri egoki bat direla katalanaren hizkuntza-normalizazioaren helburu zilegia sustatzeko, eta ez dute, halaber, enpresa-askatasunaren eskubidea mugatzen hartaz gabetzea ekartzeko adinako intentsitatearekin. Arrazoiketa amaitzeko, merkatu-batasunaren eta EKaren 139.2 artikuluen eremuan aztertzen du manua, zeinak, Konstituzio Auzitegiaren iritziz, ez baitira eraginda gertatzen.
322. Horrenbestez, konstituzionaltasun-blokea –EKaren 3.2 eta EAEEaren 6.2 eta 3. artikulua, esan bezala– eta Konstituzio Auzitegiak horren gainean egindako interpretazioa aintzat hartuta, harreman pribatuen eremuan –aztergai dugun honetan, kontsumoaren arlokoetan– hizkuntza-betebeharrak ezartzeko orduan, lerro gorria hauxe izango litzateke: operadore pribatuei betebeharrak indibidualak, orokorrak, berehalakoak eta zuzenekoak ezartzea, eta ezinezkoa da ondorioz, horien urraketari zehapenik lotzea, konstituzioaren aurkakoak baitira horrelako betebeharrak horiek.
323. Kontsumo-harremanetan ez dago ezartzerik, hortaz, hizkuntza koofiziala erabiltzeko betebeharrak orokor, berehalako eta zuzenekoak –ezta, logikoa denez, era horretako betebeharrak bat eratzea ekar lezakeen eskubidea onartzerik ere–. Nolanahi ere, eremu debekatu horretatik kanpo, esparru zabala irekitzen da, eta bertan hainbat aukera daude ondasunak eta zerbitzuak ematen dituzten operadore ekonomikoaren betebeharrak zehazteko orduan.



324. Konstituzio Auzitegiaren 7/2018 Epaiak berak –88/2017 KAEak, uztailearen 4koak, aurretik egindako modu berean– ez du konstituzio-kontrakotzat jotzen Kataluniako Kontsumoaren Kodearen 128. artikulua, 1. apartatua, 4. oinarri juridikoan ezartzen dituen mugen arabera interpretatuta.
325. Konstituzio-eragozpenik ere ez da ikusten operadore ekonomiko pribatuei dokumentu-betebehar elebidunik ezartzeko.
326. Horrenbestez, aurreproiektuaren hizkuntza-araubidearen justifikazioari dagokionez, adierazi beharra dago konstituzio-doktrinatik ez dela esku-hartze publikorako debekurik sortzen kontsumo-harreman pribatuen eremuan, aurreproiektuan operadore pribatuen hizkuntza-araubidea berez justifikatzen duenik.
327. Lehen auzi hori argituta, zehaztu behar da, orobat, hizkuntza-araubidea, azaldutako konstituzio-doktrinatik ondorioztatzen denez, euskara erabili eta sustatzeari buruzko eskumen-tituluaren gauzatzea dela, ez baitu kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatu eta babesteko eskubide, neurri edo mekanismorik eratzen.
328. Arauketaren ardatza ez dago kontsumo-harremanean –«kontsumitzaile eta erabiltzaile den pertsona baten eta enpresaburu baten artean sortzen den harreman juridikoa da, eta harreman horren baitan sartzen dira ondasunen eta zerbitzuen gaineko informazioa ematea, eskaintzak, sustapenak eta publizitatea egitea, merkaturatzea, erabilera, salmenta, hornidura eta jarduera horietatik guztietatik eratortzen diren betebeharrak» 3.g) artikulua–, gizartearen eremu jakin batean euskararen presentzia sustatzean baizik.
329. Etorkizuneko arauaren edukien azpian dagoen titulua identifikatzeko erabili beharreko «zentzu eta helburu»aren irizpideak hizkuntza-normalizazioaren eskumen-alorrean kokatzen du hizkuntza-araubidea, euskararen erabilera normalizatzerara bideratutako neurri gisa.
330. Eskumenei dagokienez, hizkuntza-araubidea, horrenbestez, euskara sustatzea da, «hizkuntza autonomiko baten koofizialtasunaren estatutu juridikoaren definizioaren eremutik kanpoko gai bat, eta Konstituzio Auzitegiak “hizkuntza-normalizazioa sustatzeko konpromiso bat” deitu duena dakar (69/1988 KAE, apirilaren 19koa, 3. OJ; 31/2010 KAE, ekainaren 28koa, 23. OJ).
331. «Hizkuntza-normalizazioa sustatzeko konpromiso» horretan kokatu behar dira aurreproiektuaren hizkuntza-araubidearen helburuak, baina horrek ez du esan nahi helburu horiek aplikatu behar diren sektorearen (kontsumoa) ezaugarriak



ahaztuta eta esku hartzen duten interes guztiak egoki haztatu gabe ezarri ahal direnik.

332. Bi zehaztapenak eginda, hizkuntza-araubidearen arrazoiak berriz ikertzen baditugu, ikusi dugu jada hizkuntza-betebeharrei buruzkoak –dokumentalak eta «arreta euskaraz» ematekoak– txikizkako merkataritzaren egoera txarraren berri ematera mugatzen direla, eta horrek azalduko luke hura agian etorkizuneko arauaren aplikazio-eremutik kanpo gelditzea.
333. Hala eta guztiz ere, adierazpen horrek berez ez du azaltzen, arrazoizko era batez, erabaki dadin erakunde handien establezimenduei hizkuntza-betebeharrik ez ezartzea, eta gutxitzea establezimendu handien eta interes orokorreko oinarrizko zerbitzuak (printzipioz, ura; gasa; elektrizitatea; telefonia-zerbitzuak, eta finantza- eta aseguru-zerbitzuak; posta-zerbitzuak; aire, trenbide eta errepide bidezko garraioa; osasun-babesa; saneamendua eta hondakinak) ematen dituzten erakundeen betebeharren edukia.
334. Justifikazio objektiboaren eremua utzi gabe, hizkuntza-normalizazioaren arloaren proposamenari ere ez zaizkio erantsi proposamen hori babesten duten arrazoiak. Indarrean dagoen araudi batera igortze hutsa ez da aski, haren hizkuntza-neurriek ez baitituzte administrazio publikoak eta haren sektore publikoa bakarrik ukitzen; operadore ekonomiko pribatuei ere eragingo diete.
335. Indarrean dagoen araudia aplikatzeak doikuntzak –ez nolanhikoak– egin beharra dagoela erakutsi du, otsailaren 9ko 2/2012 Legeak hizkuntza-araubidetik atera baitzuen ezarritako hizkuntza-betebeharrak betetzen ez zituzten ondasun- eta zerbitzu-eskaintzaileei zehapenak ezartzeko aukera.
336. Zalantzarik gabe, datuak eduki behar dira hizkuntzaren erabilerak oraingo araudiaren indarraldian izandako bilakaeraz, ezarritako betebeharren betetze-mailaz, horiek bete behar dituzten erakundeen onarpenaz, zehapenak kentzeak izandako ondorioez eta abarrez.
337. Indarreko araudiaren aplikazioari buruzko ebaluazio horrek kontsumo-harremanen eremurako hizkuntza-normalizazioaren helburuak (sektoreak eskaintako datuak haztatuta) eta horiek lortzeko neurri egokiak zein diren ezartzea ahalbidetuko luke. Bereziki, aurrekariak kontuan hartuta, hauen arteko eraginkorrenak zein diren argitu behar da: sustatzeko neurriak edo neurri hertsatzaileak.
338. Azken horri buruz, aipa daiteke Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, bere txostenean, honako hau esaten duela: «Administrazio publikoak zerbitzu



publikoetan arreta ematean eraginkortasun eta arintasun berdinak izan behar ditu bi hizkuntzatan (euskara eta gaztelania) eta lanaren eremuan euskararen erabilera sustatu behar du zenbait tresna erabilia, hala nola sentsibilizazioa, dirulaguntzak, lanaldietatik liberatzea (...) Horrekin ados gaude. Hala eta guztiz ere, gure iritziz, testuan proposatzen den zehapena eta neurri hertsagarriak berreskuratzea ez dira bide positiboak helburua lortzeko eta bilatutakoaren kontrako ondorea izan dezakete». Hori dela eta, zehapen-araubidetik hizkuntza-araubidea baztertzeke eskatzen dute.

339. Bete ezean zehapena sartzea justifikatuta dago hizkuntza-araubidea orain osatzen duten betebeharrak neurrikoak direlako.
340. Zehapen-araubideari buruzko iritziak alde batera utzita, araubide horretan hizkuntza-betebeharren ez-betetzeak sartzeko, dirudienez, egokitzapen batzuk egin behar dira, nabarmenki, zehapenen alorrean.
341. Hizkuntza-araubideak justifikazioa aurkitu beharko du, azken batean, Konstituzio Auzitegiaren doktrinan ezarritako baldintzetan, eta horrek eskatzen du, azaldu dugunaren arabera, araubide hori osatzen duten neurriek, hala arreta euskaraz emateari buruzkoek nola dokumentuen arlokoek, beren egokitasuna adieraztea ahalbidetzen duen justifikazioa eduki behar dutela –helburuak lortzeko egokiak izatea, premia eta proportzionaltasuna kontuan hartuta–.

C) Aurreproiektuaren artikulua

3. artikulua:

342. Manuak kontzeptuen zenbait definizio zerrendatzen ditu, zeinak –ulertu behar da– beharrezkotzat hartzen baitira araua behar bezala interpretatu eta aplikatzeko.
343. ANGED erakundeak, bere alegazioetan, zerrendan «onlineko merkataritza»ren definizioa jasotzeko aukera iradoki zuen, baina ez zen onartu, *onlineko* kontsumo-harremanak edo kontsumo-harreman elektronikoak araudian behar bezala jasota zeudela iritzita.
344. Hala ere, 3. artikulua definizio batzuk KEDLOTBaren 59 bis artikulutik datozela kontuan hartuta, eta adierazi dugun bezala, manu horrek apirilaren 7ko 7/2021 Errege Lege Dekretuan, zerbitzu digitalei buruzko legezko kontzeptu berriak jasotzeko, aldaketak izan ditunez, horretaz ohartarazi beharra dago.



345. 3. artikuluko oraingo zerrenda aldaketa horren argitan berrikustea zuhurra izango litzateke, aurreikuspen berriren bat jaso beharra egongo balitz ere, gutxienez «zerbitzu-kontratu»aren definizioan sartutako zehaztasunari dagokionez.
346. Telefono-zerbitzua h) letran interes orokorreko oinarrizko zerbitzutzat jotzeak ez du babesik aurretiko lege-adierazpen batean.

9.etik 11.era arteko artikulua (Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordea):

347. Kontsumoko Kontsulta Batzordearen arauketa abenduaren 22ko 6/2003 Legean dagoenaren ia bera da. Antzeko hitzekin definitzen da, honela: «aholkularitza eta partaidetzarako organoa da Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordea, eta lankidetzeta eta koordinazioa sustatzen ditu kontsumoaren alorreko gizarte-eragileen artean eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen esparruko eskumenak dituzten administrazio publikoen artean». Hura osatzeko arauak oso modu ireki batez adierazten dira, eta araudira igortzen du hura zehazteko eta haren jarduteko araubidea ezartzeko.
348. Eduki funtzionala une honetan esleituta duenaren antzekoa da, halaber, honako honi buruzko funtzioa izan ezik: «Lege hau garatzean ematen diren xedapen orokorren, eta oro har, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak ukitzen dituzten gaiak arautzen diren gainerako kasuetan kontsultak jasotzea»; izan ere, aurreproiektuan desagertu da hori, eta honako hau eman dute horren orde: «Lege hau garatzean ematen diren xedapen orokorren, eta oro har, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen eta interesen gainean ematen diren arauen proiektuak eztabaidatzea eta aztertzea».
349. Kontuan hartu behar da aldatutako eginkizuna dela, hain zuzen, aukera ematen duena, Kontsulta Batzordearen bitartez, xedapen orokorrak prestatzeko orduan entzunaldiko izapidea egiteko, XOEPLaren 8.3 artikuluan, azken tartekian, aurreikusitako moduan: «Interesdunei zuzenean entzunez egingo da entzunaldia, edo, interesdun horiek biltzen edo ordezkatzan dituzten erakunde eta elkarteei entzunez; erakunde eta elkarte horiek legeak onartutakoak izan behar dute, eta haien helburuek lotura zuzena izan behar dute xedapenaren gaiarekin».
350. Komeni da ez ahaztea entzunaldia, xedapen orokorrak egiteko orduan, funtsezko izapide kualifikatu bat dela, Espainiako Konstituzioaren 105. artikuluan aurreikusia, eta berau ez bada egiten edo gaizki egiten bada, baliteke xedapen orokorraren deuseztasun-zehapena ekartzea.
351. Esan nahi baita, funtzio hori ezabatuta, entzunaldia zuzenean egin beharko da aipatutako betekizunak betetzen dituzten kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarte guztiekin –eta beren legezko araubidearen arabera, aurreproiektuak berak



ezarritakoa, izaera hori duten guztiak izango dira horiek–; hau da, aurreproiektua –lege bihurtutakoan– garatu behar duten erregelamendu-mailako arauak direnean ez ezik, baita kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes legitimoen eragiten dien Jaurlaritzaren beste edozein ekimenen kasuan ere –eta, Batzorde Juridiko honek pilatutako eskarmentua aintzat hartuta, horiek ez dira gutxi–.

352. Gai horrekin lotuta, 72.2.b) artikulua pertsonen elkarten eskubidetzat hartzen du honako hau, betiere ordezkari-kondizioa badute: «Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordean parte hartzea, erregelamenduz erabakitzen den moduan, eta, haren bidez, xedapen orokorrak prestatzeko prozeduran parte hartzea, baldin eta xedapenok eragiten badute ordezkatzeko dituzten eskubide eta interesetan». Manu hori eta 10.a) artikulua kontraesankorrak dira, eta, beraz, bien edukiak bateragarri egin beharra dago.

12. artikulua:

353. Aurreko gogoetan azaldutakoarekin zuzenean lotuta, egokia izango litzateke, orobat, f) letraren eskubidea gauzatzeko erabilitako hitzak ere zehaztea; izan ere, abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 4. artikulua e) letraren ildoari jarraitzen badio ere, ez du nahi bezain argi jasotzen oinarrizko arauak aipatzen duen eskubidea; [KEDLOTBaren 8.1.f) artikulua]: honetarako eskubidea: «kontsultatuak izatea, zuzenean eragiten dieten xedapen orokorrak lantzeko prozesuan parte hartzea eta beren interesak ordezkatzeko; hori guztia, legez eraturako kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte, talde, federazio edo konfederazioen bitartez».
354. Kontua da, berriz ere, idazteko orduan Espainiako Konstituzioaren 105. artikulua onartzen duen eskubidearen izaera berezia aintzat hartzea, eta horrekin batera, hiru alderdiok hobeto zehaztea: ordezkaritza, kontsulta eta parte hartzea.

17. eta 18. artikulua:

355. Aurreproiektuaren berritasunetako bat aipatutako manuetako lehenean kontsumo arduratsua sartzea da –jarduketa publikoen arretaren xede gisa–: «kontsumoa neurritsua, informatua, hausnartua eta kontzientea izatea, kontuan hartuta ingurumena zaintzea, bizi-kalitatea, kultura-berezitasunak, familien zorpetzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren helburua, onargarri diren arriskuak eta garapen sozioekonomiko indibidual eta kolektibo arduratsua egiteko gainerako faktoreak».
356. Asmo horren zehaztapen gisa, Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutuaren esku uzten da «bidezko merkataritzako ondasunak, jasangarriak, hurbilekoak (0 km-koak), sasoiak sasoikoak eta plastikoaren inpaktua murrizten eta material berrerabilgarriak edo birziklagarriak erabiltzen dituztenak kontsumitzea sustatzea».



357. Hurrengo manuan (18. artikulua) elikagaiak alferrik xahutzearen gaia jorratzen da, eta, hori eragozteko, jatetxe-arloko zerbitzuak eskaintzen dituztenek bezeroei iturriko ura eskaini behar diete, inolako kosturik gabe, eta, jan ez dituzten elikagaiak, kostu gehigarriak gabe, eramateko erraztasuna eman behar diete.
358. Arauketa horrek bat egiten du guztiz Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren 12. helburuarekin, zeinak 3. helmugan xedatzen baitu 2030erako «txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean alferrik galtzen diren biztanleko elikagaien kantitatea erdira murriztea, eta elikagai-galerak murriztea ekoizpen eta horniketa-kateetan».
359. Elikagaiak alferrik xahutzearen aurkako borrokan, beharrezkotzat jotzen da portaera informatua eta kontsumo jasangarria hobetzea. Horrela, Europako Parlamentuaren honi buruzko ebazpenean: «baliabideen erabilera efizienteari buruzko ekimena: alferrik xahututako elikagaiak gutxitzea eta elikagaien segurtasuna bermatzea (2017)», aurreratzen diren neurrien artean, sentsibilizazio-jarduerak daude.
360. Aurreproiektuak Elikagaiak galtzea eta alferrik xahutzea prebenitzeko legearen aurreproiektuarekin bat egiten du. Gorte Nagusietan izapidetzen ari dira lege-aurreproiektu hori, eta ostalaritza-enpresentzako betebeharrak jasotzen ditu – elikagaien katearen ikuspegian–.
361. Izapide horien jarraipena egitea egoki izango litzateke, azken araudiak bateragarriak izan daitezen.

19. artikulua:

362. Manuak askotariko ekarpenak jaso ditu testua lantzeko orduan. Alegaziogile batzuek idazkera zehaztearen alde egin dute, kontsumitzaile eta erabiltzaileentzako betebeharrak ezartzen ari zirela iritzita; organo sustatzaileak ukatu egin du interpretazio hori, eta administrazio-jarduketaren printzipio orientatzaile bat ezarri nahi dutela adierazi du.
363. Manuaren hitzez hitzeko edukia ikusita, hain zuzen, ezin da ondorioztatu pertsona horientzako betebeharrak ezartzen ari direnik (APELaren 18. artikulua eremuan). Nolanahi ere, jarduketaren izaera publikoa zehaztu ahal izango litzateke –17.1 artikuluan egin bezala–.

20. artikulua:

364. Abenduaren 26ko 1801/2003 Errege Dekretuaren aipua igorpen irekiago batez ordeztu beharko litzateke, eta testua idaztean hartutako irizpide orokorrarekin adosago dago hori, bai eta ondorengo arau-aldaketek –kasu honetan, gainera,



erregelamendu-mailako arauenek– operadore juridikoei ziurgabetasuna ekartzea eragozteko helburuarekin ere.

25. artikulua:

365. Manua idazteko orduan, komeni izango litzateke Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 18ko 72/2021 Epaia kontuan hartzea. Horren arabera, izan ere: «(...) 6/2019 Legearen 13 d) artikulua, egindako kontratazioaren frogagiria paperean egotea betebeharrak izan ordez aukera gisa ezarrita, kontraesan dago KEDLOTBaren 63.3 artikuluan jasotako estatu-araudiarekin, zeina aplikatzekoa baitaie kontsumitzaile baten eta enpresaburu baten artean egindako kontratuei, merkataritza-legeriaren, prozesu-legeriaren eta legeria zibilaren arloan Estatuak dituen eskumen eskusiboen babesean emanda Espainiako Konstituzioaren 149.16 eta 149.1.8 artikuluen arabera. Estatuko arauak zera xedatzen du: kontsumitzaileek eta erabiltzaileek egindako kontratuetan, enpresaburu frogagiria paperean ematera behartuta dago. Enpresaburuak agiri hori faktura elektronikoz batez ordeztu ahal izateko, kontsumitzaileak edo erabiltzaileak horrekin ados dagoela adierazi behar du berariaz, eta horrenbestez, horren erabakiaren mende egongo da formatu bat edo bestea onartzea. 13 d) artikulua ez dator bat azaldutako eskemarekin, Estatuko arauak aitortutako eskubide bat ukatzen baitio Extremadurako kontsumitzaileari, paperezko faktura eta faktura elektronikoz parekatzen baititu eta, ondorioz, enpresaburuaren esku uzten du bata edo bestea hautatzea».
366. Kontsumitzaileak edo erabiltzaileak faktura paperean jasotzeko duen eskubidea, betiere berariazko adostasunik agertu ezean, ongi islatuta gelditu behar da, ondorengo aplikazio-gatazkek saihesteko.

28. artikulua:

367. Artikulu hau KEDLOTBaren 20. artikuluen esparruan garatzen da, zeinak beharrezko informazioa ezartzen baitu ondasunen eta zerbitzuen merkataritza-eskaintzan.
368. 1/2021 Errege Lege Dekretuak, urtarrilaren 19koak, eta 24/2021 Errege Lege Dekretuak, azaroaren 2koak, aldatu egin dute KEDLOTBaren 20. artikulua hori, ondasunen eta zerbitzuen merkataritza-eskaintzaren gutxienezko baldintzen eta edukien alderdi jakin batzuetan, hauei dagokienez zehazki:
- a) Lineako merkatuetan eskaintako ondasun eta zerbitzuak.
 - b) «Gako-hitz, esapide edo bestelako datuen baten moduko kontsulta bat»en gainean egindako eskaintzaren kasua.



c) Enpresaburuak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen aipamenetarako sarbidea ematen duenean, argi jakinarazi beharko du aipamen horiek nola prozesatzen dituzten –zehazki, ea aipamen horiek ondasuna edo zerbitzua aurretik eskuratu duten kontsumitzaileek eta erabiltzaileek egin dituzten–.

369. Manuaren oraingo idazkerak itxuraz erantzuten dion irizpidearekin bat etorritz, organo sustatzaileak egokien iritzitako moduan sartu beharko dira eduki berriak, oinarritzko araudiaren garapena baita.

30. artikulua:

370. 24/2021 Errege Lege Dekretuak, azaroaren 2koak, 19. artikuluan 7. apartatu berria gehitu duela kontuan hartu behar da, eta horren arabera: «Administrazio publiko eskudunak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes zilegiak neurri handiagoan babesteko, murriztu ahal izango ditu enpresaburuak kontsumitzailearen eta erabiltzailearen helbideak eskatu gabe eginiko bisiten forma eta alderdi jakin batzuk edo enpresaburuak, ondasunak edo zerbitzuak sustatu edo saltzeko, antolatutako txangoak. Hartutako xedapenak neurritzkoak eta ez-baztertzailleak izango dira, eta ez dute inola ere ekarriko saltzeko bide horiek debekatzea, kontsumitzaileak babestea ez beste arrazoi batzuetan oinarrituta izan ezik (interes publikoa edo kontsumitzaileen bizitza pribatua errespetatzea, besteak beste)».

34. artikulua:

371. Zabalduko litzatekeen administrazio-zehapena irmoa delako aipamena jaso behar da 2. apartatuan.

37. artikulua:

372. c) letran, juridikoki seguruagoa da azaroaren 2ko 7/2017 Legearen 40.1 artikulua hitzez hitzeko edukiari egokitzea, eta «onartzeko betebeharra baldin badu» esapiderearen ordeztu «arau edo jokabide-kode batek behartzen badu» esapiderea ematea.

373. Lege horren 40. artikulura igortzeko (jasotzen du enpresaburuek kontsumitzaileei jakinarazi behar dietela egiaztatutako erakundeetara jotzeko aukera dutela kontsumoaren arloko auziak ebazteko), manua aipatzea beharrezkoa den aztertzea iradokitzen dugu.

374. Azaroaren 2ko 7/2017 Legea, arautzen duen gaia dela-eta, etengabe aldatuko dutenik ez badirudi ere, artikulua aipamenaren ordeztu azaroaren 2ko 7/2017 Lege horretan duen edukiaren aipamena jartzeko aukera azter liteke («enpresaburuek erakunde egiaztatuen berri emateko betebeharra»).



40. artikulua:

375. «Interes orokorreko arrazoietan» aipamena jasotzearen zentzuari buruzko hausnarketa egin behar da, nolabaiteko oinarri bat bezala, kontsumitzaileak babesteko eta defendatzeko eremuan bertan behera uzteko akzioa erabiltzeko administrazio publikoen eskubide onartua aktibatzeko (KEDLOTBaren 54. artikulua). Interes publikoak legitimazioa ematea justifikatzen du eta haren erabileran inplizitu dago, zeina ezin baita beste arrazoi batzuen ondorio izan.

41. artikulua:

376. 3. apartatuan 152. artikulua irekitzen duen ordaina emateko bide berria gogoraraztea zehatzeko edukiaren behin betiko idazketaren argitan baloratu behar da.

57. artikulua:

377. EAE eskuduna da hezkuntza-curriculumak zehazteko eta «kontsumoaren alorreko edukiak» sartzeko. Baina irakaskuntza arautuaren etapa eta maila bakoitzaren curriculum-edukia zehaztea hezkuntza-arauetan araututako prozesu konplexu baten parte da –(arau guztiak aipatzeko asmorik gabe, 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (HLO); 5/2002 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoa (KLHLO), eta 4/2018 Legea, ekainaren 28koa, EAEko Lanbide Heziketari buruzkoa–.
378. Hori kontuan hartuta, 2. apartatua idazteko era zehaztea iradokitzen dugu, orain modu inperatiboan baitago –«*hezkuntza-sistemak... jasoko du*»–. Segurtasun juridikoaren printzipioak ordenamenduaren koherentzia zaintzea aholkatzen du. Ikuspegi horretatik, arloko legeetan aztertutakoa bezalako aurreikuspenak sartuz gero, curriculum horiek prestatzeko lan jada konplexua zailtzeko arriskua dago.

VII. kapitulua (kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak):

379. Hasierako azterketan ohartarazi dugun bezala, EAEAEaren 10.28 artikulua tituluar, arautu beharreko xedea zein den, beste eskumen-eremu batzuk gehitu ahal zaizkio.
380. Ildo horretatik, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak arautzea EAEAEaren 10.13 artikulua eskumena erabiltzea da, halaber, honako arlo honetako eskumen eskusiboa zehazten baita bertan: «Irakaskuntzari, kulturari, arte, ongintza, ardura sozialari eta antzekoei laguntzeko diren Fundazio eta Elkarteak berauek beren funtzioak



ia erabat Euskal Autonomia Erkidegoan betetzen dituztenean» –titulu hori 17/2006 eta 99/2008 irizpenetan aztertu da–.

381. Orduan azaldu bezala, eskumen-esleitze horrek esan nahi du EAeri dagokiola «(...) bai legegintza-eginkizuna bai exekutiboa erabiltzea, araubide juridikoa erregulatuz, eta dagokion administrazio-ekintza gauzatuz» (173/1988 KAE, uztailaren 23koa, 5. OJ). Era berean, adierazten dugu ezen, Konstituzio Auzitegiak erabaki horretan bertan adierazi zuen bezala (3. OJ), eskumen-eremu autonomiko hori hornitzen zen, gainera, EAEk eskumen autonomikoko gaiekin bat datozen xede eta jarduerak dituzten elkarten gainean duen eskumenaz, eta gai horien artean kontsumitzailea eta erabiltzailea defendatzea dago (EAEAEaren 10.28 artikulua).
382. Ikuspegi horretan, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak (aurreproiektua horietaz arduratzen da) «elkarte»aren kategoria orokorraren mota bat dira, printzipioz, eta horregatik eskatzen zaie, lehenik, elkarteei buruzko legeriaren babesean eratuta egotea.
383. KEDLOTBak, elkarte horiekin lotuta, honako hau adierazten du: definizioaren oinarriko izaera, bai eta haien jardunean nagusi izan behar den independentziaren printzipioarena ere (23.1 eta 23.3 artikulua), izenaren erreserba (25. artikulua) eta elkarte-izaera galtzeko kasuak (26. artikulua).
384. KEDLOTBaren 24. artikulua, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarten legitimazioaren baldintzak ezartzekoa, berriz, Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikulua estatu-eskumena erabiliz emana dago.
385. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteei buruzko KEDLOTBaren gainerako aurreikuspenak eginkizunak autonomia-erkidego baten eremuan egiten ez dituztenei baino ez zaizkie aplikatzen, eta ez dute legegile autonomikoa lotzen, horrenbestez.
386. Cure 160/2021 Irizpenean duela gutxi adierazi bezala, abenduaren 22ko 6/2003 Legean ezarritako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarten araubidea eguneratu beharra zegoen, eta egoki sistematizatu, horrek beti laguntzen baitio segurtasun juridikoaren printzipioari. Bi helburuak betetzen dira aurreproiektuan, alderdi zehatz batzuei buruz ondoren egiten ditugun gogoetak alde batera utzi gabe.

61. artikulua:

387. 1. apartatuaren hasierak, «lege honen ondorioetarako» –zeina abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 29.1 artikulutik datorren–, ez du laguntzen arauketaren zentzua



ulertzen; hori dela eta, hura ezabatu dadin aztertzea proposatzen dugu, eta, apartatua hasteko, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkartearen kontzeptua erabiltzea, modu orokorrean bilduko dituen eta EAEn ondorio guztietarako aplikagarria izango dena.

388. Hobeto egokituko litzaioke definizioak elkartzeko oinarrizko eskubidearekin duen loturari horren barruan federazioak eta konfederazioak ez jasotzea; horiek apartatu edo paragrafo bereiz betean jorratu litezke –kooperatiben legeriaren arabera eratutako erakundeekin egiten den bezala–.
389. Ez da aise ulertzekoa kooperatiben legeriari jarraikiz eratutako erakundeei zergatik eskatzen zaien helburuen artean «kideak heztea eta prestatzea...», eta horrelakorik ez zehaztea 1. apartatuko definizioan.
390. Aurreikuspena KEDLOTBaren 23.1 artikuluan ageri da bi kasuetarako. Egiaztapen horretatik ezin da ondorioztatu omisioa KEDLOTBaren 23.1 artikuluan horren oinarrizko definizioaren kontrako dela, baina justifikazio egokia aurkitu beharra dago.
391. Horretarako, ikus daitekeenez, 71. a) eta b) artikuluan informazioa, heziketa eta prestakuntza jasotzen dira kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkartearen funtzio gisa, eta horrek ahaztu izanaren hipotesia indartzen du.
392. 3. apartatuan, agian argiagoa izango litzateke arauzko mezua positiboan ematea. «Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuko jarduketan» oharrak ez dirudi beharrezkoa, KEDLOTBaren 25. artikulua orokorrean ezarritako debekua –edo izenaren erreserba– kontuan hartuta.
393. Kontu handiz mugatu beharko litzateke «kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkartea»ren nozioa, haren legitimazioari begira zer ondorio dituen kontuan hartuta, izan ere, KEDLOTBaren 24.1 artikulua arabera, honako hauek baino ez daude legitimatuta «kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes orokorren izenean eta ordezkari gisa jarduteko»: «Titulu honetan eta aplikagarri zaien araudi autonomikoan aurreikusitakoaren arabera eratutako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkartea».

62. artikulua:

394. «Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkar te ordezkaria» definitzen du. Orokorraren barruko azpikategoria bat da eta, manuaren arabera, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkar te horrek, oro har aplikatu beharreko betekizunekin batera, honako hauei buruzkoak ere bete beharko ditu: lurralde-ezarpena,



erregelamendu bidez ezarritako bazkide kopurua eta jarduera-programa. Gainera, erregistroan izaera horrekin inskribatuta agertu beharko da berariaz.

395. Elkarte horiei eskubide berezi batzuk aitortzen zaizkie 72.2 artikuluan.
396. Are argiago mugatua jaso dadin, hala manuaren tituluaren nola idazketan «kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte ordezkariak» aipatzeko aukera azter liteke.
397. «Beroriek eratzen dituzten federazioen eta konfederazioen» kasua apartatu bereiz batean ezarri beharko da agian. Horrela hobeto adierazita egongo da betekizunak zehaztu behar dituen erregelamendua.
398. Berriz ere, amaieran zer idazkera hautatzen den, oso kontuan hartu beharko du «kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarte ordezkariak» legitimazio prozesaleko arauarekin duen lotura: zehazki Prozedura Zibilaren Legearen (PZL) 11.3 artikuluko ezarritakoa, arau horrek sortu baitzuen kontzeptua –«Gertaera kaltegarriaren ondoriozko kalteak kontsumitzaile edo erabiltzaile kopuru zehatzezina edo zehazgaitza osatzen dutenean, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkartei dagokie soil-soilean zehaztugabeko interes horien defentsa epaiketaren bidez demandatzeko legitimazioa, legearen arabera ordezkariak nahikoa badute»–.

63. artikulua:

399. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteentzat legitimazio prozesaleko arau bat xedatzen duen neurrian –KEDLOTBaren 24. artikuluan ezarrita, zeina, era berean, PZLan, bereziki 11. artikuluan eta zeharka 15. artikuluan, ezarritako legitimazioarekin lotuta dagoen–, Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikuluko eskumen-eremuan murgiltzen da (legeria prozesala), eta hori, doktrina konstituzional iraunkor baten arabera, legegile autonomikoentzat galarazita dago, baita, lehen adierazi dugun bezala, manu prozesalak zehatz-mehatz errepikatzen mugatzen badira ere.
400. Legeria prozesala «Estatuaren “eskumen orokor” bat da [Konstituzio Auzitegiaren 80/2018 Epaia, uztailearen 5koa (KAB 2018, 80), 5.a) OJ, eta 13/2019 Epaia (KAB 2019, 13)], eta tresna juridikozko uniformetasuna zaintzeko beharri erantzuten dio [71/1982 KAE, azaroaren 30koa (KAB 1982, 71), 20. OJ; 83/1986 KAE, ekainaren 26koa (KAB 1986, 83), 2. OJ, eta 173/1998 KAE, uztailearen 23koa (KAB 1998, 173), 16.c) OJ]].
401. «Orden mugatuko» eskumen autonomikoak modulatu ahal du eskumen orokor hori, «autonomia-erkidegoen zuzenbide substantiboaren berezitasunen ondorioz orden horretan dauden behar berezietara» mugatuta [65/2020 KAE, ekainaren 18koa (KAB 2020, 65), 16.b) OJ].



402. Baina kasu honetan ez dago oinarririk EAEAEaren 10.6 artikulua eskumena – hauen gainekoa: «Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide substantiboaren berezitasunetik eta beronen antolamendutik datozen arau prozesalak...»– erabiltzeko, konstituzio-doktrinak finkatuta [guztien erakusgarri; 13/2019 KAE, urtarrilaren 31koa (KAB 2019, 13), 2.b) OJ eta bertan aipatutako doktrina].

72. artikulua:

403. Aurreko gogoetan azaldutako arrazoi berek 1.e) apartatuaren funtzioa jasotzeko modua fintzea aholkatzen dute, gutxienez legeria prozesalari buruzko berariazko aipamen bat jaso beharko bailuke –2.f apartatuan egin bezala–.
404. Ez dago justifikazio objektiborik 2.e) apartatuak aipatutako eskubidea kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarte ordezkarietara bakarrik mugatu dadin.

93. artikulua:

405. Honako hau dio, hitzez hitz, 2. apartatuak: «Euskal administrazio publikoek kontratuak egiten dituztenean kontsumitzaile eta erabiltzaileei kontsumo-harremanen bidez ondasun edo zerbitzuak eskaintzen dizkieten enpresaburuekin, enpresa adjudikazioduna kontsumoko arbitraje-sistemari atxikita egon behararen baldintza barneratuko dute kontratuan».
406. Aurreproiektuaren berritasunetako bat da artikulua hori, eta kontsumoaren eremuko arbitraje-sistemen sustapenean sartzen da, alderdi hori, besteak beste, nabarmendu baitu Europar Batasunak, arbitrajea oso bide eraginkorra eta efikaza baita kontsumitzaileak defendatzeko, bide judizial neketsu eta luzearen aldean.
407. Manuak kontsumoko arbitraje-sistemaren helburuarekin duen loturak eta neurri horrek kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babestu eta defendatzeko dituen onurek ez dute zalantzarik uzten.
408. Baina, kasu honetan, neurria ezartzeko, kontratazioari buruzko araudira jo beharra dago, eta esparru horretan heldu behar diogu haren azterketari, hain zuzen.
409. Administrazio-kontratuen arloko Estatuko oinarrizko legeriaren legegarrapenerako eskumenaren ikuspegian [EAEAEaren 11.1.b) artikulua] sartzen da etorkizuneko legeak aztertzen duguna bezalako aurreikuspena jasotzea.
410. Ikuspegi horretan, printzipioz, ez da oztoporik ikusten aurreikuspen hori ezartzeko, azaroaren 8ko 9/2017 Legean (Sektore Publikoko Kontratuen Legea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB



eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora), 34.1 artikuluan, jasotako itun-askatasuna kontuan hartuz gero. Izan ere, 1. apartatu horrek honako hau onartzen du berariaz: «Sektore publikoko kontratuetan, edozein itun, klausula eta baldintza sartu ahalko da, baldin eta interes publikoaren kontra, antolamendu juridikoaren kontra edo administrazio onaren printzipioen kontra ez badaude».

411. Nolanahi ere, SPKL horren arabera, klausulak zenbait betekizun bete behar ditu, eta komeni da horiek aztertzea.
412. Lehena kontratuaren xedearekiko lotura da, SPKLaren 202.1 artikuluaen ildotik, zeinak, bere aldetik, 145.6 artikulura (adjudikazio-irizpideak) igortzen baitu.
413. Ildo horretatik, ondasun edo zerbitzuren bat jasotzen duenak erreklamazioa arbitraje-bidetik jaso dezan erraztea kontratuaren xedearekin lotuta ageri den aurreikuspena da –kontsumitzaileei ondasunak edo zerbitzuak eskaintzea kontsumo-harreman baten esparruan–, prestazioa gauzatzearen ondoriozko auzigaiei buruzkoa baita, hau da, prestazio horren bizi-zikloaren barrukoa.
414. Irizpide interpretatzaile gisa, kontuan hartu behar da ezen, 2014/24/EB Zuzentarauaren 97. *kontuan hartuz* delakoan esan bezala, horrelako klausulek ezin izango dutela enpresaren politika orokorrean kontratu zehatzetik haratago eragin: «kontratuaren objektuarekin lotura izateko baldintzak kanpo uzten ditu erantzukizun korporatiboko politika orokorrari buruzko irizpideak eta baldintzak, zeina ezin baita ulertu eskuratutako obren, horniduren edo zerbitzuen ekoizpen- edo prestazio-prozesu espezifikoaren bereizgarri gisa. Ondorioz, botere adjudikatzailleek ezin diete eskatu lizitatzaillei enpresan gizarte- edo ingurumen-erantzukizuneko politika jakin bat ezarrita izateko».
415. Mugei dagokienez, proposatutakoa bezalako klausula batek kontratu publiko zehatz baten ondoriozko kontsumitzaileekiko harreman juridikoetan baino ezin izango du eragin.
416. Halaber, klausulak honako hau ez ekartzea zaindu behar da: lehia askeari edo zerbitzu-prestazio askeari eragitea (askatasun ekonomikoak), sartzeko oztopo neurrigabea edo lurraldean errotuta egoteko eskakizuna. Ildo horretatik ere ez da arazorik ikusten, eta, printzipioz, ez da zailtasun nabarmenik hautematen naziotasun edo egoitza sozial guztietako enpresak atxiki daitezen.
417. Sistemari atxikitzeko klausula adjudikaziodun gertatzen den kontratistak bete beharko duen baldintza bat da, eta ezin izango da ezarri lizitatzaillearentzako betekizun gisa –ezin izango da kaudimen-irizpide bat izan–.



418. Aztertutako manuak ez du muga hori gainditzen, baina gogoan izan behar dugu ezen, legean aurreikuspen orokorra egingarria izanik ere, horrek ez duela esan nahi kontratu bakoitzean klausula jasotzea neurritzkoa den balioetsi behar ez denik –hau da, ea era ez diskriminatzaile batez aplikatzen den, interes orokorreko premiazko arrazoiek justifikatua dagoen, lortu nahi den helburua bermatzeko egokia den, eta, hori lortzeko, beharrezkotik haratago ez doan–.
419. Baldintzaren izaera aztertuta, bide batzuk irekitzen dira.
420. Gauzatzeko baldintza berezitat har dadin (SPKLaren 202. artikulua, 2014/14/EB Zuzentarauaren 70. artikulua argitan) politika publikoekin lotutako alderdiak edo zeharkako izaera dutenak sartzeari ekarri behar du, kontratuaren helburuarekin zuzeneko loturarik eduki ez arren, gizarte-, ingurumen- edo berrikuntza-baldintzekin gertatu bezala.
421. Ez da baztertzekoa arbitraje-sistemei atxikitzeko klausulak azkenean gauzatzeko baldintza berezi bihurtzea, batetik, kontsumitzaileen interes legitimoak defendatzearen arloko politikaren ondorioz –eta gero eta agerikoagoa da horren zeharkako izaera–, eta bestetik, botere publikoek (Europako Erkidego, Estatu eta Autonomietakoek) defentsa hori bermatzen duten mekanismo efikazak diseinuan sakontzeko egiten duten gero eta jarduera handiagoaren ondorioz –eta aipatu ditugun arauak dira mekanismo horien adibide on bat–.
422. Hala ere, une honetan seguruago ematen du juridikoki pentsatzea aurreproiektuaren manuak aipatutako kontratuaren gauzatzeko baldintza «arrunt» bat dela, zeina beharrezkoa baita zerbitzua kalitate-maila egokiaz gauzatzeko, ondasun-ematearen edo zerbitzu-prestazioaren hartzaile diren kontsumitzaileen eta erabiltzaileen onuragarri, kontsumo-harreman baten esparruan.
423. Nolanahi ere, dagokigun oinarrizko araudi aplikagarriarekin ea bateragarria den aztertzean, baldintza berezi edo «arrunt»eko kalifikazioak ere ez du une honetan garrantzi nabarmenik, SPKLaren 202. artikulua ez baitu ezartzen gauzatzeko baldintza «berezi» gisa jaso beharreko gaien zerrenda itxirik, eta egingarria da, hortaz, «beste orden» batzuetako batzuk jasotzea.
424. Administrazio-kontratuaren arloko Estatu oinarrizko legeriaren legegarapenerako eskumena betez, etorkizuneko legeak gauzatzeko baldintza berezi edo arrunt bat edo preskripzio tekniko bat ezar dezake (SPKLaren 125. eta 126. artikulua), oinarrizko alderdirik urratu gabe.
425. Azken gogoeta gisa adierazi behar da ezen, manuak «enpresa adjudikazioduna» zehaztasunez aipatu arren, gogoeta egin genezakeela ea komeni den «beharrezko



baldintza» esapidea zehaztea, irmotasunez jaso dadin baldintza hori kontratugauzatzearen gainean baino ez dela proiektatuko. Azaldutakoaren arabera, «gauzatzeko baldintza» esapidea erabil liteke, kontratazioari buruzko araudian aiseago txertatzeko aukera ematen baitu.

94. artikulua:

426. Hobe da 2. apartatuan aditza inperatiboan ez erabiltzea, izan ere, «laguntzak eta dirulaguntzak emateaz» ari garenean, besterik gabe, arazoak sor litezke aplikatzeko orduan.

96. artikulua:

427. 1. apartatuaren «eskatutako baldintzak» erregelamendu-mailako arauetan ere ezarrita egon ahalko direnez, seguruago izango litzateke legezko arauak bakarrik aipatzen ez dituen esapide bat erabiltzea.

99. artikulua:

428. APELen 56. artikulua, hala behin-behineko neurrietarako nola «oso behin-behineko neurri»etarako, ezartzen duen eremua manuaarena baino zabalagoa da.
429. Esparru horretan, gogoeta egin beharko litzateke ea onuragarria den 1. apartatuaren kasuetara baino ez mugatzea –horiek ohikoenak badira ere– Administrazio eskudunak —Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak ez ezik, baita udalek, aurreikusi bezala– eta, hala badagokio, kontsumoko ikuskatzaileek behin-behineko edo «oso behin-behineko» neurriak hartu ahal izateko ahalmena.
430. Bi ikuspegiak bateratu ahalko lirateke orain ezarritako kasuak araubide orokorraren zehaztapan modura jasoko balira.

101. artikulua:

431. h) letraren kasua berriz formulatu beharko litzateke APELen 56.3.i) artikulua ezartzen duen lege-erreserba kontuan hartuta, legean neurri mota aurrez berariaz zehazteko eskatzen baitu.

102. artikulua:

432. 1. apartatuan, 99. artikulua azterketan azaldutako arrazoi berak direla kausa, hobe litzateke kasua ez mugatzea arriskua desagertzera eta formulazio irekiago bat egitea –inguruabarrak desagertzea–.



433. 4. apartatuarekin lotuta, behin-behineko neurriak hartu diren prozedurari azkena ematen dion ebazpenak iraungiko ditu neurri horiek –ebazpen horrek ondorioak sortzen dituen zehazki, APELen 56.5 artikuluan, *in fine*, ezarritakoaren arabera–.
434. Behin-behineko neurrien helburu nagusia da prozeduran eman daitekeen ebazpenaren efikazia ziurtatzea eta, hura hartu bitartean, ukitutako interesak babestea.
435. Esparru horretan, behin-behineko neurriak hartu diren prozedura amaitzen duen ebazpenaren beharrezko eduki gisa, «zer neurri hartuko diren (...), eta beharrezkoa baldin bada, horiek betetzeko epeak eta baldintzak...» ezartzea nahasgarria da, 5. apartatuko behin-behineko eta behin betiko neurrien aipamena bezala.
436. Behin-behineko neurriak hartzen dituen prozedura amaitzen duen ebazpenak planteatutako gai guztiei buruz hitz egin beharko du. Zehaztu nahi bada ebazpen horrek, edozelan ere, behin-behineko neurriek sortutako gastuak eta horiek nork ordaindu behar dituen adierazi beharra duela, adierazi egin daiteke.
437. Asmoa bada lege-mailako arau batean «diruzko betebeharrak» ezartzea premiamendu-bidea erabili ahal izateko (APELen 101.2 artikulua), juridikoki seguruagoa da behin-behineko neurriak hartzea, egitez edo ez-egitez, eragin duen horren betebeharra era autonomo batez adieraztea.

III ARAUGINTZA-TEKNIKA

438. Batzordeak uste du proiektua, oro har, bat datorrela 1993ko martxoaren 23ko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez onartutako lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak lantzeko jarraibideekin –Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomia Garapenerako sailburuaren 1993ko apirilaren 6ko Aginduaren bidez argitaratuta–. Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko Legearen hirugarren xedapen gehigarriari jarraikiz aplikatu daitezke jarraibide horiek.
439. Hala eta guztiz ere, honako oharpen hauek egin dira, teknikoki bukatuagoa den arau-produktu bat lortzeko.
440. Lehenik, zenbait manuri eragiten dieten alderdi jakin batzuk batera jorratuko ditugu.
441. Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei buruzko baterako aipamena berrikusi beharko litzateke, ez baita modu homogeen egiten, eta ezin da aldea azaltzeko irizpiderik atera. Batzuetan, kategorietako bat –edo kontsumitzaileak edo



erabiltzaileak– aipatzea justifikatuta dagoela ikusten da, baina, beste batzuetan, ezin da azaldu zergatik ez diren aipatu erabiltzaileak kontsumitzaileekin batera (ohikoagoa baita lehenak ez aipatzea). Adibide modura, artikulua hauetako definizioak: 3.a), b), o); 35. artikulua –38. artikuluekin lotuta–.

442. Aldeak ikusten dira, halaber, profesionalen tratamenduan, enpresei edo enpresaburuei parekatuta edo ez. Adibide gisa, 36. artikulua –bezeroen arretarako zerbitzuei buruz–, 87. artikulua edo 92. artikulua.
443. Berez, 3.c) artikulua «enpresaburu»aren definizioak barne hartzen ditu, orobat, zerbitzu profesionalak ematen dituztenak, eta, horrenbestez, zentzu hertsian, aurretik adierazitako bereizketak ez lirateke beharrezkoak izango.
444. Testuaren homogeneotasun-helburu horrek berak aholkatzen du autonomia-erkidegoa molde bakar batekin aipatzea (batzuetan «Euskal Autonomia Erkidegoa» (61. artikulua) eta, beste batzuetan, «Euskadi» (60., 75.1, 91. edo 127.3 artikulua) aipatzen baita).
445. Gaztelaniaz «auto» aurrizki gisa erabiltzeko arau gramatikalen arabera, zuzena tarterik gabe idaztea da «*autoorganización*» –azalpen-zatiaren IV. epigrafearen bigarren lerrokadan eta 6.4 artikuluan aplikagarria, adibidez–.
446. Ikusten da, proiektatutako testuaren gaztelaniazko bertsioan, izenordain erakusleak batzuetan azentuatzen direla, eta beste batzuetan ez –Espainiako Errege Akademiak (RAE) izenordain erakusleetan tiletik ez jartzea aholkatzen du, anbiguotasunak saihesteko ez bada (determinatzaile gisa jokutzen badute, «*solo*» determinatzailearekin bezala)–.
447. Maiuskulen erabilera berrikusi behar da, adibidez, gaztelaniazko bertsioan: «*servicios*» (25. artikulua 2. lerrokadan), «*universidades*» (42. artikulua), «*título*» (96.5 artikulua), eta lehen hitzean bakarrik erabili «*Disposición transitoria tercera*»ren goiburuan.
448. Ongi egongo litzateke zifretan irizpide bera erabiltzea: batzuetan digituak erabiltzen dira –adibidez, zioen azalpenaren azken lerrokada, 35.1 artikulua edo 102.6 artikulua– eta, beste batzuetan, letratan transkribatzen dira –76. artikulua edo hirugarren xedapen iragankorra–.
449. Azpimarratzekoa da, halaber, proposatutako testua idazterakoan hizkera ez-sexista erabiltzen saiatzeko egindako lan handia (gaztelaniazko bertsioan). Kasu batzuk gelditzen dira, halere: «*los consumidores y usuarios*» (zioen azalpenaren I. epigrafearen laugarren lerrokada); «*todos los españoles*» edo «*capacidad jurídica del*



comerciante» (zioen azalpenaren II. epigrafearen bigarren eta hirugarren lerrokadetan, hurrenez hurren); «*socios cooperativistas*», 3. artikulua a) apartatuan; «*intermediario*», manu beraren d) apartatuan [eta 118.d) artikuluan, «*los intermediarios*»]; «*los minoristas*», 3. artikulua e) apartatuan; «*el empresario*», f) apartatuan, nahiz eta apartatu berean, hain zuzen, aldeaz aurretik hauxe adierazten den: «*la persona empresaria*»; «*los menores de edad*», 13.2.a) artikuluan; «*los empresarios*» (39.3 artikulua); «*sus socios*» (61.2 artikulua); «*número de asociados*»; «*asociados*» (71. artikulua); «*los consumidores*» (103.1 artikulua); «*terceros*» [118.f) artikulua]; «*los interesados*» (122.2 artikulua); «*al compareciente*» (122.3 artikulua).

450. Barneko igorpenak berrikusi behar dira egin diren akats batzuk zuzentzeko. Adibidez, zioen azalpenean, III. epigrafea, 158 artikulua direla esaten da, baina 159 dira, eta 38. artikulua igortzen du, 39.era igorri ordez; eta 122.3 artikulurako igorpena 122.2ra izan behar da. IV. epigrafean 17. artikulua apartatua zuzen aipatu behar da, dagokion parentesiarekin (17.1.11) eta V. epigrafean, hirugarren xedapen iragankorraren epeari buruzko aipamena bi urtekoa izan behar da –ez urtebetekoa– eta 25. artikuluan –ez 24.ean– jasotako betebeharra betetzeko.
451. Hori horrela, zioen azalpenari buruzko beste iradokizun batzuk egingo ditugu orain, azalpenen zatiarekiko koherentzia indartzearen.
452. II. epigrafearen azken lerrokadan, hobe izango litzateke konstituzio-doktrinaren interpretazio horren zehatza ez egitea –izan ere, zailagoa da eskumenak mugatzea–.
453. III. epigrafearen gidoidun hamabosgarren lerrokadan, gaztelaniazko bertsioan, azken esaldia zuzendu behar da, gaztelaniazko bertsioan, errepikatua baitago –ñabardurak ñabardura–: «*todo ello en línea con los criterios...*».
454. IV. paragrafoaren bigarren lerrokadan hobe izango litzateke udalen eginkizunak osatzea, hala nola: elkarrekin sustatzeko eta laguntzeko eginkizunak (...), kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa eta prestakuntza emateko jarduketak...
455. V. epigrafearen laugarren lerrokadan, III. tituluko I. kapituluaren edukari buruzkoan, jasotzen edo arautzen dituen (proiektutako testuan, gaztelaniaz, erabilitako *señala* hori baino hobeto) printzipioak aipatzen dira; horiek batera jaso litezke, araututako gainerako gaietatik dagokion puntuazio-ikurrak bereizita: «*los principios de irrenunciabilidad de los derechos..., de interpretación de las normas en materia de consumo de manera favorable a las personas consumidoras y usuarias (en plural los dos términos), de buena fe y equilibrio de las posiciones jurídicas de las partes en las relaciones de consumo, así como el de consumo responsable; y regula, en concreto, dos medidas contra*



el despilfarro...». I. kapitulu horren edukiarekin zintzo jokatzeko, amaieran zehaztu beharko luke kontsumitzaileek eta erabiltzaileek egin behar dituzten jarduketa jakin batzuen bidez beren gain hartu behar duten erantzukizuna ere jasotzen duela.

456. Aipatutako III. tituluaren II. kapituluaren edukiari dagokionez, V. epigrafearen bosgarren lerrokadan, arriskuen berri emateko betebeharrarekin batera, arriskua indargabetzeko betebeharrak espezifikoa aipatzen da, kapitulu horretan garatu ez arren.
457. V. epigrafe horren seigarren lerrokadan, gaztelaniazko bertsioan, koherentzia gramatikalagatik, «*consta*» pluralean jokatura egon behar da («*constem*»). Komeni da epigrafe horren zazpigarren lerrokada honela amaitzea: «*antes de interrumpir la prestación de que se trate*».
458. Hurrengo lerrokadak (V. epigrafearen zortzigarrena), III. kapituluaren «hirugarren atala»-ko edukiari buruzkoak –testuan atalak honela zenbakitzen dira: «1. atala», «2. atala»...–, bezeroenganako arretarekin batera, kexen eta erreklamazioen arreta jaso beharko luke, halaber. Eta hurrengo lerrokadan laugarren atalaren edukia aipatzean, Kontsumobiderekin batera, komeni da honako hau ere aipatzea: eta udalak, hala badagokio (...)
459. V. epigrafearen hamaikagarren lerrokadan, V. kapituluaren lehen atalaren edukia laburbiltzean, honako hau zehaztu beharko litzateke: ondasunen eta zerbitzuen gaineko informaziorako eskubidearen edukia ezartzen duela, honako hau arautzen duela: gutxieneko informazioa (...); publizitatea (...); eta, gainera, (...) jarduera edo zerbitzu jakin batzuk garatzen dituzten enpresak (...).
460. III. tituluaren VII. kapituluaren sarrera modura jokatzeko duenez, komenigarria izango litzateke adieraztea haren lehen atalak honako hauek jasotzen dituela: «*xedapen orokorrak*». Zioen azalpena eramandako kapitulu horren laugarren atalaren edukiak ez du zehatz-mehatz jasotzen 76. artikulua zer xedatzen duen: –inskripzioaren bajaren balizko aldia urte bat eta bost urte artekoa da–.
461. V. epigrafearen hamazazpigarren lerrokadaren amaieran, gaztelaniazko bertsioan, Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren aipuaren aurretiko «y» juntagailua ezabatu behar da, eta koma batez ordeztu: «(...) *medidas de fomento y estímulo, en consonancia con la doctrina* (...)».
462. Epigrafe horren hemeretzigarren lerrokadan, interes orokorreko oinarritzko zerbitzuak ematen dituzten enpresak aipatzean, gaztelaniazko bertsioan, antzeko



terminoak erabiltzen dira, eta horiek egoki antolatu behar dira –«de» preposizioa falta da–: «*las empresas de sectores de carácter básico de interés general*».

463. IV. tituluaren II. kapituluaren edukiarekin lotuta, zioen azalpenaren hogeita bigarren lerrokadak eginiko laburpena berriz formulatzea komeni da: «*se regulan las quejas, reclamaciones y denuncias, así como las hojas de reclamaciones a disposición de las personas consumidoras o usuarias, respecto a las que se prevé la utilización de medios electrónicos*».
464. V. epigrafearen hogeita seigarren lerrokadan VI. tituluari jasotako arauketa laburbiltzen da, eta komeni da hori zehaztea esku hartzen duen subjektu bakoitzaren jarduketei dagokionez. Horretarako, honako hau proposatzen dugu puntu eta jarraiairen ondoren: Era berean, (...) agintari-izaera, ikuskatzaileen eginkizunak eta ahalmenak arautzen dira; pertsonen betebeharrak (...).
465. Hogeita bederatzigarren lerrokadan, gaztelaniazko bertsioan, «*uno o más de las circunstancias (...)*» hitzak zuzendu eta hau eman behar da horien ordeztuz: «*una o más de las circunstancias (...)*». Jarraian duen enumerazioa ikusita, komeni da bi puntu jartzea honen ondotik: «*que hacen referencia*».
466. Ataletan banatutako beste kapituluei emandako tratamenduarekiko koherentziaren izenean, hogeita hamargarren lerrokadan IV. kapituluari –VII. tituluari da jada– ondoren zehaztutako gaia hiru ataletan egituratzen dela adieraztea proposatzen dugu.
467. Azalpen-zatiaren azken lerrokadan, gaztelaniaz, «*BOPV*» akronimoa darabil; aipatzen den lehen aldia izanik, izen osoa eman behar da.
468. Xedapenen atalari dagokionez, honako zehaztapen eta iradokizun egin behar ditugu gaztelaniazko bertsioaren gainean:
469. 4.4 artikuluan bi hitz hauek gertu daude «*aplicable*» eta «*aplicación*», hori saihestuko litzateke, adibidez, «*en aplicación de*» hitzen ordeztuz «*en virtud de*» edo «*de acuerdo con e*» jarriz gero. Gauza bera gertatzen da 90.3 artikuluan «*acuerdo*» hitz polisemikoarekin, eta esapide honetaz ordeztu daiteke «*con arreglo a*» (edo «*conforme a*» edo antzeko beste bat).
470. 6.1 artikuluan, aditz-komuntaduragatik, gaztelaniazko bertsioan, «*les atribuyen*»-ren ordeztuz, honako hau behar da: «*les atribuye*».



471. 17.2 artikuluaaren amaieran plurala erabili behar da: «*reciclables*». 18.2 artikuluan, «*traen*» aditza («*los que traigan*») ez da egokia eta honako honetaz ordeztu daiteke: «*llevar*» («*los que lleven*»), edo «*portar*», besteak beste.
472. 29. artikuluaaren 2. eta 3. lerrokaadetan orainaldia erabili behar da: «*se consideran*».
473. 34.2 artikuluan komenigarria izango litzateke deklarazio judizialaren edukia argiago adieraztea, orain honako hau esaten baitu: «*en tal concepto*», kontsumo-harremanean klausula edo jarduketa bat abusuzkoa dela adierazten duen prozedura judizial bat dela eta era horretan adierazi beharko litzatekeela ulertuta.
474. 50.1 artikuluan egokiagoa izango litzateke adieraztea udalek ez dituztela egin beharko zehaztutako jarduketak (aginterazko aditz-denbora ez zaio ongi heldu sustatzeko tokiko jarduketak adierazteari, bereziki b) eta g) letretan aipatutakoei.
475. 64. artikuluan, «*términos*» hitzaren aurretik «*los*» determinatzailea joan behar da, esapidearen errepikapena ezabatu behar da («*en los términos señalados*»). Eta 67. artikuluan «*asamblea general*» hitzen aurretik, «*la*» determinatzailea behar da. Determinatzaile bera («*la*») jarri behar da «*implantación*» hitzaren aurretik, 85. artikuluan.
476. 76.1.b) artikuluaak, komuntaduragatik, honako hau esan beharko luke: «*actividades que le son propias*».
477. 90.1 artikuluan «*en*» preposizioa ezabatu beharko litzateke, eta honela geldituko litzateke: «*Los acuerdos (...) serán vinculantes en los términos que las propias partes hayan fijado*».
478. 108. artikuluan «*de*» jarri behar da aurrekariak baino lehenago.
479. 110.1.b) artikuluaak, genero-komuntaduragatik («*la obtención de muestras*» esapidearekin), hauxe adierazi behar du: «*proporcionada*». Zenbaki-komuntaduragatik, 118.b) artikuluaak hau esan behar du: «*justifique*».
480. 119. artikuluaak, lerrokada bakarreakoak, honako hau dio: «*lo dispuesto en el apartado precedente*». Honako hau adierazi beharko luke: «*lo dispuesto en el artículo precedente*».
481. 120.3 artikuluan «*consumo*» hitzaren aurretik, «*de*» preposizioa egon behar da. Eta 122.2 artikuluan «*la inspección*» hitzen aurretik, «*a*» preposizioa egon behar da. Lerrokada horretan bertan, bigarren paragrafoan «*en relación a*» hitzen ordeztu honako hau jarri behar da: «*en relación con el (...)*».



482. Amaitzeko, testua berrikustea gomendatzen dugu, puntuazio-zeinuak (komak, puntuak eta abarrak) egoki erabilita daudela egiaztatzeko.

ONDORIOA

Batzordeak emandako irizpenaren arabera, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren Legearen Aurreproiektua, behin irizpen honen mamian egindako oharrak aintzakotzat hartutakoan, Gobernu Kontseiluari aurkeztu ahal izango zaio, onespena eman dezan.

Eta hala ziurtatzen dut, Gasteizen, 2022ko otsailaren 4an, batzordeburuaren oniritziarekin, jakin eta kontuan har dadin. Era berean, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikulua xedatzen duen betebeharra gogorarazten dizugu: Batzorde honi jakinarazi behar zaio azkenean onartutako xedapena edo ebazpena, antolamendu eta funtzionamenduaren araudia onartzen duen irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren 34. artikulua xedatzen duen moduan eta epean.

Jesús María Alonso Quilchano,

Idazkaria

Ontzat emana:

Sabino Torre Díez,

Batzordeburua

Elektronikoki sinatua